

Jakin ^{•eus} 219

herria kultura hizkuntza | martxoa-apirila
2017

Humboldtten euskal nazioaz
IÑAKI ZABALETA GORROTXATEGI

Naziogintzaren ataka berria. Estaturik gabeko
naziogintza eta naziorik gabeko estatugintza
HARITZ AZURMENDI

Eredu aldaketa euskal nazionalismoan?
Demokrazia kontzeptuaren garrantzia
JULEN ZABALO
ONINTZA ODRIOZOLA

Autogobernuaren teoria eta
praktikari buruzko hausnarketa
IÑAKI LASAGABASTER

EGUNEN GURPILEAN

MIREN ARTETXE · HENRIKE GALARZA ·
TXERRA RODRIGUEZ · IGNAZIO AÍESTARAN
KOLDO DIAZ BIZKARGUENAGA

Jakin^{•eus}**219**
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila
2017



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

JAKIN FUNDAZIOKO LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAIAK

11 Humboldtten euskal nazioaz Iñaki Zabaleta Gorrotxategi

Humboldtten nazioari eta hizkuntzari buruzko gogoetak aztertzen dira: haren helburua 'euskal nazioa' bere singularitasunean ezaugarritzea da, eta, horretarako, ezinbestekoa ikusten du 'euskal hizkuntza' horren euskarri eta gako bezala ulertzea.

31 Naziogintzaren ataka berria. Estaturik gabeko naziogintza eta naziorik gabeko estatugintza Haritz Azurmendi

Azken mendeetan batera joan diren naziogintzaren eta estatugintzaren irakurketa bat egiten da, batez ere autore klasikoe-tan oinarrituz; ondoren, sintesi horren arazoak azaldu eta bi prozesuek autonomoki izan ditzaketen bideei buruz gogoeta laburra egiten da.

59 Eredu aldaketa euskal nazionalismoan? Demokrazia kontzeptuaren garrantzia Julen Zabalo • Onintza Odriozola

Azken urteotan demokrazia kontzeptuak euskal nazionalismoaren diskurtsoetan hartu duen pisuaz egiten da gogoeta eta diskurtso abertzaleek etorkizunean izan lezaketan bilakae-ra jartzen da mahai gainean.

81 Autogobernuaren teoria eta praktikari buruzko hausnarketa

Iñaki Lasagabaster

Gobernu, autogobernu, forutasun, autodeterminazio eskubide, estatuen aintzatespen eta erabakitze eskubideari eusten dioten printzipioak aztertzen dira, eta bereziki EAeko eta Nafarroako autogobernuaren bilakaera, eskumenen garapena, autonomiaren aurrerapena eta egungo egoera.

EGUNEN GURPILEAN

99 Kultura

Miren Artetxe

107 Ekonomia

Henrike Galarza

115 Soziolinguistika

Txerra Rodriguez

121 Ingurune digitala

Koldo Diaz Bizkarguenaga

127 Glokalia

Ignazio Aiestaran

KONTRAZALA Unai Iturriaga

About Humboldt's Basque nation

The philosophy lecturer Iñaki Zabaleta Gorrotxategi analyses Humboldt's thoughts on nation and language. His aim was to characterise the 'Basque nation' in terms of its uniqueness, and to do so he considered it essential to view the 'Basque language' as its key component.

[Iñaki Zabaleta Gorrotxategi](#)

The new trance of nation building: nation building without a state and state building without a nation

The graduate and philosopher Haritz Azurmendi takes a look at nation and state building that have tended to go hand in hand over the last few centuries, basing himself above all on classic authors. He then describes the problems attached to this synthesis and provides a brief reflection about the paths the two processes might separately pursue.

[Haritz Azurmendi](#)

Change of model in Basque nationalism?

The importance of the concept of democracy

The sociology lecturers Julen Zabalo and Onintza Odriozola reflect on the importance given in recent years to the concept of democracy in discourse about Basque nationalism, and discuss how this discourse might evolve in the future. [Julen Zabalo](#) • [Onintza Odriozola](#)

A reflection about the theory and practice of self-government

The administrative law chair Iñaki Lasagabaster analyses the principles on which government, self-government, governance based on fueros (regional jurisdiction/charters), the right to self-determination, recognition of states and the right to decide are founded. Specifically, the development of self-government in the Basque Autonomous Community and Navarre, advances made in terms of autonomy and the current situation are analysed. [Iñaki Lasagabaster](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic, digital environment and globalization matters. This section draws on various specialists: Miren Artetxe, Henrique Galarza, Txerra Rodriguez, Koldo Diaz Bizkarguenaga and Ignazio Aiestaran. [Various authors](#)

Nahi gabean, elkarrizketan –eta eztabaidan– dauden artikuluek osatzen dute Jakinen zenbaki berria hau; nahi gabean diogu, artikulua solteen urteroko zenbakia baita honako hau. Nahi gabeko ‘monografiko’ hau nazioa, nazionalismoa, estatua, estatugintza, hizkuntza, kultura, demokrazia eta subiranotasuna kontzeptuen inguruan osatu da; nahi gabean, baina ez kasualitatez. Dударik gabe, jakintza, pentsamendua eta eztabaida –batzuetan jauzika eta bestetan ur moteletan dabilen erreka bezala– mugimenduan dago gurean. Alegia, elkarren artean elkarrizketan jarraitzen dugula, menturaz. Eta zenbaki honetan ere artikuluek elkarrekin eta elkarri ari dira hizketan.

Elkarrizketa Humboldtten ‘euskal nazioak’ abiatzen du zenbaki honetan Iñaki Zabaleta Gorrotxategiren eskutik. Antropologo eta pentsalari alemaniarrek, XIX. mende hasiberrian Euskal Herrira datorrenean, hizkuntza eta nazioaren arteko lotura berarekin badakar ere, bertan topatzen du bere pentsamenduaren ‘errealitatea’: «soilik euskaldunak ezagutu ondoren ulertuko du, guztiz, hizkuntza dela bere bilaketaren objektua, alegia, nazioaren muina edo erdigunea», Zabaleta Gorrotxategiren hitzetan. Eta hortik indartuko ditu nazioa eta hizkuntza lotzen dituen hausnarketak. Nolabait esan, Humboldttek ‘nazioa’ topatzen du, banakoaren eta gizadiaren artean kokatzen den erdiko instantzia hori, eta instantzia hori hitzun batasun bat dela ondorioztatzen du.

Bestela ere esan daiteke: «inork munduan paratzeko modua, lokala eta unibertuala norbanakoaren munduan kokatzekoa, estatua-aren galbahetik pasatzen dela. Esanak esan, oraindik ere mundua naziotan pentsatzen dugu». Haritz Azurmendiren hitzak dira, harena da bigarren artikulua, eta, bertan, nazioaz, nazio-gintzaz eta estatugintzaz dihardu. Besteak beste, gaur-gaurko galdera giltzarri bat botatzen digu: «nola imajinatu, nazio-estatuak antolaera politiko bakar gisara aurkezten diren honetan, eredu horrek berekin dakartzan bazterketa mekanismoak errepikatuko ez dituen egituraketa bat, bai maila politikoan, baina baita kultural-nazionallean ere».

Galdera horretatik ez dabil urrun Julen Zabalok eta Onintza Odriozolak ondu duten hirugarren artikulua. Euskal nazionalis-

moak aldian aldiko testuinguruari egokitutako diskurtsoen altzoan egin duen bidea aztertu dute. Nazioaren elementu sinboliko garrantzitsuenak bi izan direla argudiatzen dute, eta, horien arabera, lehen-lehenik arrazan oinarritutako diskurtsoa eraiki zela, eta, ondoren, hizkuntzan oinarritutako diskurtsoa, gaur arte iritsi dena. Gaur egun, nazioaren elementu sinboliko diskurtsibo gero eta indartsuago gisa, demokrazia kontzeptua indarra agertzen ari zai-gula konstatazio bat da. Eta horrek gorago aipatutako galderara garamatza, finean, demokrazia eta hizkuntza diskurtsoak batera-garriak ote diren edo nola egin litezkeen.

Gobernu, autogobernu, forutasun, autodeterminazio eskubide, estatuen aintzatespe eta erabakitze eskubideari eusten dioten printzipioak aztertu ditu Iñaki Lasagabasterrek, gaiaren beste aldaera bat mahai gainean jarritz, elkarrizketan beste puntu bat sartuz. Euskal Herriko hiru administrazioei erreferentzia eginez, ze bilakaera, ze eskumen garapen, autonomian ze aurrerapen izan den aztertu du, eta, sinpleki esanda, galdera bat jarri du abiapuntu: zer nolako autonomiaz eta botereaz ari gara? Benetan ze subiranotasun maila dugu?

Egunen gurrpilean sailak ohiko bost artikulugileren bidez aktualitatean jartzen du fokoa, eta ohi bezala Miren Artetxek kulturaren, azken hilabete parean, gertatua bere begiradaren galbahetik iragazita dakarkigu, Henrike Galarzak ekonomiarena, Txerra Rodriguezek hizkuntzarena, Koldo Diaz Bizkarguenagak ingurune digitalarena eta Ignazio Aiestarenek 'gu eta munduarena' –gauza bera ez badira–. Unai Iturriagak, kontrazalean, Platon eta Alien bat egiten ditu, Sarrionandiatik barrena.

GAIAK

- 11** Humboldtten euskal nazioaz
Iñaki Zabaleta Gorrotxategi
- 31** Naziogintzaren ataka berria.
Estaturik gabeko naziogintza eta
naziorik gabeko estatugintza
Haritz Azurmendi
- 59** Eredu aldaketa euskal
nazionalismoan? Demokrazia
kontzeptuaren garrantzia
Julen Zabalo
Onintza Odriozola
- 81** Autogobernuaren teoria eta
praktikari buruzko hausnarketa
Iñaki Lasagabaster

Humboldtten euskal nazioaz

Iñaki Zabaleta Gorrotxategi
UPV/EHUko Filosofia Saileko irakaslea

Sarrera: Andoaindik Potsdamera

Joxe Azurmendiren liburu berria dela eta –*Hizkuntza, nazioa, estatua*– solasaldi aberats bat izan genuen berekin Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean 2017ko martxoaren 1ean. Honela laburtu dezakegu, printzipioz, bere tesi nagusia: «euskal nazioa» eta «euskal hizkuntza» elkarri loturik daude. Baieztapen horretara iristeko, lehenik, nazioaren kontzeptu klasikoari erreparatzen dio, eta, zentzu honetan, zalantza handirik gabe erakusten du hori –oro har eta beti– komunitate linguistikoaren kontzeptuarekin batera agertzen dela. Hortik abiatuz, eta Euskal Herrira etorrira, bestelako bi galdera planteatzen ditu –nola pentsatu gaur euskal nazioa eta nola pentsatu euskal nazioaren etorkizuna–, zeinak egiaz, eta berak espresuki iradoki bezala, erantzuteko zailagoak diren.

Baina gure helburua, hemen, ez da Azurmendiren liburua aztertzea –nahiz eta horrek hori eta gehiago merezi duen–, baizik eta berori aitzakiatzat hartuz –aspaldi batean eta Prusiatik etorrira– tesi berera iritsi zen Wilhelm von Humboldtten hainbat hausnarketa gogora ekartzea.

Nazioa eta hizkuntza bezalako kontzeptuek erreferitzen dituzten errealitateak, dakigun bezala, ez dira fisikoak, kulturalak baizik; eta, horrexegatik, asko ikas dezakegu kontzeptu horiek historian zehar nola erabili izan diren aztertuz.

Humboldten lekukotza, horrenbestez, argigarria izan daiteke guretzat: batetik, ez Estatuan -edo Estatuetan-, baizik eta Herrian bertan oinarritzen den nazio kulturaletik abiatzen delako; eta, bestetik, Euskal Herrira etortzerakoan jabetzen delako, hain zuzen, nazioaren eta hizkuntzaren arteko sakoneko loturaz. Gogora ekartzekoa da, gainera, Humboldt duela justu 250 urte jaio zela, zehazki, 1767ko ekainaren 22an, Potsdamen.

Nazioak aztergai antropologiko bezala

1. Euskal Herrira etorri aurretik, eta hau garrantzitsua da, Humboldtek diseinatu du jada bere egitasmu humanistikoa -«antropologia konparatua»-, zeinek ikuspuntu propio batetik gizakiaren dimentsio indibiduala, nazionala eta unibertetsala uztartu nahi dituen. Gogora dezagun, zentzu honetan, bere garaian -eta egiaz iraultza frantsesaren ondorioz- ohikoak direla 'herriari', 'nazioari' edota 'estatuari' buruzko galderak, zeinek oro har erantzun ilun eta nahasiak jasotzen dituzten.

Gure autorea, zehazki, nahikoa kritikoa da ohiko planteamendu ilustratu-politikoekin -humanizazioa ezin daiteke kanpotik eta goitik inposatu-, eta Herderren planteamendu erromantiko-kulturaletara hurbiltzen da -humanizazioa barrutik garatu eta behetik bultzatu behar da-. Testuinguru horretan, bada, esanahi berezia aitortzen dio 'nazioari', hain zuzen, batez ere -baina ez bakarrik- hizkuntza bat partekatzen duen 'herriari'. Finean, eta Menzek azpimarratu bezala, gai horrek sarritan piztuko du haren arreta: «Humboldt behin eta berriz saiatu da, bere bizitzaren garai ezberdinetan, nazioa zer den ulertzen» (Menze, 1965: 251).

2. Nazioari halako arreta eskaintzearen arrazoia, finean, bere antropologiak abiapuntu bezala hartzen duen printzipio historizistan oinarritzen da, zeinaren ondorioz gizakia, beti eta soilik, ingurune natural eta sozial ezberdinetan bizi diren gizakiengan den erreal. Gizakia ez da entelekia abstraktu

bat eta gizakiak ere ez dira ir-
la isolatuak; eta, horrexegatik,
hari buruzko ikerketak –er-
dibidean kokatuz– nahitaez
gainditu behar ditu tentazio
orokortzaileak edota erreduk-
zio indibidualizatzaileak. Ai-
patutako ingurune naturalari
dagokionez, adibidez, honela
dio: «Gizakiaren konstituzio
fisikoak, alde guztietatik be-
giratuta, paper esanguratsua
jokatzen du bere karakterea-
ren formazioan» (I, 390). Mo-
du berean, eta bere garaiko Lamarcken eboluzioaren teoria
goian duelarik, zera idazten du ere:

Gizakia, bada, bera inguratzen duten gauza fisikoen arabera ga-
ratzen da soilik. Lehen begiradan gizakiaren barnearekiko erabat
heterogeneoak diruditen zirkunstantzia eta gertaerek –besteak
beste, klimak, lurrak, janariak eta kanpoko erakundeek– mani-
festazio moral berriak sorrarazten dituzte berarengan, horiek as-
kotan finenak eta altuenak direlarik (I, 389).

Baina Humboldték, zalantzarik gabe, askoz ere garrantzi
handiagoa ematen dio gizakiaren ingurune sozialari, hain
zuzen, horrek zuzenago eragiten duelako haren izaeran eta
garapenean:

Gizakia ahula da bakarka eta ezer gutxi egin dezake bere indar
mugatuekin. Berak beste zerbait behar du [...] bere nazioaren,
bere belaunaldiaren eta bere garaiaren espiritua geroz eta gehia-
go bere baitan barneratuz lortuko duen abantaila (I, 385).

Ikerketa antropologikoak, beraz, bere hedadura osoan eta
bere erlazio guztiekin aztertu behar du giza errealitatea:

Gu garena erabat eta zehatz behar da izan irudikatua, baina ez den-
boraren koadro osotik ateratako irudi hil bat bezala. Gu elkarre-
kin loturik dauden eta kolektiboki eragiten duten kausa-zerrenda

Humboldt Herderren
planteamendu
erromantiko-kulturaletara
hurbiltzen da: esanahi
berezia aitortzen
dio 'nazioari', batez
ere hizkuntza bat
partekatzen duen
'herriari'

baten kide bizi bat bezala izan behar gara aurkeztuak, hau da, aldi berean gure aurretik aktiboak ziren indarren produktu bezala eta gure ondoren aktiboak izango diren beste indar berri batzuen iturri bezala (II, 1).

Humboldttek, modu honetan, bere historikotasunean behatzen du gizakia –izan ere, beti ‘hemen eta orain’ batean da eta dago–, eta, hortik abiatuz, beharrezkoa ikusten du ‘giza espezie’ bezala irudikatzen dituen gizatalde edo ‘nazio’ ezberdinei erreparatzea. ‘Anatomia konparatuan’ egiten dena gogoratu ondoren, adibidez, honela mintzo da: «Antropologia konparatu batean ere giza espezie ezberdinen izaera moralaren singularitasunak elkarren ondoan aurkeztu eta konparatiboki baloratu daitezke» (I, 377).

3. Gizadiaren agerpen indibidualak banakoak diren bezala, bada, Humboldttek haren agerpen kolektibo bezala irudikatzen ditu herriak edo nazioak; oinarrian, ez ditu horiek hainbeste errealitate politiko bezala ikusten, baizik eta batez ere errealitate kultural bezala. Honela, eta zinez analogia bati jarraituz, behin eta berriz hitz egiten du nazio ezberdinen karaktere singularraz: «Garai bakoitzak eta –horietako bakoitzean– giza espeziearen klase bakoitzak, egiaz, berezko karaktere bat dakar bere baitan» (II, 9). Berori, gainera, erraz atzeman daiteke gizatalde handietan:

Masa, leinu eta nazio handiek karaktere komun bat gordetzen dute mendeetan zehar, eta, nahiz eta horrek aldaketa handiak jasan, oraindik ere atzeman daiteke bere jatorria (I, 390).

Horren haritik, eta hasieratik gizadia –naturalki edo– nazio ezberdinetan gauzatzen dela kontsideratuz, modu oso positiboan baloratzen du aniztasuna, hain zuzen, aldi berean abiapuntu bezala hartzen eta helburu bezala ikusten duen nazioen aniztasuna. Nazio bakoitzak, gizabanako bakoitzak bezalaxe, besteekin kontatu behar du bere burua singularki garatu ahal izateko –batek kontrastean garatzen du bere karakterea–, eta, horrexegatik, elkarren arteko ezberdintasunak

suntsitu baino areagotu egin behar dira. «Gizadiak», hala, «sozialki bakarrik lor dezake bere gailur altuena», hau da, «situazioen aniztasun handiagoari esker bakarrik lor dezake bere natura bere benetako aberastasunean eta bere hedadura guztian erakustea» (I, 379).

Gizadia, bestela esanda, aniztasunean bakarrik da eta izango da erreala, hots, banakoen eta nazioen aniztasunean –horixe zioen, ere, Herderrek–; eta horrek agerian uzten du, bestela, arazo politiko bat, hots, Humboldtek bereziki kontsideratzen duen aniztasunaren kudeaketaren arazoa. Oro har, politikariak, eraginkortasunaren izenean, ezberdintasunak ezabatze-ko joera du –adibidez, estatu batek nazio ezberdinak biltzen dituenen–, eta horren aurrean galdera kritiko bat egiten du: «Baina posible al da hori singularitasuna galdu gabe eta, ondorioz, aldi berean berezko jarduera eta energia galdu gabe?» (I, 382). Bada, horrela, eta gizadiaren berezko aberastasunaren izenean, Humboldtek ezberdintasunak garatzeko beharra aldarrikatzen du eta, horrekin batera, baita politika egiteko modu berri bat ere: ahalegina egin beharko litzateke «karaktere indibidualaren duintasuna eta estatu zein giza masa handien onura» elkarrekin lotzeko, horretarako ezinbestekoa delarik «subjektuen indibidualitate errealean ikasketa zehatzenetik» hasia (I, 382). Horixe da antropologia konparatuak egin behar duena, alegia, karaktere indibidual eta nazional ezberdinak abiapuntu bezala hartu, horien arteko elkarrengainaztertzea eta horien garapenerako bide berriak proposatu.

4. Horren haritik, eta aurrerapauso bat emanez, bidaiatzearen sakoneko zentzuaz hausnartzen du Humboldtek eta, zehazki, bidaien «azken helburu zientifikoaz» hitz egiten du, hain zuzen, horiek «gizabanakoak eta nazioak» ikertzeko ezinbesteko bitartekoak direlako. Gizadia, gogora dezagun berriro, bere aniztasun historikoan da erreala, eta, horrexegatik, beraren ikertzaileak zuzenean erreparatu behar die aniztasun horren forma eta maila ezberdinei. Helburua giza agerpen ezberdinak kontsideratzea da: «Bidaietan, etxean bezala, bizitza

aktiboan zein geldian bezala, nonahi aurkezten da aukera, bai, zientzia antropologikoa aberasteko eta erabiltzeko» (I, 377). Kontua da, bestela esanda, ezerk ezin duela giza agerpenen «begirada erreala» ordezkatu, hau da, pertsona edota herri ezberdinen inguruko estudio teoriko onenak ere -eta horiei garrantzia kendu gabe- ez direla nahikoa «objektuaren irudi adierazgarri» bat eskaintzeko. Horren haritik, adibidez, honakoa idazten dio Schillerrri 1799ko apirilaren 26an:

Oso ezberdina da, egiaz, orainaldi errealak objektuaren gainean zabaltzen duen argia eta behatzailearengan sortzen duen efektua. Letra huts hilekin ez dira soilik xehetasun bakan batzuk galtzen, baizik eta batez ere banakoaren lotura eta osotasunaren batasuna.

Eta hor bertan, halaber, honakoa irakurtzen diogu Humboldt:

Nazio bat bere idazleengan, bere ohituretan eta bere ekintzetan zehatz ezagutzeko -nire ustez- beharrezkoa da denbora luze bat bertan egotea, finean, horiek guztiak ezagutzea ezinbestekoa delako ulermen zehatz batera iritsi ahal izateko.

Gizataldeak gertutik behatu ahal izateak, gainera, horien egoera historikoaz jabetzeko trebezia garatzen laguntzen dio antropologoari:

Bidaiatzeak nazioen egoera ezberdinetan sartzen du espiritua, eta -nahiz eta horiek lehenagotik teorikoki eta osorik ezagutzen dituen- bidaiari esker horrek konfiantza hartzen du haien bizitzeko era eta ohiturekin (II, 82).

Horrekin batera, bada, funtsezko garrantzia ematen dio bidaietan zehar bizi izandako guztia idatziz jartzeari, adibidez, eguneroko pertsonaletan, besteei zuzendutako eskutitzetan edota bestelako kontakizunetan. «Orri hauek», honela mintzo da Humboldt, «gizakien eta nazioen ezagutzari buruzko nire lanetan erabilgarria izango den [...] material errepertorio bat osatzen dute» (XIV, 361). Bada, hortik abiatuz, eta bere egitasmo antropologikoa zehaztearekin batera, gure autoreak bidai-teoria propio bat jorratzen du, eta, horretan geratu gabe, inolaz ere turistikoak ez diren hainbat bidaiari

burutzen ditu, horiek alde zuzenetik xehetasun handienarekin prestatuz.

5. Humboldttek, beraz, hasiera-hasieratik -eta egiaz euskaldunak ezagutzera etorri aurretik- garbi du gizadia bere agerpen historikoetan soilik aztertu daitekeela eta, horren baitan, ikerketa antropologikoak -bidaien bitartez ere- bereziki erreparatu behar diela nazio ezberdinei. Kontsiderazio horiek, egiaz, garapen esanguratsua ezagutzeko dute hortik aurrerako bere testuetan -eta ez soilik euskal gaiak lantzen dituen horietan-; izan ere, bere kezka nagusietako bat -jada adierazi bezala- beti egongo da nazioa zer den n galderarekin lotuta. Nolanahi ere, baina, azpimarratzekoa da zein puntutaraino den funtsezkoa berarentzat Euskal Herrira etorri izana; hain zuzen, hortik aurrera ikusten du hizkuntza ez dela soilik besteren arteko elementu bat, baizik eta, egiaz, nazioaren beraren elementu zentrala.

Humboldtentzat funtsezkoa da Euskal Herrira etorri izana; hortik aurrera ikusten du hizkuntza ez dela soilik besteren arteko elementu bat, baizik eta, egiaz, nazioaren beraren elementu zentrala

Euskaldunak bidaien jomuga bezala

1. Bere teoria antropologikoa finkatu ondoren, bada, ezinbestekoa deritzo berori praktikara eramateari, eta -bereziki «karaktere nazionala» zer den argitu nahian- Parisera doa 1797ko azaroan eta bertan geratzeko da 1801eko abuztura arte. Honela mintzo da Berglar:

Bera orduan hasten da *nazioa* aurkitzen, hala nola, *banakoaren* eta *gizadiaren* artean kokatzen den erdiko instantzia bezala. [...] Nazio frantsesarekin topo egiterakoan [...] Humboldttek nazio alemana aurkitzen du (Berglar, 1991: 61).

Azpimarratzekoa da, baina, garai horretantxe bisitatzen duela Euskal Herria -1799ko udazkenean lehenik eta 1801eko udaberrian bigarrenik-, eta egiaz hemendik abiarazten dituela, baita orokorrean ere, 'nazioa' eta 'hizkuntza' elkarlotzen dituzten hausnarketak. Finean, eta dakigun bezala, bere euskal bidaiak egitasmo antropologiko bati erantzuten diote: zehazki, «ikerketaren objektu erakargarri bat bezala» ikusten ditu «euskal nazioa eta hizkuntza» (XIII, 14).

2. Humboldttek berehala antzematen dio «singulartasun etniko» bati:

Hizkuntzak, konstituzioak, ohiturak, aurpegi-itxurak, hitz batean, beraiei inguratzen dien guztiak -lurraren itxura barne- ezaugarritzen ditu euskaldunak herri-leinu banandu eta huts bat bezala (XIII, 13).

Bada, horren haritik, eta interes teoriko batek bultzatuta, funtsezko galdera historiko bat planteatzen du lehenik: «Nondik datoz euskaldunen leinua eta hizkuntza eta ze bestelako leinu eta hizkuntzekin daude horiek ahaidetuta?» (XIII, 14). Berak, gainera, ez ditu horiek «mendietako artzain gizajo huts edo zapaldutako zerbitzari» bezala ikusten; kontrastean, «bretoiak», «wendarrak», «dalecarliarrak» edota «estoniarrak» eta «livoniarrak» aipatzen ditu, zeinek bere ustez euren izaera nazionala gehiago galdu duten. Euskaldunak, aldiz, gai izan dira -baldintza zailenei aurre eginez- euren singulartasun nazionala gordetzeko eta garatzeko: «Garai berriagoetan ere euskaldunek -bi zati ezberdinetan tarrat eginda eta bi nazio handi eta boteretsuen menpe egonda- ez dute inolaz ere euren autonomia galdu» (XIII, 6). Horrenbestez, eta hasieran aipatutako galderari berriro erreparatuz, ezinbestekotzat jotzen du gaia sakon eta zabal aztertzea, hala nola, «sistema-grinak» edota «espíritu partidistak» alboratuz.

Ondoren, eta ikuspuntu praktikoago batetik, galdera politiko esanguratsu bat planteatzen du Humboldttek -Hegoaldekoiei begira-: «Nola tratatu behar du espainiar monarkiak

euskal nazioa (ze frantziar errepublikarentzat bere euskal barrutiek garrantzi oso txikia eduki dezakete soilik), hala nola, beraren indarra eta langiletasuna Espainiarentzat ahal bezain onuragarria izateko?» (XIII, 14). Kontua da Iparraldeak kasik galdutzat duela eta, orokorrean ere, ez diela euskaldunei etorkizun handirik ikusten, horrek guztiak egiaz barrutik atsekabetzen duelarik:

Mende bat igaro baino lehen, agian, euskara hizkuntza bizien zerrrendatik desagertuko da. [...] Herri-leinu baten desagertpenak [...] sentsazio mingarri bat sorrarazten du beti (XIII, 9-10).

Euskal kasu honek, alabaina, politikariaren dilema hura ekartzan dio gogora eta, horren haritik, hausnarketa orokor hau eskaintzen digu: «Geroz eta ohikoagoa da estatu berean herri-leinu ezberdinak elkartzea», baina «orain arte gehiago pentsatu da ezberdintasun horiek dakarzkiten zailtasunen ezabapenean eta ez hainbeste singularitasunak bere baitan daraman onuraren erabilpenean» (XIII, 14). Galderak galdera, beti ere, bere asmoa euskaldunak euren «singularitasun nazionalean» kontsideratzea da; eta, egiaz, horren haritik ulertu behar da ere horietaz hitz egiterakoan maiz erabiltzen duen «leinu-karaktere» kontzeptua.

3. Humboldttek, bestela esanda, bere osotasun propioan eta bere berezitasun kulturean irudikatu nahi du euskaldunen herria -politikoki bai Espainian bai Frantzian kokatzen den herria-, eta horren adibide da nagusiki erabiltzen duen *Vasken* kontzeptua. Bere helburua ez da Iparraldekoak edo Hegoaldekoak bakarrik ezagutzea -ezta probintzia batekoak edo besteak ere-, baizik eta euskaldun denak nazio bat bezala ezaugarritzea; eta, horrexegatik, oro har deigarriagoa den *Vasken* idazten du, eta ez ohikoagoa litzatekeen *Basken*. Hauxe irakurtzen dugu, adibidez, 1801eko bidaiaren kontakizuneko lehen orrialdean (XIII, 5):

Bat duda-mudatan geratzen da, bai, *biscayar* nazioaren leinu osoa izen batekin izendatu nahi duenean, hain zuzen, alferrik

bilatzen duelako espainiarrek, frantsesek eta alemaniarrek aho batez erabiliko luketen bat.

Asko dira euskaldunak izendatzeko erabiltzen diren hitzak –«Biscayens», «Basques», «Señorio», «Bascongadas», «Vizcainos», «Guipuzcoanos», «Alaveses»–, baina horiek denak partzialak dira: «Zorigabeko herri-leinu honek, honela, bere izenaren batasuna bera ere galdu du». Horrexegatik, eta bere ikerketaren abiapuntuari eta helburuari so eginez, honako erabakiaren berri ematen digu Humboldttek hor bertan:

Aldi berean laburra eta argia izateko [...] ondorengo izendape-
nez baliatuko naiz: *Vasken*, baldin eta *Basquenlanden*, *Biscayan*
eta *Navarran* zabaldua dagoen leinu guztiaz hitz egiten badut;
Biscaya, baldin eta herriaren espainiar atalaz hitz egiten badut;
Basques, baldin eta Frantziako Errepublikaren pean dauden eus-
kaldunetz hitz egiten badut.

Horietaz gain, jakina, bestelako deiturak erabiliko ditu, hain zuzen, Euskal Herriko eskualde bateko edo besteko euskaldunak izendatu ahal izateko, adibidez, zerbaitegatik beharrezkoa ikusten badu probintzia ezberdinak bereiztea. Gogora ekartzekoa da, beti ere, *Vasken* idaztearen ideia bere irakasle izandako Schlözerri hartzen diola zuzenean, eta, modu honetan, bat egiten duela Leibniz, Herder eta Adelung bezalako autoreek ere bideratutako gizadiaren ikusmolde historiko-etnografiko-linguistikoarekin. Gure autoreak, bestela esanda, euskaldunen herri izaera du aztergai eta, horrexegatik, ez dio hainbeste erreparatzen muga politikoari; aldiz, batera kontsideratzen ditu «kasualitatez bakarrik elkarrengandik banandutako euskal nazioaren bi zatiak» (XIII, 180).

4. Euskal Herrira etortzerakoan, Humboldttek garbi du, bai, 'hizkuntza' dela bere «atentzio puntu nagusia» (XIII, 15) –aztertuko dugu hori aurrerago–; baina, horretaz gain, arreta handia eskaintzen die ere bestelako hainbat konturi. Horietako bat 'fisionomia' da. Gogora dezagun, horrela, berak hasieratik kritikatzeko dituela ilustrazioaren gehiegikeriak –izan ere,

gizakiaren ezagutza kontzeptuala beti izango da mugatua-, eta nolabait ere beharrezkoa ikusten duela gizaki ezberdinen kanpo agerpenei ere erreparatzea. Horrexegatik, bada, arreta handiz behatzen ditu euskaldunak euren ingurune naturalean edota euren ageriko itxuran, eta, horren haritik, «erregioaren karakterea» edota «fisionomia nazional deigarria» bezalako hitzak erabiltzen ditu (XIII, 61). Garrantzitsua da azpimarraztea, beti ere, berarentzat hori guztia ez dela erabakigarria, baizik eta soilik bestelako ikerketen abiapuntua.

Bere euskal bidaien beste aztergai bat ‘herri-kultura’ da. Modu honetan, batetik, euskaldunen ohiko lanbideak deskribatzen ditu eta, horien artean, bereziki nabarmentzen du ‘nekazaritza’, hain zuzen, hortxe atzematen duelako berak hobekien «euskal nazioaren muina» (XIII, 120).

Aisiari dagokionez, bestetik, aztergai bereziak dira ere berarentzat «euskal abesti nazional» bezala ezaugarritzen dituen «zortzikoak», «euskal dantza nazional» ezberdinak edota beraien «dibertimendu nagusia» den «pilota» (XIII, 73, 132, 69). Bada, bestela -eta oharpen etnografiko horiek in lotuta-, Humboldték hausnartzen du ere euskaldunen izaera edo karaktere propioaz, eta, zehazki, horien «herri-ilustrazioaz» edota «herri-sentimenduaz» hitz egiten du.

‘Politika’ da, nolana ere, bere bidai testuetan orri gehien hartzen duen gaia: horietan, bada, zehatz aztertzen du euskaldunen antolaketa politikoa -baita ikuspuntu historikotik ere-, eta zentzu horretan ai-

patzekoa da nola ezaugarritzen dituen «Euskal Foruak» oro har «nazioaren egiazko legedi» bezala (XIII, 168). Bestela, eta «Batzar Nagusiak» direla-eta, «demokrazia huts eta ezin hobe» batez edota «nekazarien konstituzio aske» batez hitz egiten du (XIII, 50, 162). Baina Iparraldean gertatutakoa

‘Politika’ da Humboldtén bidai testuetan orri gehien hartzen duen gaia: zehatz aztertzen du euskaldunen antolaketa politikoa, baita ikuspuntu historikotik ere

gogoan duelarik -eta jada aipatu bezala-, garbi ikusten du ere zenbaterainoko arriskuan dagoen Hegoaldekoen antolaketa politikoa, hain zuzen, Madrilgo politikak joera zentralizatzaile nabarmena erakusten duelako. Bere hitzetan: «Espainiar gobernuak gogortasunez eta jeloskortasunez tratatzen ditu *biscayar* probintziak» (XV, 395). Horrenbestez, eta adierazpen horietako bakoitzaren erabateko zuzentasunean sartu gabe, zerbait garbi dago: gure autoreak esparru horietan guztietan -eta hizkuntzaz haraindi- euskaldunak herri bezala ezaugarritzen dituen singulartasun bat ere atzematen du.

5. Gogora dezagun, berriro, Humboldtten euskal bidaiak egitasmo antropologiko baten parte direla, hain zuzen, abiapuntu historizista bat eta helburu humanista bat duen egitasmo baten parte, non besteak beste ezinbestekotzat jotzen duen «karaktere nazional» ezberdinak aztertzea. Baina bera bertan bilaketa prozesu batean dago, alegia, ez daki ongi zertan zentratu behar duen; adibidez, 1798ko apirilean -Euskal Herrira lehen aldiz etorri aurretik- Goetheri bere zalantza adierazten dio: «Karaktere nazional baten nire kontzeptuarekin kontent geratu aurretik [...] zerbait aurkitu behar dut». Bere helburua, egiaz, herri historiko ezberdinak herri bezala ezaugarritzea edo irudikatzea da -ez hainbeste kontzeptualizatzea-, eta badaki horretarako ezinbestekoa dela herri horien ahalik eta agerpen kultural gehien kontsideratzea, horien artean hizkuntzari ere begiratzen diolarik. Baina soilik euskaldunak ezagutu ondoren ulertuko du, guztiz, hizkuntza dela bere bilaketaren objektua, alegia, nazioaren muina edota erdigunea. Horrela, bada, 1800eko abenduaren 6an berriro idazten dio Goetheri: «Aspalditxo daukat [...] karaktere nazionalari eta hizkuntz aniztasunari buruzko saiakera bat egiteko asmoa».

Euskara hizkuntza nazional bezala

1. Euskal hizkuntzarekiko Humboldtten interesa, egiaz, lehen aldiz Euskal Herrira etorri baino lehenagokoa da;

zentzu honetan, gogora ekarri nahi ditugu berak 1799ko martxoaren 4an Kunthi eta 1799ko apirilaren 26an Schillerri idatzitako bi karta. Hauxe dio lehenengoan:

Bi egunez *biscayar* gramatika bat aztertzen aritu naiz. Ez dago jada horrelako beste hizkuntzarik. Ez dauka inolako antzekotasunik beste inorekin: beste hizkuntzetan aurrean datorrena, hemen atzean dator.

Eta bigarrenean hau irakurtzen dugu:

Biscaya, bestela, puntu txiki baina interesgarri bat da. Berori da, europar herri guztien artean, benetako jatorrizko hizkuntza bat duen bakarra, gainontzeko hizkuntza berri guztiak baino zaharragoa dena eta bestelako hizkuntzekin soilik urrutiko antzekotasun bat duena.

Kontua da, esandakoaren haritik, euskal bidaien garaian hizkuntzari buruzko material asko jasotzen duela -zeina hurrengo bi hamarkadetan sakon aztertuko duen-, eta bere bidai testuetan, halaber, behin eta berriz aipatzen eta kontsideratzen duela euskararen izaera nazionala.

2. Euskal Herrira etorrita, honela, Humboldték «euskal nazioa» eta «euskal hizkuntza» bilatzen ditu, alegia, «euskaraz hitz egiten duen nazioa» eta «euskaldunek hitz egiten duten hizkuntza»; izan ere, bertara etortzeak bakarrik -eta besterik gabe- ez dio ezer bermatzen. Bestela esanda, euskaraz bizi diren horiek ezagutu nahi ditu; hots, euskara biziaren esperientzia eduki nahi du, eta, horrexegatik, bertako hainbat eskualde ez ditu bere bidaien jomuga zuzen bezala ikusten -nahiz eta horiek bestela garrantzitsuak diren-. Bilbo, adibidez, urrun dago bere «azken helburuaren ikuspuntutik», hain zuzen, bertan «aberriko ohiturak» nekez aurkitzen direlako eta «euskal hizkuntza» ere ez-garbi agertzen delako (XIII, 139). Eta Arabak, halaber, ez du bere «ikerketen baitan» kontsiderazio berezirik merezi; izan ere, probintzia horretan «euskal singularitasun» gutxi gorde da eta bere hiriburuan ere euskaraz apenaz hitz egiten da (XIII, 92).

Horrenbestez, eta irizpide horri jarraituz, Humboldttek euskal lurraldean bertan euskal herria bilatzen du, alegia, euskaraz hitz egiten duten eta euskaraz bizi diren horien herria: «Horrela, bada, mendietako txaboletan bilatu behar da hizkuntza» (XV, 412). Beraz, ahaleginak eta bi egiten ditu bertako euskaldunak zuzenean ezagutzeko eta –ahal duen neurrian– beraien euskaraz hitz egiteko, hain zuzen, badakielako hori funtsezkoa dela –bai hemen, bai nonahi– pertsonen arteko harremanak eraikitzeko.

Zentzu honetan, eta adibide moduan, esanguratsua da berak Markinan bizi izandakoa gogora ekartzea. Hona hemen, hasteko, 1801eko maiatzaren 7an emazteari idazten diona:

Askotan joaten nintzen landara paseatzera, bai, eta bertan lanean ari ziren –eta guztiz onberak ziren– jendeek ikusten zutenean, bada, nik euren lanean eta nekazaritza lanabesetan arreta jartzen nuela eta euskaraz zerbait ulertzen eta hitz egiten nuela, orduan ganorazko poztasun bitxi bat erakusten zuten horregatik eta urrutitik deitzen zidaten gerturatzeko.

Bestela, eta bizipen berdina dela eta, honakoa irakurtzen dugu bere bidai-kontakizunean:

Behin baino gehiagotan gertatu zitzaidan ere –gutxiago hizkuntzaren nire ezagutzagatik eta gehiago euren pazientzia nekazagarriagatik– berehala laguntzen zidatela nik adierazten nizkien objektuak erakutsiz eta izendatuz eta erabateko poza agertzen zutela nik euren hizkuntzarekiko eta euren ohiturekiko interesa erakusten nienean (XIII, 80).

Humboldttek, azken finean, euskaldunak edo euskara dutenak ezagutu nahi ditu –bere helburua euskal nazioa ezaugarritzea da-, eta zeregin horretan garbi jarraitzen dio irizpide antropologiko-linguistikoari.

3. Hizkuntza kontuak direla eta, zehazki, Humboldték bere bidai-oharretan gehien errepikatzen duen ideia, zalantzarik gabe, «euskararen izaera nazionala» edota «euskaldunen hizkuntza nazionala» hizpide hartzen duena da. Hona hemen, adibidez, berak idatzitako pasarte mamitsu bat:

Leinu baten identitatea ez da inoiz ziur frogatzen uzten bere hizkuntzaren identitatetik harantz eta, egiaz, ikerketak zalantza eta ezbairik gabe onartu behar duen gauza bakarra zera da: euskaldun guztiék nazio bat osatzen dutela (XIII, 181).

Berarentzat nazioa, badakigu, ez da hainbeste kontzeptu juridiko-politiko bat, baizik eta batez ere kontzeptu linguistiko-kultural bat; egiaz, horixe da mugaren alde bateko eta besteko euskaldunak behatuz egiaztatzen duena. Horrela, adibidez, Euskal Herriko bi muturretako euskaldunak -mendebaldeko «bizkaitar zakarra» eta ekialdeko «zuberotar fina»- elkarren artean konparatzen ditu eta, ezberdintasunak ezberdintasun, horien arteko batasuna egiaztatzen du partekatzen duten hizkuntzan oinarrituz.

Horiek hizkuntza *Bat* hitz egiten dute. [...] Gauza berberak ezberdinak diren izenekin izendatzen dituzte -zeinak, ordea, hizkuntza berekoak diren- eta ia ondokoak diren herrixkek zailtasunez ulertzen dute elkar. Baina nazio baten eta beraren anaia bezala aitortzen dute euren burua (XIII, 195).

Humboldték badu euskalki ezberdinen berri, eta badaki, jakin, horien hiztunen arteko ulermena ez dela beti erraza; baina hori dena «herri-karaktere» propio bat duen «jatorrizko hizkuntza» bati berez dagokion zerbait bezala interpretatzen du. Oztopo horien gainetik, beraz, garbi du euskara oinarrian *Bat* dela -berak ere letra handiz idazten du hori- eta baita ere hizkuntza horixe dela euskaldun guztiak biltzen dituen eta horiei identitate nazional bat ematen diena. Horregatik, hain zuzen, normaltasun baten barruan ikusten du beraiek euren hizkuntzarekiko erakusten duten entusiasmoa edo «pasiozko maitasuna»: «Oso naturala da», bai, «euskaldunak bere hizkuntzari -zeinean bidegabeki jazarria den- oraindik ere gehiago

eustea» eta «poza hartzea kanpoko batek bere hizkuntzareki-ko interesa erakusten duenean» (XIII, 121, 71). Horrenbestez, esan dezakegu, bada, elkarri lotuta -estu lotuta- ikusten dituela «euskal hizkuntza» eta «euskal nazioa» -nahiz eta gauza bera ez diren- eta, horren haritik, argi eta garbi ikusten duela ere baten galerak bestearen desagertpena ekarriko lukeela.

4. Dagoeneko aipatu dugu Humboldttek ez duela baikortasunez ikusten euskaldunen etorkizuna -ez zaio iruditzen ehun urte baino gehiago iraungo dutenik-, eta horrek bakarrik ere agerian uzten du, berriro, zein puntutaraino ikusten dituen berak bat eginda hizkuntza eta nazioa. Zentzu horretan, adierazgarria da nabarmentzea nola eta zergatik erlacionatzen dituen -eta behin baino gehiagotan- bere garaiko euskaldunak eta garai bateko greziarrak, hau da, konstituzio foral askeak dituzten euskaldunak eta hiri-estatu txikitari banatuta zeuden greziarrak. Bi kasutan, nolabait ere, desagertze prozesu bat atzematen du -greziarren jada bukatu zena eta euskaldunengan oraindik abian dagoena-, eta, kasu batean zein bestean, hezkuntzarekin loturiko barruko gabezia batez eta indarkeriarekin loturiko kanpoko presio batez hitz egiten du. Gure kasuan, alabaina, askoz ere arreta gehiago eskaintzen dio azken horri: «Apurkako erasoek, baina, hainbat eta zurrigo prestatzen diote gainbehera Espainiako eta Frantziako euskal probintzien singularitasun nazionalari» (XIII, 9). Baieztapen horretan, zehazki, berak oso presente dauzka euskal foruek bizirauteko dituzten arazoak; izan ere -berak ikusi bezala-, Frantziako Iraultzak ezabatu ditu jada horrelakoak Iparraldean, eta monarkia espainiarrak ere horiek murrizteko asmoa erakusten du Hegoaldean. Horrela, Humboldttek benetako arriskuan ikusten du euskal nazioaren existentzia bera, hain zuzen, aipatutako kanpoko presioen ondorioz euskal hizkuntzak, oro har, geroz eta presentzia gutxiago duelako. Hauxe dio hitzez hitz: «Eraso horiek geroz eta gehiago bazterrarazten dute euskaldunen hizkuntza eta, horrela, ezinbestean doa galduz euren singularitasun nazionala»

(XIII, 9). Alde batetik, txalotu egiten du euskaldunek -berezi-ki nekazaritza guneeetan- elikatzen duten «askatasunaren eta independentziaren espiritua» eta euren «bizitzeko moduari, nazioari eta hizkuntzari atxikitzen dioten maitasuna» (XIII, 121). Baina, beste alde batetik, ez du «nazio handi baten hondarra» baino ikusten, zeina «pixkanaka-pixkanaka eta alde guztietatik jasotako eraginaren ondorioz» etorkizunik gabe geratzen ari den: «Historiaren ahots ziur baina ilun hau agerikoa da» (XIII, 195). Nolanahi ere, eta jada adierazi bezala, euskaldunen balizko desagerpenak benetan tristatzen du: «Betirako isiltzen denean hotsa [...] zeinean giza leinu propio batek bere pentsamenduak eta sentsazioak isuri dituen [...] oraindik ere tamalgarriagoa da hizkuntza horren desagerpena» (XIII, 10-11).

Humboldték
elkarreginean atzematen
ditu euskal hizkuntza
eta euskal nazioa, eta,
hortik abiatuz, geroz eta
gehiago hausnartuko
du, orokorrean,
hizkuntzaren eta
nazioaren arteko loturaz

5. Euskal Herrira etorrita, beraz, Humboldték elkarreraginean atzematen ditu euskal hizkuntza eta euskal nazioa -horregatik dute elkarren beharra bizirauteko-, eta, hortik abiatuz, geroz eta gehiago hausnartuko du, orokorrean, hizkuntzaren eta nazioaren arteko loturaz. Bada, horrela, eta adibidez, esanguratsua da kasik hiru hamarkada beranduego -bestelako testu batean- idazten duena:

Nazio bat hizkuntza jakin batengatik ezaugarritutako gizadiaren forma espiritual bat da. [...] Nazioen arabera egiten den giza generoaren banaketa hizkuntzen arabera egiten den banaketa baino ez da (VI, 125-126).

Azpimarratzekoa da, baina, badakiela banaketa hori gertakari historiko bat dela eta, horrexegatik, komunitate linguistiko

denak aldakorrak direla, hain zuzen, denboran zehar hiztun zaharrak galdu edo hiztun berriak irabazi ditzaketelako. Nolanahi ere, eta bukatzeko, honela laburtzen du Menzek Humboldtten oinarritzko ideia:

Hizkuntza, beraz, ez da gizakia gizabanako bezala ezaugarritzen duen elementu osagarria bakarrik; hizkuntzak gizakia bere existentzia nazionalen ere ezaugarritzen du; izan ere, herria eta nazioa pentsaezinak dira dagokien berezko hizkuntzarik gabe (Menze, 1965: 254).

Ondorioa: aspaldikoen gaurkotasunaz

Euskal nazioaren inguruan Humboldttek planteatzen duena, sakon-sakonean, nazioaren beraren kontzeptu mailako auzi bat ere bada; horrexegatik, bere aspaldiko hausnarke-ta horiek -gogora dezagun 1835eko apirilaren 8an hil zela Tegel-en- badute guretzat gaurkotasunik. Kontua da Humboldttek -beste askok bezala- errealitate nazional ororen dimentsio linguistikoa ekartzen digula gogora: gizadia, bada, gizaki ezberdinengan da erreala, eta, egiaz, horiek -modu naturalean edo- konpartitzen duten hizkuntzaren arabera-ko giza taldeak osatzen dituzte. Egiaztapen horrek, baina, ez du funtsean ezer berririk ekartzen. Aitzitik, soilik gizakia nolakoa den erakusten du; izan ere, gu geu ere -bestelako denak bezalaxe- gure hizkuntzan hitz egiten dutenengana hurbiltzen gara errazen, adibidez, atzerrira joaten garenean.

Askotan esaten da euskara ez dela *arma arrojadiza* bezala erabili behar -eta ziur horrela dela- baina ezin dugu ere ahaztu hizkuntza batek, beti, berori hitz egiten dutenak biltzen dituela eta,aldi berean, hiztun horiek euren hizkuntza hitz egiten ez dutenengandik bereizten dituela. Gizakiari ezin zaio eskatu gizaki ez izatea, eta, horrela, hizkuntzari eta nazioari ere ezin zaie eskatu hizkuntza eta nazio ez izatea. Horregatik, horietaz aritzerakoan nahitaez kontsideratu behar dira horien dimentsio historiko, kultural, politiko eta abarrekoak ere. Euskal Herrira etorrira, beraz, Humboldt nazioaren eta

hizkuntzaren arteko berezko loturaz jabetzen da, alegia, nola-baiteko betikotasun bat erakusten duen loturaz; horrenbestez, ez da harritzekoa Azurmendik gogora ekartzen digun K. a. V. mendeko Herodoto ere aktuala izatea. 📖

Bibliografia

- Berglar, Peter (1991): *Wilhelm von Humboldt*, Reinbek bei Hamburg: Rowohlt.
- Humboldt, Wilhelm (1903-1936): *Gesammelte Schriften (I-XVII)*, argk. Albert Leitzmann *et al.*, Berlin: Behr.
- I. liburukia, 377-410: 'Plan einer vergleichenden Anthropologie' (1797).
- II. liburukia, 1-112: 'Das achtzehnte Jahrhundert' (1796-1797).
- VI. liburukia, 111-303: 'Über die Verschiedenheiten des menschlichen Sprachbaues' (1827-1829).
- XIII. liburukia, 1-196: 'Die Vasken' (1804).
- XIV. liburukia, 359-644: 'Materialien. Erster Band' (1797-1798).
- XV. liburukia, 356-450: 'Tagebuch der baskischen Reise' (1801).
- (1906-1916): *Wilhelm und Caroline von Humboldt in ihren Briefen (I-VII)*, arg. Anna von Sydow, Berlin: E.S. Mittler & Sohn. Inprimatze berria, Osnabrück: Zeller, 1968.
- (1909): *Goethes Briefwechsel mit Wilhelm und Alexander von Humboldt*, arg. Ludwig Geiger, Berlin: Bondy.
- (1940): 'Wilhelm von Humboldt und sein Erzieher. Mit ungedruckten Briefen Humboldts' [an G. J. C. Kunth], arg. Albert Leitzmann, *Abhandlungen der deutschen Akademie der Wissenschaften zu Berlin, Philosophisch-historische Klasse* 5: 1-39.
- (1962): *Der Briefwechsel zwischen Friedrich Schiller und Wilhelm von Humboldt (I-II)*, arg. Siegfried Seidel, Berlin: Aufbau.
- Menze, Clemens (1965): *Wilhelm von Humboldts Lehre und Bild vom Menschen*, Rattlingen: Henn.
- Zabaleta Gorrotxategi, Iñaki (2005): *Wilhelm von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*, Donostia: Jakin.
- (2017): *Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria*, Bilbo: Euskaltzaindia (argitaratze bidean).

Naziogintzaren ataka berria. Estaturik gabeko naziogintza eta naziorik gabeko estatugintza

■ Haritz Azurmendi
Filosofian lizentziaduna

Gure inguruan nazioei buruz idatzi direnak irakurri edonork aterako lukeen ondorioa da nazionalismoa ez dagokiela bazterreko bazternahasle batzuei besterik.¹ Garrantzitsua, argudiatuko zaio, jendearen ongizatea bermatzea eta hobetzea da, ekonomia suspertzea, aberastasuna sortzea... Horregatik, arazo identitarioek garrantzirik ez dutelako-edo, botere-guneetan, 'zentroan', alegia, nazionalismorik ez dago, pertsonak adina nortasun indibidual (eta indibidualak bakarrik) daude eta aberria Osasun Sistema uniberttsala da (hiritarrentzat soilik, ulertzen da), estatu liberal txit demokratiko batean.

Izan ere, honez gero zentzu komuna bilakatuta dagoen uste arruntean, *demokratizazio* prozesua burututa dago. Bidasoaren ze aldetan galdetzen duzun, batzuek 1958an etorri zela demokrazia erantzungo dizute, Frantziako Bosgarren Errepublikaren eskutik; besteek, berriz, 1978ko Konstituzio Espainolarekin ezagutu zuten sistema demokratikoa. Baina biek dute ezaugarri komun bat: Inperio nazioanitzak eta halako anakronismoak utzi eta, behingoz, estatu modernoaren eredu razionala jarraituz eratu dira.

Arrazoi horrek eskatzen du nazioa bat eta bakarra izan dadila, berak sostenga dezala estatua eta bere izenean demokraziak iraun dezala. Nazionalismoa eta demokratizazioa XIX. mendeko bikote klasikoa izan da eta bataren eskakizunak (kulturaren ezagutza eta balioespena) bestearenekin (botereguneetara irismena) uztartuz sortu da nazio-estatua. Egitura horretan, beraz, nazioaren zaintza, identitate nazionalaren bermea, estatuaren esku dago. Horrek esan nahi du inor munduan paratzeko modua, lokala eta unibertuala norbanakoaren munduan kokatzekoa, estatuaren galbahetik pasatzen dela. Esanak esan, oraindik ere mundua naziotan pentsatzen baitugu.

Nola egin dugu guk, mundua kategoriatan banatzen duten subjektuok, kategorizazio politiko zehatz horietan pentsatzeko? Saiakeratxo honen lehen bi zatiak galdera horri jarraiki idatzi dira. Estatu modernoaren sorrera eta horren ondorioak aztertzen dira gaur egungo eredu hegemonikoa hobeto ulertzeko. Baina, batez ere, nazio-estatuaren sorrera aztertzen duten ikerlari klasikoek lan batzuk aztertu dira, horiek ematen baitute gaur onartuena den interpretazioaren berri.

Mundua nazio-estatutan banatzeko ohitura naturalizatuaren aurrean, ordea, hainbat korrante kritiko egon izan dira. Hemen bereziki Euskal Herritik egindako ekarpena hartzen da kontuan azken zatian. Interesgarria baita ikustea nola, itxuraz estatu demokratiko nazional baten aurrean egonda ere, birdemokratizazioaz eta identitate nazional ez hitz egiten dugun etengabe, gabezia handiak sumatuz nonbait. Horregatik, hirugarren atala azkenaldian eztabaidagai den prozesu independentistaz (estatugintza prozesuaz) gogoetatzeko gorde da, kezka nagusi bat azalduz: nola imajinatu, nazio-estatuak antolaera politiko bakar gisara aurkezten diren honetan, eredu horrek berekin dakartzan bazterketa mekanismoak errepikatuko ez dituen egituraketa bat, bai maila politikoan, baina baita kultural-nazionalen ere.

Dena den, lehenik eta behin ikus dezagun noiz eta nola txirikordatu ziren demokrazia, nazioa eta estatua. Agian,

nazio-estatuaren sorrera ezagututa, konturatuko gara gure seta horren funtsik ezaz eta bertan goxo egoteak duen erakargarritasunaz. Bestela, gutxienez, errepikatu nahi ez dugun eredutik irakaspenak eskuratuko ditugu.

Nazioen politizatzea. Estatu modernoaren sorrera

Periferiako nazionalista atzerakoi gisara izendatuak izan garenok, nazionalismoaren inguruko ikerketa klasikoetara jotzen badugu, harritu besterik ezin gaitzke egin nazionalismoa estatu modernoaren eraikitzeke *porlana* bailitzan azaltzen ditugutenean. Ados, porlan txarra izango da, asmatutakoa, analisi desinteresatu bat jasango ez lukeena, baina honez gero estatu berriok eraiki direnez, horiek desagitea akats bat da; askoz hobe genuke denborari bere lana egiten uztea, begi-bistakoa baita eraikin zahar horiek pitzaduraz josita daudela (argi, ez pitzadura nazionalerik, baina *postnazionalerik*). Beraz, *bera eroriko dek, ez akiorok bultza*.

Ellie Kedouriek, bere lan eza-gunean (Kedourie 1966), nazionalismoa doktrina ideologikotzat dauka. Hainbat faktore momentu historiko batean (XIX. mende hasieran) eta leku batean (Alemanian) elkartu ondoren, doktrina osatu eta munduan barrena zabaltzen zen bere ahal suntsigarri eta bazternahaslea hedatuz. Kedouriek doktrina horren historia egin nahi du, bere ustezko balioa deuseztatzeke eta ekidin zitekeen gertaera lazarria betiko lurperatzeko.

Bi eragin nagusi aipatzen dira doktrinaren jatorrian. Bata politikoa da, politika egiteko modu berriari dagokiona, zehazkiago esanda. Izan ere, nazionalismoa estuki dago lotua

Kedouriek nazionalismoa doktrina ideologikotzat dauka. Hainbat faktore momentu historiko eta leku batean elkartu ondoren, doktrina osatu eta munduan barrena zabaltzen zen bere ahal suntsigarri eta bazternahaslea hedatuz

Iraultza Frantsesarekin. Ordura arte, Erreinuetao menekoek zuten 'aberria' (*fatherland*) euren segurtasuna bermatzen zuen estatua bazen, Iraultzak eginbehar hori nazioari eman zion. Orduz gerora, agintarien betebeharra nazioa zerbitzatzeari izango zen eta, inoiz euren lanean huts egiten zutela iriziz gero, Erregeari lepoa moztea zilegizkoa litzateke. Horrela, koroak beraiek nazionalizatu ziren euren legitimitateari estatus zerutiarra ebatsiz. Ondorioz, lehen higiezinak ziruditen harkaitz monarkikoak eraits zitezkeela agerian geratu zen.

Bigarren eragina, politikan baino, ideien esferan kokatzen du Kedouriek. Iraultzaileen jarduna *a posteriori* sostengatu zuen filosofia bat da nazionalismoaren doktrinaren bigarren gakoak. Autodeterminazioaren ideia Kantengandik ideologo nazionalistenganaino doan hari batez josten du egileak. Izan ere, Kantek, askatasuna subjektuak² bere barne legeei soilik erantzutea dela esanda, Iraultza Frantsesaren itzulia errepikatuko du. Aurrerantzean, ez erlijioari, ez metafisikari, subjektuari dagokio bere lege propioak idaztea.

Horri tiraka, Kedouriek Schleiermacher, Schiller, Herder eta abarrak kateatzen ditu, tonu eta interpretazio ez oso inpartzialez, bide batez. Kantek objektiboa subjektibizatu bazuen, hurrengo pausoa subjektua bera subjektibizatzea izango zen. Zer da subjektu hori? Indibiduo soilak ala testuinguruan bizi da? Nola garatzen ditu bere gaitasunak? Nola irits daiteke bere baitan gordetzen duen onena garatzera? Galdera guztiek azpian duten ezaugarria subjektua eginbehar gisara ulertzea da (Azurmendi 2007a, 92).

Autoerrealizazio horretan berebiziko garrantzia izango du kulturak, eta aipatu egile horiek arreta berezia eskainiko diote. Kedouriek egiten ez duenez, ezinbestekoa zaigu adieraztea Europan zehar zebilen herrienganako interes kulturaletik hartuko dutela tresneria teorikoa (Thiesse 2010, 13). Tartean egongo dira modernistak hainbeste eskandalizatzen dituen nazioen naturaltasunaren edo hizkuntzaren garrantziaren ideia ere. Alabaina, nabarmendu behar da nazio horiek kulturalki kontsideratuak zirela oraindik politikoki Antzinako

Erregimenetik pentsatzen zutenen eskutik. Hori dela eta, nazioak klasizismoko kultura zaharkituaren ordezeko erreferenteak bilatzeko eremuak izango dira, herri-jakintzatik ikasi eta pedagogia (kultura) berria sortzeko.

Nolanahi ere, Kedouriek autore prerromantiko horietatik ateratzen duen ondorioa bestelakoa da. Doktrinaren ideologoek, Fichte buru, nazioaren dibertsitate naturala eta potentzial hezitzailea ez, baina haren indibiduoarekiko eragina azpimarratzen dute Kedouriren eskeman. Indibidua nazioan hezten dela, berez indibidua testuinguru kulturalen formatzen dela esatearen pareko konstatazio bat dena, proiektu politiko baten ernamuina bihurtzen da. Horrela, etengabe garatzen dabilen sistema kultural izatetik nazioa doktrina ideologiko baten bandera eternal izatera pasatzen da pentsalari gutxi batzuen ahalmen miragarritz (ikustekoa litzateke publikazio horien *impact factor*-a). Era berean, nazioen biziraupena eta karakterearen mantentzea segurtatzeko, indibiduoak betebeharrak jasotzen ditu, sakrifizio handienak egiteko eskatzen diona.

Doktrina nazionalistaren erruz, patriotismo zaharra baztertu eta nazionalismoa sortzen da. Nazio indibiduo-irensle horrek estatu bat eskatzen du bere berezitasunak mantendu eta kanpotarrendandik babesteko. (Berdin du Kedouriek doktrinaren ideologo deitzen dituen horien belaunaldi berberean eta Alemanian, Humboldtek, bat aipatzearen, nazioen arteko ideia trukaketak nola gertatzen diren ere teorizatu badu bitartean.) Estatu horren eginbeharra indibiduoak heztea da nazioa zerbitzatzeko, eta, ondorioz, ezinbestekoa da nazio bat estatu bakarraren pean egotea.

Berriro ere, ez dago erreparorik ideia hori Fichteren *Diskurtsoak* aipatuz indartzeko. Izan ere, «nola Fichte gure artean [eta gai honetan nazioartean ere bai, alafede!] inork irakurtzen ez duen, erraza da sekula irakurri ez dutenek inoiz irakurriko ez dutenei edozein memelokeria saltzea haren gainean» (Azurmendi 2014, 23, 52. oin oh.). Baina halakoren batean norbaitek testua bere osotasunean irakurriko

balu, edo euskaraz jakin eta Azurmendi irakurtzeko zortea badu, Fichtek «aleman guztientzako Estatu bakarra espreski gaitzesten duela irakurriko du» (*ibid.*).

Dena den, erru guztia Fichterena izan ez bada ere, agerikoa da (Kedourieren) nazionalismoak Europa zeharkatu zuela. Beraz, oraindik jarrai dezakegu Kedourieren liburuan hedapen horren azalpena irakurtzen, nahiz eta errezelo handixeagoa ematen digun. Gainontzekoen eran, hedapenaren arrazoietan Napoleondar Gerrak edo industrializazioaren aldaketa sozialak aipatzen dira (Hobsbawmek, Gellnerrek... bezalaxe). Izan ere, Vienako Kongresuak ez zuen lortu ideia berri horiek isilaraztea eta belaunaldi berriek beti presente izan zituzten Iraultza Frantsesaren eskakizunak.

Garrantzitsua da Kedouriek nazionalismoaren eta belaunaldi berrien artean egiten duen lotura. Lehenik eta behin, deskribatzen dituen kasuetan ez delako Frantziarik edo Espainiarik agertzen; kasu guztiak estatu nazional baten bila doazen mugimenduenak dira, ez dagoen estatua nazionalizatzerantz doazenena. Bigarren, nazionalismoari gazte izaerari atxikitzen zaizkion topiko guztiak lotzen dizkiolako: idealismoa, suhartasuna, erradikaltasuna... Deskribapenetan mundu ero bat agertzen zaigu, gazte-talde nazionalistak misio klandestinoetan, poesia eta filosofiaren erreinu idealetan galduta, atzerritarraren bezainbeste euren herrialdeetako helduen kontrako borrokan.³ Italia Gaztea, Egipto Gaztea, Gazte Turkoak, Arabia Gaztearen Taldea... anbizio nazionalistak eta demokratizazio nahiak uztartuz sortutako taldeak aipatzen dira.

Aurreko belaunaldien esperientzia politikoa transmititzea zaildu zuten aldaketa sakonak bizi zituen belaunaldi berriak. Transmisio zail horrek azaltzen ei du zergatik mugimendu horiek muturrekoak bilakatu ziren. «Nola eta zein puntutan, galdetzen dugu, utzi zituzten ikasleek euren denborapasak eta etxeoandreek euren etxeo lanak, krimenei eta triskantzei emateko?» (Kedourie 1966, 104), galdetzen du Kedouriek bere posizionamendua argi utziz.

Kedourie Bigarren Mundu Gerra jasan duen judua izaki, uler daiteke nazionalismoari dion herra (manipulazioak beste kontu bat dira). Horrek, ordea, nekez barkatzen du mugimendu horien planteamendu demokratizatzaileei ematen dien trataera idealista eta muturrekoa. Liberalismo popperdarraren defentsan razionalitatea (arrazoizkotasuna, demokraziaren ideia) bere jabetza eskusibotzat predikatzen duena eta iraultza oro *per se* baztertzen duena egungo nazio-estatuaren nazionalismo banala defendatzen aurki dezakegu oharkabean. Agian, baliteke gazteriarren berritasun nahiak forma desberdinak hartzea leku bakoitzean, egoera konkretuaren arabera. Izan ere, nazionalismoa berdin erabil zitekeen eskakizun «erradikalak» sostengatzeko (Kedouriek dioen moduan) zein (nazio-)estatua horien arriskutik babesteko.

Estatuaren eta nazionalismoaren arteko erlazio hori Hobsbawmek landu du esplizituki (Hobsbawm 1997). Bere lanean, estatu modernoaren eraikuntza estuki lotuta dago hiritarraren eta estatuaren arteko harremanen estutzearekin. XIX. mendean zehar estatua gero eta presenteago agertuko zaie hiritarrei, garraio publikoaren edo instituzio nazionalen garapenarekin. Era berean, estatuaren baitako botere postuak, lehen nobleziari edo kleroari gordeak, funtzionarioen esku geratuko dira, haietara iristeko bideak «demokratizatuz».

Horrek, ordea, estatuarekiko leialtasuna eta identifikazioa eskatzen zituen, ordura arte egondako tarteko egiturak baztertuz. Izan ere, hauteskunde erroldetan gero eta hiritar masa handiagoek parte hartzearekin batera, zalantzan zegoen klase guztien estatuarekiko atxikimendua. Hobsbawmen eske-man, nazionalismoak zeresan handia dauka puntu horretan.

Estatuaren eta nazionalismoaren arteko erlazioa Hobsbawmek landu du esplizituki. Estatu modernoaren eraikuntza estuki lotu du hiritarraren eta estatuaren arteko harremanen estutzearekin

Mugimendu nazionalistek inoiz gutxitan lortzen dute euren kabuz estatu propioa;⁴ aitzitik, botere egituratuen (dukerrriak, lurraldeko zein atzerriko erregeak, potentzia handiak...) beharra nabarmena da.

Horrela, bada, izan jada egonkortutako estatuetan (Frantzia, Espainia...) zein egituratze bidean zeudenetan, estatuak nazionalismoa bere eskumenetatik at zegoen indar politiko-tzat hartzen zuen, estatu-patriotismoaren guttiz desberdin, harekin adostasun batera iristeko premia sentituz (Hobsbawm 1997, 98). Hori batzuetan identitate lokalen bat proiektatuz eta hedatuz, estatuak bere eginez lortzen zen. Horrek, ordea, kontranazionalismoren bat sor dezake, are gehiago modernitatearen homogeneotasun eskakizunak gehituz gero.

Ondorioz, ataka klasikoa aurki dezakegu nazionalismoaren interpretazio horretan. Estatuaren eta nazionalismo jakin baten arteko aliantzak beste identitate posible guztiak bazterten ditu. Horrek bi aukera soilik uzten dizkio hiritarrari: estatuaren kredo ofizialera bihurtu eta hark eskaintzen dituen identitate aukeren artean lekua hartu (integrazioa), edo nazionalismo propio bat garatu eta aliantzak bilatu estatuarekin hausteko.

Nazionalismoaren inguruan zabalduen dagoen proposamena Gellnerrena dela esatea ez da egiatik gehiegi urruntzea. Besteak beste, pentsalari horrek teoria formal bat eskaini du nazionalismoaren fenomenoak ulertzeko. Hain zuzen ere, bertan agertzen dira aipatu ditugun integrazio eta segregazio fenomenoak. Gellnerren lanik ezagunenean (Gellner 2009), gizarte industrialaren entropia (integrazioa) eta haren aurkako faktoreak (segregazioak) aztertzen dira.

Segregazio faktore horien artean, bata kultura desberdintasunaren langa da. Esan dugun bezala, modernitatearen beharriaz, gizarte industrialaren berezko antolaerak, estatuaren eta kultura baten (nazionalismo baten) *halabeharrezko*⁵ aliantza dakar. Gellnerren eskeman, aliantza horrek bi alde ditu: batetik, estatuak homogeneizazio estandarra osatzen du bere lurraldearen luze zabalean hedatzeko; bestetik, nazionalismoak goi-kultura bat gara dezake estatu aparatuen laguntzaz.

Baina estatuaren lurraldeko zenbait kultura komunikazio hutserako desberdinegiak suertatzen badira, zailtasunak izango lituzkete talde horietan industrializazioaren olatua hartzeko. Ondorioz, posible da sortzen den arrakalak nazionalismo propio bat sortzea. Izan ere, migrazioek eta estatu-funtzionarioekin inoiz baino harreman gehiago izateak alde nabarmenak erakutsi zituzten lehen ikusezin ziren baserriarren kulturen artean.

Herritarrek euren kulturaren kontzientzia hartzearekin batera, estatuarenaz ere konturatu ziren. Horrela, beste zenbaitentzat irekiak zeuden bideak eurentzat itxita ikusita, administrazio propio baten beharra ezagutu zuten, euren kultura, ezagutzen zuten bakarra, garatuko (hau da, industrializazioa eragotzeko) bazen.

Gellnerrek argi uzten du jarrera horretan ez dagoela epe luzerako interesik, ez eta kalkulu interesaturik ere. Bazterreko kultura horren irudikapenak biztanleen suminak eta atsekabeak bideratzeko balio zuen, garatuago zen zentroaren parez pare. Alabaina, irudikapen hori hasierako industrializazioaren eragin bortizpean garatu ezean, hurrengo belaunaldiak estatuaren kulturari ikasi eta asimilaziorako joera har dezakete. Gellnerrek bi bideak baliokide eta neutral gisara aurkezten ditu. Berdin gerta daiteke asimilazioa zein segregazioa, eta, egiaz, nazionalismoaren ikerketari dagokionez, ez du gehiegi axola, bi kasuetan estatuaren eta kulturaren elkarketa gertatzen baita. Desberdintasuna estatuen eta kulturen konkretutasunean gertatzen da.

Komunitate bereizien imajinatze prozesu horiek nazioaren erdigunean Benedict Andersonek jarri zituen Gellnerren liburua aurkeztu zen garai berean (Anderson 1991). Sarreran bertan, gainontzeko ikerlariari abisatzen die nazionalismoa ulertzeko zailtasuna hura Aro baten ideologiatzat hartzean datzala, Nazionalismoa letra larriz ulertuta. Horren aurrean, nazionalismoa faltsifikazio ideologikoarekin lotu beharrean sorkuntzarekin lotzen du, komunitate politiko imajinatu baten sorkuntzarekin, hain zuzen.

Kontua ez da, Gellner edo Hobsbawmek esan dezaketen antzera, nazionalismoak irudi faltsu bat sortzen duela estatu bati legitimazioa eman eta hari atxikitzeko, baizik eta komunitate batek 'nazio' deituriko antolaera batean imajinatzen duela bere burua, horretarako eskura dituen baliabideak erabiliz. Andersonen liburua 'nazio' antolaera pentsagarria bihur zedin gertatu ziren aldaketak aurkezteko idatzia dago. Aldaketa horiek produkzio sistemari (kapitalismoa), komunikazio teknologian (prentsarekin) eta *berezko* hizkuntza aniztasunaren onarpenarekin (*vs* egiaren erlijio-hizkuntza) etorri ziren.

Aldaketa horiek komunitate mota berria pentsagarri bilakatu bazuten, zenbait testuinguru historikok hura *de facto* pentsatu zuten, horrela gainontzekoei eredu(k) eskainiz. Andersonen administrazio kolonialen kasuak aurkezten ditu aurrekari gisara. Galdera bistakoa da: zeren arabera sortu dira lehen inperio kolonialen lurraldearen baitan nazio-estatu konkretu horiek? Zergatik ez da sortu estatu bakar bat hizkuntza eta neurri batean kultura partekatzen zuen Hego Amerikan? Erantzuna klasikoa da: metropoliak banatuta-

ko administrazioaren arabera osatu dira nazio-estatu berriak.

Baina benetan interesgarria administrazio horien eraginaren azterketa da Andersonen planteamenduan. Izan ere, ez zaio heltzen egitura politiko horiek mantentzearen tesiarri (euren kabuz, esparru administratiboek ez dute lotura emozionalik sortzen). Arrazoibidea da metropoliaren antolaerak berak kolonietan bertakoen bizipenetan hesiak eta zirkuitu itxiak sortu zitue-

Kontua ez da,
Andersonen arabera,
nazionalismoak irudi
faltsu bat sortzen duela
estatu bati legitimazioa
emateko, baizik eta
komunitate batek 'nazio'
deituriko antolaera
batean imajinatzen
duela bere burua

la. Esate baterako, merkataritzari dagokionez, administrazio bakoitzak debekatua zuen beste administrazioekin traturik

izatea metropoliarekin kompetentzia ekiditeko. Ondorioz, berripaperetan, merkataritza berriak nagusi zirela hasiera batean, administrazio lokalaren eta metropoliaren informazioa soilik aterako zen. Era berean, kreoleek debekatuta zutenez euren administrazio egituratik at lanpostu politiko bat eskuratzea, administrazio batean jaiotako kreoleak bere bizitzaren ibilbidea administrazioaren baitan pasa beharko zuen, kreoleentzat bereziki gordetako lanpostuak bete nahi bazituen behintzat.

Bistakoa da horrelako zirkunstantzia historikoek ezinbestean lagundu zutela aberriaren konfigurazioan. Andersonen planteamenduan, egunerokotasunak ematen du komunitatea imajinatzeko beharrezkoa dena. Ez hori bakarrik. Argudiatzen denez, komunitatea imajinatze hori bere bizitza-ibilbidetan egoera berberean dagoen norbait topatuz hasten da; orduan sortzen dira «zerk batzen gaitu?» gisako galderak. Identitate nazionalaren hastapena, halako komunitate baten pentsatzea bera, erlazionala da, beraz. Egunerokotasuneko harreman sozialek ematen diote forma baldintza historiko batzuek posible egiten dutenari.

Kontinente zaharrean komunitate imajinatuaren ereduak oihartzun nabarmena izan zuen. Amerikako independentzia prozesuak idatziz jarri zirenez gero, hura kontzeptu bilakatu zen. Europa zaharreko erreformistek eredu berriak zituzten eta haren araberrako nazioak diseinatzen hasi ziren. Deskolonizazioan inkontzienteki garatu zena European egikaritu beharreko eredu bihurtu zen. Hori gauzatzeko aukera aurretik aztertu dugu, metafisikaren kritikarekin eta historiaren eta hizkuntzaren sekularizazioarekin.

Garai berean, European zehar herri-kulturen berreskurapen, asmakuntza eta bilaketa etengabea zabaldua zen ordurako. Nazionalismo etniko/zibikoan tematzen direnei gogoraraztea komeni da nola mugimendu hori European hondo kultural komuna bilatzera bideratuta dagoen Thiesseren esanetan. Izatez, nazio kontzeptua ikerlari modernoek adieran hartu behar badugu, interes kultural horiek ez zuten proiektu

politiko nazionalistarik gordetzen, nahiz eta ‘nazio’ hitza bera erabili. Gerora, noski, mugimendu nazionalista guztiek hartu zituzten ikerlerro horretatik euren iruditeria osatzeko elementuak, zibikotzat dauzkagun horiek⁶ ez besteek baino gutxiago, gainera.

Dikotomietan banatzen hasiz gero, esanguratsua goa da nazionalismoak estatudunak eta estatugabeak bereiztea, begi-bistakoa baita nazioen imajinazioa ez dela berdin garrantuko kasu batean eta bestean. Halako kasuen interpretazio klasikoa badakigu: batzuk integratzaile-zibikoak dira, baina besteak baztertzatzaile-etnikoak. Batzuk bideratuta daude nazio-estatu demokratikoak osatzera, besteek horien aurka egiten dute. Baina nazio-estatuaren ideologia osatzen duten autoreak (modernistak hor sailkatuko nituzke) ere kritikapean jarriz, ohartzen gara nazionalismo etnikoaren apostoluek, erromantiko alemanek, besteak beste, ezer gutxi zutela ikusteko akademiak eman dien irudiarekin.

Iruditeria nazionala sortu eta (bir)sortzeko baliabideen aldean dago gakoa. Nazionalismo integratzaileak deitzen zaie, oro har, estatuarekin aliantza osatu duten mugimenduei. Horrela, haien eginbeharra estatuko biztanleen barne homogeneizazioa da. Herrialde kolonialetan jada sortuak zeuden zirkuituak errepikatuz, estatuaren baliabide guztiak zituzten euren eskura. Andersonek nazionalismo ofiziala deitu duen horretan, ohikoa da hiritar burges edo funtzionario baten ibilbidea estatuaren lurraldean luze-zabal hedatzea, zentroaren inguruan bira gero eta itxiagoak eginez. Batean iparraldeko herri txiki batean administrari, hurrena hegoaldeko eskualderen bateko epaile, hiriburuan parlamentuan amaitzeko. Hiribururako erromesaldi horretan bere gisako lagunekin topatzean naziokide izatearen kontzientzia hartuko dute, beti ere komunikazioa hizkuntza nazional-estatalak bermatuz.

Estatu nazionalik ezean, ordea, inoren bizi-zirkuitua taututzen duten elementuetan lehentasunak aldatu egiten dira. Administrazioak ezarritako ibilbiderik ezean, bestelako erlazio kontzientziak ager daitezke. Agian alemanak, printzerri

txikietan politikoki sakabanatuak, teatro nazional baten esku-
tik nazio bilakatuko liratekeela esanez aurkezten digu Schiller
Azurmendik (Azurmendi 2007a, 153). Izan ere, alemaniarren
erromesaldia bide kulturaletan barrenakoa da garai horretan.
Garaiko hainbat pentsalariren bizitzak ikusita, agerikoa da
esparru administratiboek ez zutela berebiziko garrantzirik
nazio alemanaren imajinarioa sortzen ari zen *intelligentsia-
rengan*. Hölderlin Württembergeko dukerrian jaio, besteak
beste Frankfurten zein Hanburgon lan egin eta Tübingenen
hilko da (guztiak esparru administratibo desberdinak). Fich-
te nazionalista Saxonian jaio, Varsovian (Polonian!) irakasle
lanetan aritu, Jenako unibertsitatetik ateismoagatik egotzi eta
Berlinen erbesteratuko da, bere *Diskurtsoak* handik emateko.

Alemania politikoa frantsesez mintzatzen zen bitartean,
kulturgileek euren zirkuitu propioa garatu zuten, nondik
imajinatu baitzen nazio alemana. Alemaniaren kasuak, ordea,
oraindik gehiago ilustra gaitzake. Izan ere, nazio alemanaren
imajinatze kultural hori politikoki egitura inperialaren baitan
egingo da. Fichtek estatu aleman bakarraren arbuio esplizi-
tua, gorago aipatua, estatu aniztasunak askatasuna bermatzen
duelakoan egiten du, adibidez. Nazio-estatu alemana Fichte
hil eta mende erdira osatuko da, integrazio prozesu tipiko
batean, *à la français*, Prusiak, zentro aurreratu moduan,
periferietan *de facto* zuen eragina (*Zollverein*-aren antzeko
egiturekin, adibidez) nazioarteko estandarretara egokitzean.
Integrazio horren subjektua bera ere, gainera, ez da Fichtek
imajinatutako Alemania bera izango, ordurako 'Alemania
Handiaren' bidea baztertuta baitago.

Ondoriozta daiteke, beraz, nazioa komunitate imajinatu
politikotzat ulertzen badugu, 1) imajinatze hori bide ezber-
dinetatik iritsiko dela eta 2) politikotasunak ez duela zertan
ekarri nahitaezko estatu eredu jakin bat, ikusi berri dugu-
nez esparru administratiboen eragina (nabarmena beste
alde batetik) ezin baita beste faktoreen gainetik lehenetsi.
Hizkuntzek eta esparru administratiboek, politikak eta kul-
turak, nazioak imajinatze elementuak eskaintzen dituzte;

imaginatu, naziokide potentzialek diskurtsiboki imajinatzen dituzte zirkunstantzia historikoen arabera. Hain zuzen, horrexegatik dira nazioak kontingenteak bezain errealak, sortu eta birsortu egiten direlako. Ezaugarri horretatik euren faltsutasuna ondorioztatzeak ez du zentzurik, Andersonek salatzen duen moduan (1991, 6).

Nolanahi ere, nazio imajinatu horiek gehienek aurrez aipatutako eredia jarraitu zutela azpimarratu behar da. Estatu egitura berriak sortzerakoan nazio-estatuak izan zen hartutako bidea. Hori historiaren logika saihestezinak egin zuen edo

Sortu eta birsortu egiten direlako dira nazioak kontingenteak bezain errealak. Hortik euren faltsutasuna ondorioztatzeak ez du zentzurik, Andersonen arabera

gertaera historikoen eta botere erlazioen emaitza izan zen, beste ikerketa baten lana da. Egonkortutako estatuetan, ordea, bide horrek ez zuen arrakasta gehiegirik izan, kontuan izanda XIX. mendean zehar Europako potentzia handienek (Habsburgotar Inperioa, Britainiar Inperioa, Errusia...) euren burua nazioanitz gisara ulertzen zutela eta hala jarraitu

zutela, harik eta Lehen Mundu Gerraren irabazleek euren 'nazionalitateen printzipioak' ezarraraztera behartu zituzten arte. Nazio-estatuaren ereduak sortu zituen eraginak aztertzea izango da hurrengo atalaren helburua.

Nazio-estatuetakoin subordinatuak

Izan estatuaren mugen baitako nazionalismo integratzailea, boteregune sakabanatuak batzekoa edo 'periferia' (probintzia) baten nazionalismo independentista... guztiak nazio-estatuaren formapean pentsatu izan dira orain arte. XIX. mendeko nazionalismoetan hasi, XX.eko Afrikako eta Asiako deskolonizazio prozesuetan jarrai eta mende amaierako azken olatu postsobietarrarekin amaitu, nazio-estatu eredia ezarri

zaie sortu berri diren estatuei. Horrek ondorio jakin batzuk izan ditu munduaren antolamendu politikoa ezartzerakoan.

Gurean arraskasta berezia izan duen gai batekin hasteko: nazionalismoa erlijioaren ideiarekin uztartuta maiz ikusi ohi dugu, beti ere borrokalari nazionalista fanatiko erlijiosoarekin alderatuz estatu razional txit laiko baten kontrako gurtzadan. Gutxiago aztertu izan da, ordea, Joxe Azurmendik behin baino gehiagotan aditzera eman duen ideia, hots, estatu moderno razionalaren (nazio-estatuaren) kutsu erlijioso edo belarria gehixeago berotzen digun konstituzionalismo teologikoa. Azken batean, gaur egungo nazio-estatuak euren lurraldean nazioaren ideia konstituzioan errebelatutako egia gisara aurkezten badute (hortik nazioak nazionalismoak sortzen dituela), errealtatearen argazki posible bat ezartzeko izaten da. Eztabaida liteke nazioaren baitako ohitura ezberdinez, Ama Birjina gurtzeko erritu desberdinak eztabaida daitezkeen bezala; heresiak, ordea, Ama Birjinaren oximoron ontologikoa edo egungo nazio-estatuaren hautaketa librea, esparru publikotik erauzten (saiatzen) dira konstituzionalista ez-nazionalistak.

Izan ere, estatuak helburu klasikoa bortxaren monopolio normalizatua duen bezala, nazio-estatuak bigarren bat gehitzen dio bere jomugari: naziotasunaren monopolio naturalizatua. Nazioa ez baita, ikerlari modernista gehienek aurkezten duten eran, historiaren joanean daragien parametro estruktural bat. Gellnerren atsekaberako, nazio-estatuetakoa ez da hezkuntza tekniko-instruktiboa (bakarrik), lehen industria gizarteko langileak eta orain informazioaren aroko prekarioak sortzeko. Nazioaren ideiak ingurune hurbilenekotik hasi eta gizadi osoa taxutzen dizu kontziente ala inkontzienteki; bizi duzun nazioak egin ditzakezun bizi aukerak eta gara ditzakezun proiektuak aurkezten dizkizu. Egungo nazionalismo postmodernoa, jakina da, edonor izan liteke *punk-rock* kaliforniarra atsegin duen *ciudadano (español) de un lugar llamado mundo*. Hori bai, *Loreak* filmak ezin du, nahita ere (ez du zertan nahi izan behar, baina), euskaldun

ez-espainoltzat aurkeztu bere burua; nola eta ez duen bere izena «jarrera horrek XIX. mendeko nazionalismoaren kutsuak ditu» edo antzekoekin belztuta ikusi nahi.

Horren arrazoiak zein izan litezkeen modu askotan ebatzi izan da. Ez dira gutxi gaur egungo 'gizartearen' antolaera sahiestezintzat hartzen dutenak. Are, batzuek, berak arazo identitariorik ez duela eta haien bidea (asimilazioarena) erakusten dizute irtenbide berri-berritzailea bailitzan. Baina hemen bestelako irakurketa bat egin nahi diogu arazoari. Izan ere, ikusten da nola nazioaren irudikapenaren esparrua publikotik estatalera pasa den. Hastapen zoro erromantiko haietan, nazioa naziokideek (eta bertaratutako atzerritarren topikoek) osatzen bazuten, orain estatuei delegatu zaie lan hori. Esan nahi da, nazioa bertan parte hartu nahi duten eta *de facto* hartzen dutenen *agoran* erabakitzetik (Grezia, grekoek kreatua eta grekoen kreatzaile), estatuak baimendutako eremuetan aurrez adostutakoa antzeztera pasa gara. Beste behin: politikariek (intelektual, kazetari, militante eta kultur-gileekin batera) nazioa sortzen bazuten, orain euren kargu instituzionalak dira nazioaren birsortzea bermatzen dutenak.

Michael Billigek landu du nazioaren birsortze hori estatu egituren esku dagoenean gertatzen dena, *nazionalismo banalaren* teoriarekin (Billig 1999). Hasteko, naziogintza ikusezin bilakatzen du. Jai nazionalak eta ospakizun handiak egun seinalatuetarako gordez eta bertan parte hartzea norberaren aukeren menpe utziz, naziogintza eredu horrek ezkutatu egiten du eguneroko nazioaren *flagging*-a. Estatuaren identitate nazionala auzikatua den lekuetan soilik egiten da ikusgarri eraikin publikoetan jarritako banderek duten esanahi ezkutu. Ondorioz, nazionalismoaren mamua estatuaren antolamendu nazionala aldatu nahi dutenen teiltura botatzen da.

Bigarren buelta batean, ordea, eragina sakonagoa da. Billigek nazio-estatuaren ideologiaren hedapenean Amerikako Estatu Batuen rola aztertzen du, batez ere Sobietar Batasuna erori osteko gerretan. Horrela, Golkoko Gerra munduko ordena berria, nazio-estatu liberalena, marko politiko

berri gisara ezartzeko saiakeratzat hartzen da. Gerra horiek, AEBen hegemonia politikoa bermatzeaz gain, haren anto-laera politikoa politikarako marko diskurtsibo bakartzat ezartzera bideratuta zeuden. Politikoki zilegi diren aukerak eta onartezinak direnak bereizten dira horrela.

Are gehiago, eredu hori jarraitzen ez dutenak razionalitate politikotik at geratzen dira. Kasurik onenean atzerakoi bilakatuko dira eta paternalismo errukitsu batekin hitz egingo zaie, *oraindik* nazio-estatu liberalaren fasean sartu ez direlako edo idealismo gauzaezin batean dabiltzalako. Okerrenean bonbardaketa metonimiko batzuk jasango ditu ‘nazioak’; aldiz, irrazional menderakaitz horiek gure gizartean baldin daude, deshumanizatuak izango dira, haien aurkako atxiloketak, torturak eta hilketak demokraziaren (nazio-estatuaren) defentsa bilakaturik (Azurmendi 2012).

Pentsamendu horren atzean tranpa beldurgarria dago. Nazionalismoaren hastapenetan demokrazia ideal bat zen, estatu autoritario eta despotikoak herritarrengana gerturatzeko helburuarekin jaio zen. Bi menderen ostean, ideala egitura konkretu bilakatu da, botere hegemonikoak taxututako estatuen antolaeraren ideia zehatz bat. Hau da: hasieran demokrazia zen ideal finkoa eta estatuak bitarteko kontingenteak, moldagarriak eta aldagarriak. Orain, demokrazia tokian tokikoa da (EBk ez du espazio demokratikorik sortu) eta ideal politikoa nazio-estatu egonkor bat da, nahi bada kulturantz, progresista eta harmoniatsua, baina bat eta bakarra.

Nazionalismo banalak nazio-estatuaren ideologia hori birsortzen du gizartean, egunerokotasunaren isilean. Kluxe politikoak naturalizatuz doaz, beti besteena den nazionalismoa *patriotismoaren* itxurapean normalizatzen dugu. Patriotismoaren ukoa bera litzatekeen munduko hiritartasunak ez du

Michael Billigek landu du nazioaren birsortzea estatu egituren esku dagoenean gertatzen dena, *nazionalismo banalaren* teoriarekin

nazionalismo banala indartu besterik egiten, hiritartasuna estatuak besterik ez baitute ematen. Hain dugu barneratuta pentsamendu nazionalista, ezen ia ezinezko baitugu mundua nazio-estaturik gabe irudikatzea. Billigek adibide eder bat ematen digu zera adieraztean, soziologian lantzen den 'gizarte' ustez neutroa, egiaz, nazio-estatuaren mugekin bat datorren jende multzoa dela.⁷ Pentsa: liberalismoaren has-tapenetan demokrazia *gizadiaren* ideala bazen, orain *gizarte* demokratiko liberalez (partikularrak!) mintzatzen gara.

Munduaren antolaera horrek ondorio nabarmenak ditu. Horietan garrantzitsuenetakoa subalternoak sortzea litzateke. Jule Goikoetxearen hitzetan, «botere hegemonikora iritsi ezin daitezkeen horiek dira subalternoak» (Goikoetxea 2015, 78). Nazioaren birprodukzioan autonomoki parte hartu ezin dutenez, nazioaren imajinariotik kanpo daude. Esaterako, nazio-estatu eta sistema patriarkala jaiotzatik eskutik emanda doazenez, emakumeek ezin dute nazio barruko euren irudia nahieran eratu. Aitzitik, emakumeen eginbehar nazionala nazioari umeak ematea da. Berdin gertatzen da indiar eta aborigenekin. Nazioaren iruditeria kreoleek osatu bazuten, bertakoen parte hartzea kreole horien borondatearen menpe zegoen.

Orokorrean, nazio-estatuak ezarritakoaren arabekoak ez direnak subalterno izango dira. Urtero-urtero tantaka-tantaka iristen (edo hiltzen) zaizkigun etorkinek ere subalterno izaera dute ezinbestean. Baina baita, nazio-estatuan bertan jaio arren, onartuak ez diren bizi-ereduak dituzten homosexual, emagalduek eta abarrek ere. Horiek guztiak nazioaren birprodukzioarako eremutik at daude. Gelditzen zaizkien irtenbideek antz handia dute aurreko atalean aipatu ditugun integrazioarekin eta sezesioarekin.

Subalternoak bizi diren nazio-estatuan integratzen saia daitezke. Noski, horrek ez du esan nahi euren izaera guztiz erantzi eta indarrean dagoen nazionala hartu behar dutenik. Integrazio prozesuan nazio-estatu bultza dezakete haren iruditerian lekua egitera, eta, bistakoa da, talde gehien jarrera

ohikoa da. Izan ere, jende subalternoak ez du identitate esklusiboki subalternoa. Estatuko nazio hegemonikoa bere duten gay neoliberalak daude, esaterako. Halakoei errazago zaie euren bizi-aukeren integrazioa bigarren irtenbidea baino. Horrek, ordea, nazio-estatuaren esku uzten du subalternoen kudeaketa. Horregatik, hegemoniarekin guztiz hautsi dezakeen bidea bigarrena litzateke.

Izan ere, bigarren irtenbidea estatu propio baten bila abiatzea da. Kreoleek, metropoliaren subordinatu izateari uzteko, estatu propioa sortzea deliberatu zuten. Berdin, ikusi dugu estatu handietako hainbat minoriak euren estatu propioa eskuratu zutela. Horrela, estatugintza berri bat izan daiteke aurrez subalternoak zirenak hegemoniara eraman ditzakeena. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar egungo nazio-estaturik boteretsuenetako batzuk, euren baitan gizarte-arrakala itzelak dituztenak, subalternoz osatutako koloniak zirela, AEBak kasu. Horregatik, azken urteetako fokua estatugintza horren nolakotasunak zehazten jarri da.

Naziogintza berria estatugintza berrian?

Estatu berri bat eraiki behar dugu orduan, ados. Bere horretan ez da gauza berria, hamarkadaro munduan estatuak sortzen eta desegiten ari baitira. Eginbeharra argi dago, independentziaren aldeko jende multzo nabarmen handia bildu eta bideari konprometitu. Korapiloa ere identifikatua dugu honez gero, ze estatu mota nahi dugun galdetzen ari bagara. Berriro Jule Goikoetxeari helduz, estatugintza proiektu on baten oinarritzko ezaugarria definiturik dugu:

Zein diferentzia sustatuko dira eta zein neutralizatu euskal estatugintzan? Demos orok uzten du kanpo beti zerbait-norbait; helburua, beraz, esklusio mekanismoak identifikatu eta kontrolatzea da ahalik eta esklusio murriztena edo eragingarriena egiteko ahalik eta biolentzia txikienarekin (Goikoetxea 2015, 81).

Kontuan hartzekoa da esaldia (geroago itzuliko gara berriro), planteamendu idealak errealtzat aurkeztu nahi ez badira.

Orain arte egungo estatu eredu zabalduenaren sorrera, historia eta interpretazioak landu baditugu, eskusio mekanismo nagusi bat bistaratzeko izan da: estatuaren eta nazio baten aliantzari esker, imajina daitezkeen nazio guztietatik bat goratzen da nazio-estatuan. Ondorioz, nazio horretan parterik ez dutenek euren burua kanporatua ikusten dute estatuaren oinarri-oinarrizko zimendutik. Horretarako, nazio-estatuak eskura dauzkan baliabideak erabiltzen ditu: historiaren atzera begirako irakurketa eta nazionalismo banala, bistakoagoak diren bortxa politikoa edo militarra ez aipatzearren.

Daniele Conversik nazionalismo modernoaren laburpen eder bat dauka esaldi bakarrean: «Nazionalismoa estatuaren eta kulturaren arteko ezkontzaren kumea da, eta zeremonia modernitatearen aldarean egin zen» (Conversi 2012, 14). Ikuspegi modernistan, nazioa ezkontza horretatik sortzen den ondorengoa da. Ez dugu orain artekoa errepikatu beste-

rik egin, baina lotura horren bi eragin nabarmendu nahi dira bereziki.

Bata kulturen eta, ondorioz, hizkuntzen mugaketa da. Ordura arte kulturak antolaera politikoaz landa lurgainean barreiatu bazeuden, nazionalismo modernoak kulturei estatuen itxiturak jarri zizkien, horrela kulturak nazio-estatu berriaren jabetza pribatu bilakatu. Are gehiago, ordura arte historiaren soka luzeak

kultura desberdinak han-hemenka nahastu bazituen, orduraz geroztik historiaren *anomalía* izango da 'estatu bat – nazio bat' binomioa oztopatzen duen guztia.

Horrez gain, ordea, kulturaren balioespen iturria bera ere aldatu egingo da. Prestigiodun kultura klasikoa (eskolastiko edo greko-erromatarra) izatetik herri kulturetara aldatuko da.

Estatuaren eta nazio baten aliantzari esker, imajina daitezkeen nazio guztietatik bat goratzen da nazio-estatuan. Ondorioz, nazio horretan parterik ez dutenek euren burua kanporatua ikusten dute estatutik

Hor, ordea, bidebanatze bat ikusi behar da: izan ere, tradizio batek herri xehearen kultura berez balioesten duen bitartean, besteak nazio-estatuak hautatutako nazioaren kulturari aitortuko dio garrantzia. Beste era batera esateko: kasu batean kultura guztien berezko balio-berdintasuna azpimarratzen da (hortik kultura naturalaren ideia), bestean estatuak ematen dio balioa eta sona kulturari. Esan gabe doa, ordea, estatuak bere eskakizunen arabera (administrazioarenak, gizarte industrialarenak, patriarkatuarenak...) babestuko dituela kulturak.

Horrela, beraz, tradizio anglosaxoitik edaten duen teoria modernistarentzat, kultura nazionala gizarte industrialak (egun postindustrialak) dituen *ezagutza* eskakizunak asetzen dituen hori da. Estatuak kulturaren beharra bai, baina kulturak estatuarena ere bai, hura irauteko edo ez irauteko neurria den heinean. Nazioaren ikuspegi horretan, estatua eta kultura bat eginda daude guztiz.

Ilustrazio alemanetik beretik, ordea, ikuspegi horren kritika sakona burutu zen. Esaterako, Herderrek estatuari zion herra, hein handi batean, estatuak kulturaren gainean zuen kontrol horregatik zela esan dezakegu. Beste tradizio horretan, kulturak estatuaren funtzionamendu egokirako ezagutza multzoa baino askoz gehiago esan nahi du: belaunaldiz belaunaldi hiztun talde jarraitu batek sortu duen objektu sinbolikoen multzoa da kultura, norbanakoak handik edukiak hartu eta eraldatuz objektu sinboliko berriak sortzen dituena, kreaio prozesu bakoitzean bizipen pertsonal eta sozialak txertatuz. Tradizio horretan nazioa estatuari nahitaez lotutako zerbait ez, baina kultura hori jaso eta birsortzen duen subjektua da. Noski, subjektu hori ez da zertan nazio-estatu bakarrean hezurmamitu.

Bakarren bat ernegatu aurretik, aitortuko dugu azaltzen saiatu garen ideia horrek lotura duela *Volksgeist* termino gaitzulertu bezain erdeinatuarekin. Adibide ximple bat jarriko dugu, beraz, kontua ez gehiegi dramatizatzeke. 2015ean Nafarroako Foru Erkidegoan UPNren gobernuaren ordezkuskal munduarekiko sinpatia apur bat handiagoa erakutsi

duen talde batek hartu du agintea. *Gara-Naiz* hedabideak, aldaketa horren argitan, irakurleei euren erredakzioko eztabaida baten ebazpena helarazi zien. Ordura arte Nafarroako presidentea izan zena, Uxue Barkosek kargua hartzarekin batera, Nafarroako lehendakari deitzeko asmoa azaldu zuen (*Berria*-k beste hainbeste egin du, oker ez banago). Hau da, aurrerantzean Euskal Herriak, euskal nazio kulturalak,⁸ bi lehendakari⁹ izango dituela erabaki zuten. Aukera horrek, ordea, ez dakar instituzio politikoetan inongo aldaketarik. Aldaketa sinboliko hutsa da, *izpirituala*, horren sinbolikotasuna uler dezaketenek osatutako subjektuak parte hartzen duena, zuzenean ez bada zeharka. Bada:

Gure fantasmak uxatze aldera, Marx gaztearen pasarte bat, non ere Volksgeista aipatzen baitu, lagungarri izan dakiguke ideia bat egiteko, nola moduz ulertzen zen benetan Alemanian adigai hori, laguninguru hegeldarrean adibidez: hor ikusten duzu, zer eta prentsa libreak deritzola mutilak Volksgeista! (Azurmendi 2007b, 60).

(Pentsatzekoa da prentsa librea boterearekin –estatuarekin– bat egiten ez duena dela XIX.eko Alemanian ere.) *Gara-Naiz* eta *Berria*-ren erabakiak nazio euskaldunetan norbere burua ulertzeko aldaketaren berri ematen du, estatuarekin duen erlazioa ulertzeko modua barnebiltzen duena orobat.

Volksgeist-aren –azken finean, nazioaren– ikuspegi hori, ordea, aspaldi geratu zen bazterrean. Nazioa eta estatua ulertzeko eredu hegemonikoan, nazio-estatuaren identitate nazionala ere delegatu egiten zaio estatuari. Estatua da hiritartasuna ematearekin batera norbanakoari naziotasuna ematen diona. Nazio-estatuak, nazioaren jabetza pribatua baitu, erabakitzen du nor den ‘espainola’, nor den ‘vasco en tanto que español’, baita nor ez den espainola ere. Madrilen argudiobideetako bat kataluniar ‘nazionalisten’ aurka da esatea Kataluniako espainiarrak espainol izateari uztera behartu nahi dituztela. Horrek, ordea, espainiar estatuaren izaera nazionalista (eta haren nazionalismo banala) soilik jartzen du begi-bistan. Izan ere, Katalunia independente batean inork bere naziotasuna galduko lukeela iradokitzeak ez du ez hanka eta ez bururik.

Izatekotan hiritartasuna da galduko luketena, beste egitura administratibo baten baitan geratuko liratekeelako (eta hori ere zalantzazkoa da gaur egun). Inolaz ere gertatuko ez dena etorkin andaluziarren semeak bere erreferentzia kultural espainiarrak galtzea izango da, eta hiritar espainola zenean adinako gaitasuna izango du nazio espainolaren parte izateko, non eta ez duen bere espainoltasunaren kontzientziarik galtzen, dela borondatez, dela kataluniar estatu berriaren jarrera homogeneizatzaile suharrarengatik.

Artikuluaren lehen bi zatiak ikusita, gaur egun jaiotzen den estatu berriak azken 200 urteetako eredia ez errepikatzea nahiko genuke. Hala, idealki, prozesu independentistak nazio-estatu beharrea *estatu-ez-nazionalista* bat sortzea litzateke desiragarriena. Dena dela, jakitun gara estatu batek nazio baten gaineko jabetza pribaturik izango ez balu ere, bere eskusio mekanismoek martxan jarraituko luketela (oroitu Jule Goikoetxearen aipua atalaren hasieran). Arrazoi ideologikoak baztertu eta praktikotasunagatik bakarrik ere munduko hizkuntza jakin batzuk hartzen baditu, gainontzekoetan mintzatzen direnak desabantaila izango dute hizkuntza hautatuen aurrean. Nolanahi ere, estatugintzaren nahitaezko osagaietatik nazioA (hizkuntza nazionalA) kentzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula nazio-estatuen ideologiarekin amaitu nahi dugunontzat.

Gure artean ideologia horren kritika eta alternatiben eztabaida pil-pilean dago, hain zuzen, independentzia z gogoetatzen dutenen artean. Esana baita esku artean dugun erroka nagusia prozesu independentista edukiz janzteza dela, zentzu horretan egin den proposamenetako bat da euskarak, azken hamarkadetako diskurtso independentista nazionalki artikulatu duen aldagaiak,

Estatugintzaren
nahitaezko osagaietatik
nazioA (hizkuntza
nazionalA) kentzea ez da
ahuntzaren gauerdiko
eztula nazio-estatuen
ideologiarekin amaitu
nahi dugunontzat

hizkuntza nazional izatetik estatu hizkuntza izatera igaro behar duela (Apaolaza 2015). Horrela, estatuaren legitimitazio-bide klasikoa (nazioa) baztertu eta *demos* erabakitzaila jarriko litzateke ordainetan, norbanakoz osatua bakoitza bere estatu berriaren aldeko edo kontrako argumentazio propioarekin (*vs* arrazoiketa nazionalista unibokoa: «nazio bat gara eta, ondorioz, estatua zor zaigu»).

Zentzu horretan, euskara estatuaren hizkuntzatzat agertzea (ziurrenik gaztelera eta frantsesa bezalaxe) ezinbestekoa delako arrazoiketa onartuta, kezka bat datorkidala aitortu behar dut. Izan ere, euskararen estaturatzearekin batera, euskaldunen identitatearen delegazioa gerta daitekeela iruditzen zait. Hau da, iruditzen zait ez dela arrazoirik gabea pentsatzea posible dela estatu berri horrek euskara, euskal kultura, 'izpiritua', moldatu eta bere nazionalismo banalaren parte egitea.

Horregatik, gure hizkuntzaren-kulturaren ze alderdi estatutatuko den gogoetatzea ezinbestekoa iruditzen zait. Burugabea da estatuko administrazioak euskal kultura (zentzu anglosaxoian, jakintzaren zentzuan) bereganatu behar duenik ukatzea, baina euskal nazio kulturala autonomoa izateak soilik bermatzen du sortutako estatuak euskaldun izateko moduak ez agortzea. Hau da: pairatzen dugun nazio-estatuak gure (Euskal Herriko hiritarren) politikak oztopa ez ditzan, bertan erabakitzearen aldeko subjektu bat autoeratu (nahi) da 'erabakitzeko eskubidearen' edo independentziaren inguruan (Gure Esku Dago, Independentistak sarea...); era berean, oraingo edo etorkizuneko inongo estatuk bere baitan bizi diren hiritarren nazioak bereganatu-kudeatu-kontrolatu ez ditzan, naziokideek autonomoki antolatu beharko dute.

Orokorrean esanda, estatu berri bat sortu ostean, haren aurrean bi jarrera izan ditzakegu: prozesu independentista burura eramán duen estatugintza ez nazionalistak, behin estatu-egiturak osatuta, nazio-estatuaren bidea hartuko ez duela fidatu gaitezke; edo norberak, estatuari lekurik utzi gabe, hartu bere nazioaren hauspotzean parte, beharrezkoa bada instituzio nazional ez estatalak autoeratu. Azken

horrek hainbat arrisku ditu: nondik eskuratu lehen estatuak bermatzen zituen baliabideak, nola ziurtatu herri gogo horren indarra itzaliko ez dela... Ordainetan, ordea, estatuaren diskurtso posible guztien aurrean autonomia irabazten da.

Edozein estatuk duen joera berezko horri aurre egiteko norbere nazioaren autoerakuntzan kontzienteki parte hartzea bezalakorik ez dago, naziokide izateko modu desberdinak errebindikatuz naziokideen sorlekuaren despit. Estatuari ezinbestean delegatu beharko zaio zergen kontrola, haren legeak indarrean dauden espazioan sortu/bizi bagara. Nazioaren birprodukzioaren ardura, ordea, naziokide bakoitzarekin lekualdatzen da. Izan ere, 'sorlekua' norbera sortu den lekua izateaz gain, norberak sortzen duen lekua ere izan daiteke. Badakigulako, jakin, behelaino arteko moroek ere naziogintzan maisuki parte har dezaketela, estatugintza prozesuaz landa. 🐞

Oharrak

1. Artikulu hau 2015eko azaroaren 19an *Politikaren itzulera? Analisi kritiko-politikoaren III. kongresuan* aurkeztutako komunikazio batean oinarritzen da.
Lan hau EHUko Euskararen arloko Errektoreordetzak babestutako doktore tesi baten baitan egin da, 'Gizartea, Politika eta Kultura' programaren barruan.
2. Sakonduko ez bada ere, idatzita utzi nahi da Kedouriek subjektu kantiarraren eta indibiduo konkretuaren artean egiten duen nahasketa. Izan ere, Kanten subjektua gizaki guztientzat berdina den hori adierazteko asmakuntza (zentzurik positiboenean) da, eta, ondorioz, handik eratortzen den legea unibertetsala izango da, ezinbestean indibiduo guztiek kategorikoki obeditu beharrekoa ondo jokatzekotan. Kedouriek iradokitzen duen zentzu liberal hori hainbeste arbuiatzen duen erromantizismoan bilatu beharko litzateke, erreparatu batzuekin bada ere.
3. Gazte ero horien balizko burugabekeriak erlatibizatzeke, egokia iruditzen zaigu Stefan Zweigen memorietan (Zweig 2015) «Viena Gaztea» nola aipatzen den irakurtzeko gomendatzea. Bertan, gazteria austriarrak ez du Kedourieren nazionalismorik ageri, baina Zweigek ez du lotsarik bertako kulturgileei zieten mirespena eta helduen aurrean defendatzen zuten arte, poesia eta filosofia berria aldarrikatzeko.
4. Italia batua Mazzinik sartu ahal izan zuen jendearen iruditerian, politikoki gauzatu Sardiniako Koroak egin zuen, batik bat.
5. Gellnerren teorian halabeharrezkotasunak dituen inplikazio filosofikoak ez dira nolanhikoak. Ze beharrezkotasun mota dago jokoan? Gizarte zientzietan onargarria al da beharrezkotasun hori? Meadwellek azken urteetan inplikazio horren arriskuak landu ditu (Meadwell 2012, 2014, 2015).
6. Asterixen mitoa 1828an idatzia aurki daiteke Frantziaren arima galiarra, herritarra, azpimarratzeko monarkiaren eta Elizaren aurrean. Hala, bada, mito nazionalistaren adibide tipiko bat «errepublikanismo frantses ideologikoaren bandera bezalakoa ageri zaigu» (Azurmendi 2011, 124).
7. Horrek adieraz lezake Gaindegiaren lanaren gogorra Euskal Herriaren lurralde guztiak aintzat hartzen dituen datu-base parekatu bat osatzeko.
8. 'Kultural' epitetoak ez dio inongo eraginkortasun edo pisurik kendu nahi (zenbaiten Euskal Herria errealitate kulturala dela diotenean bezala); soil-soilik azpimarratu nahi da lan osoan zehar nazio politikoaren, nazio-estatuari lotuta doanaren beste zerbait dela imajinatzen dugun Euskal Herri hori.

9. Lehendakari kargua euskal nazio kulturalerako kideei (euskaldunei) soilik ez dagokiela ondo dakigu; izan ere, euren burua Espainiarekin zein Nafarroarekin soilik identifikatzen dutenen buruzagi politikoak ere izan badira. Hemen, ordea, euskal nazio kulturalak lehendakari-tzat biak hartu izana da azpimarratu nahi duguna.

Bibliografia

- Anderson, Benedict (1991): *Imagined Communities*. Verso, Londres.
- Apaolaza, Unai (2015): 'Nazio hizkuntza izateari utzi estatu hizkuntza izan ahal izateko', *Jakin* 208, 51-64.
- Azurmendi, Joxe (2007a): *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*. UEU, Bilbo.
- (2007b): *Volksgeist*. Elkar, Donostia.
- (2011): 'Historia ez da ikusten, asmatu egiten da', in Kepa Korta eta Jesus Mari Larrazabal (argk.): *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak*. EHU, Bilbo, 121-148.
- (2012): *Barkamena, kondena, tortura*. Elkar, Donostia.
- (2014): *Historia, arraza, nazioa*. Elkar, Donostia.
- Billig, Michael (1999): *Banal Nationalism*. Sage, Londres.
- Conversi, Daniele (2012): 'Modernism and Nationalism', *Journal of Political Ideologies* 17/1, 13-34.
- Gellner, Ernest (2009): *Nazioak eta nazionalismoa*. Klasikoak, Bilbo.
- Goikoetxea, Jule (2015): 'Euskara, estatua eta feminismoa', *Jakin* 208, 77-89.
- Hobsbawm, Eric (1997): *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Crítica, Bartzelona.
- Kedourie, Ellie (1966): *Nationalism*. Hutchinson, Londres.
- Meadwell, Hudson (2012): 'Nationalism chez Gellner', *Nations and Nationalism* 18/4, 563-582.
- (2014): 'Gellner Redux?', *Nations and Nationalism* 20/1, 18-36.
- (2015): 'Philosophic History and Common Culture in Gellner's Theory of Nationalism' *Nations and Nationalism* 21/2, 270-288.
- Thiesse, Anne-Marie (2010): *La creación de las identidades nacionales*. Ézaro, Madril.
- Zweig, Stefan (2015): *El mundo de ayer. Memorias de un europeo*. Acantilado, Bartzelona.

Eredu aldaketa euskal nazionalismoan? Demokrazia kontzeptuaren garrantzia

Julen Zabalo

UPV/EHuko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea

Onintza Odriozola

UPV/EHuko Gizarte Zientzien Didaktika Saileko irakaslea

Horrela aurkeztu nahi izaten badira ere, nazioak ez dira homogeneoak denboran. Aitzitik, aldatu egiten dira testuinguruaren arabera eta nazioa teorizatu duen nazionalismoaren argitan. Euskal nazionalismoak ederki islatzen du esandakoa: 120 urteko ibilbidean bi diskurtso klasiko ondu ditu, eta esan liteke hirugarren bat lantzen hasita dagoela. Diskurtso horietako bakoitzak testuinguru jakin bati erantzun izan dio eta, testuinguru aldatzean, aurreko diskurtsoa kolokan jarri du. Inondik ere, gaur egun halako kinka batean egongo ginateke.

Egoera berri honetan demokrazia kontzeptua giltzarri da azken aldiko hainbat aldaketa ulertzeko, eta euskal nazioaren teorizazio berrian ere halaxe dela ematen du. Alde edo kontra egon, gaur egungo diskurtsoak eta eztabaidak haren inguruan harilkatzen dira, neurri handi batean. Nolanahi ere, nazionalismoak harreman gatazkatsua izan du, askotan, demokraziarekin; eta, gaur egun ere, ikusten ari gara eskuineko nazionalismo baztertuaileak pizten ari direla Europa guztian.

Euskal Herrian, ordea, badirudi, ezkerreko eta demokrazia liberalerako tradizioek bat egin dutela gaur demokrazia kontzeptuan oinarritutako nazio kontzeptu berria taxutzeko; behar bada, oinarrian hori izan delako azken 50 urteetako joera. Hain zuzen ere, joera horiek aztertu nahi ditugu artikulu honetan.

Euskal nazionalismoa: testuinguruari egokitutako diskurtsoak

Gainerako eragileek bezala, nazionalismoak ere diskurtso bat garatzen du jendartean bere ezaugarriak adierazteko eta herritarren adostasuna eta leialtasuna bilatzeko. Are gehiago, diskurtsoaren bidez ideologia jakin batzuk transmititzen dira, legitimitatea bilatzen eta indartzen da eta, oro har, identitate jakin bat sozializatzen da (Van Dijk 1998). Nazionalismoak herritarren atxikimendua bilatzen du diskurtsoaren bidez, denak nazio bereko partaide direla sinetsiz eta sinetsaraziz. Hori dela eta, diskurtsoaren arrakasta ez datza, berez, ideien razionalizazioan edo egiaztagarritasunean, bere eraginkortasunean baizik. Onartua eta jarraitua den diskurtsoa bakarrik da arrakastatsua, bere balio teorikoa gorabehera (Perez-Agote 1986).

Euskal nazionalismoak bi diskurtso klasiko garatu ditu orain arte. Bataren eta bestearen nazio sinbolo nagusia eta helburu politiko behinena zehaztuko ditugu jarraian hurrenez hurren. Alde batetik, naziokideen atxikimendurako elementu bat baino gehiago erabili ohi da; horien artean, ordea, batek indar sinboliko handiagoa izaten du. Beste alde batetik, nazio mugimenduak helburu politikoak izaten ditu, baina horien artean ere bakarren batek indar handiagoa lortzen du. Diskurtsoa bere osotasunean ulertzeko, beraz, ondo bereizi behar dira haren maila sinbolikoa eta politikoa. Horrez gain, ikusiko dugunez, jarduera politikoan oso garrantzitsua da maila pragmatikoa kontuan hartzea, hots, helburu politikoak lortzeko onartzen diren egokitzapenak. Izan ere, nazio kidetzak baldintza zurrinak jar ditzakeen

arren, jarduera politikoak hartaturik, diskurtso politikoak beti garatu izan ditu horiek malgutzeko mekanismoak; betiere, jakina, eraginkortasun politikoaren izenean.

Zeintzuk izan dira euskal nazionalismoaren diskurtso horiek? Lehendabizikoak, Sabino Aranarenak, XIX. mendearen amaieran du jatorria, eta arrazan oinarritu zuen nazioa: hala, euskal arraza deituriko kideei bakarrik zuzentzen zitzairen mugimendua. Helburu argi batekin, gainera: fede katolikoa-ren barruan heziak izatea. Arlo pragmatikoan, mugimendua hazi ahala, euskal arrazako kide izateko baldintza samurtuz joan zen, jende gehiagori ateak zabaltzeko. Era horretara, arraza ikurra izanik ere, 1930eko hamarkadan, baldintza hori betetzen ez zuen jendearengana zabaldu zen euskal nazionalismoa, arraza aldezea ez zelako erraza arlo politikoan.

Bigarren diskurtso klasikoa XX. mendearen bigarren partean garatu zuen aurrekoa zalantzan jarri zuen abertzale belaunaldi gazte batek. Nazioaren elementu nagusia hizkuntza bihurtu zuen; hartara, euskal nazioa euskaldunek osatzen zuten, euskaraz hitz egiten zutenek, alegia. Helburu politikoan are aldaketa nabariagoa gertatu zen: zehazki, sozialismoan hezitako Euskal Herria eraikitzea. Arlo pragmatikoan, berriro ere, euskal nazioko kide izateko baldintzak egoera berrira moldatu ziren, eta erdaldun zirenak ere integratu zitezkeen, betiere etorkizun batean euskaldun izatera helduko zirela pentsatuta. Azal ditzagun xehe-xehe ereduok.

Euskal nazionalismoaren lehenbiziko diskurtsoak, Sabino Aranarenak, arrazan oinarritu zuen nazioa: hala, euskal arraza deituriko kideei bakarrik zuzentzen zitzairen mugimendua

Arraza nazionalismoaren diskurtsoa

Europako jendartea aldaketa ekonomiko, politiko, sozial eta kultural bete-bete zegoenean sortu zen abertzaletasuna;

hain zuzen, estaturik gabeko mugimendu nazionalisten susperraldiaren erdian. Euskal Herria ere krisian zegoen: ezinegon moral, sozial, kultural eta politiko hedatu bezain errotu batek bizi zuen gure herria, eta abertzaletasuna egoera hari irtenbidea emateko sortu zen.

XVIII. mendean abiatu zen industrializazio prozesuak eragin handia izan zuen euskaldunen egunerokoan. Industrializazio-prozesuaren lehendabiziko aldaketa Bizkaian nabaritu zen XIX. mendearen bigarren erdian. Bizkaiko paisaia aldatzear gain, estruktura sozialak eta bizkaitarren bizimodua eta bizi-ikuskerak eraldatu zituen. Immigrazio handia tarteko, biztanle kopurua eta hirien tamaina asko hazi ziren; orobat, industriak erlijioarekin loturarik ez zuten ohiturak ekarri zituen, eta sozialismoaren gisako ideologia berriak errotu ziren. Esan gabe doa euskararen ezagutza eta erabilera asko gutxitu zirela etorkinak finkatu ziren eremuetan.

Abertzaletasuna aldaketa haien guztien arragoan goritu zen. Garaiko ideologia nazionalista gehienak bezala, Aranaren abertzaletasuna ere kontserbadorea eta arrazista izan zen nagusiki.¹ Luzaro gabe, haren printzipio teorikoak zehaztu ez ezik, mugimendu abertzalea taxutu zuen: bateko, batzokiak sortu zituen; besteko, aldizkari ugari argitaratu dibulgaziorako; eta, azkenik, alderdi politiko bat sortu zuen.

Arraza eta erlijioa dira Aranaren diskurtsoaren muina eta mamia. Izan ere, abertzaletasunaren helburu gorena euskal arraza (hots, euskal nazioa) jainkoarengana hurbiltzea zen, eta printzipio horrek mugimendu abertzalearen dimentsio guztiei eragin zien alde edo moldez (Apalategi 1985). Erlijioaren funtzio transbertsalaz haratago, bost nazio-osagai nabarmendu zituen Aranak: hala nola, arraza, hizkuntza, gobernu-era eta legeak, izaera eta ohiturak, eta nortasun historikoa. Arrazari eman zion Aranak toki gorena, eta gainerako nazio-osagaiak bigarren mailakotzat jo zituen.

Horrela, arian-arian, ideologia abertzaleak masa-mugimendua sortu zuen: sindikatu aktibo bat eta herriko sektore ezberdinak ordezkatzeko zituzten taldeak antolatu zituen EAJren

inguruan. Jean-Claude Larrondek dio abertzaletasunak *bere mundutxo*a eraiki zuela, espainiarren mundutik bereizi ahal izateko (Larronde 1977). Antonio Elorzak, bere aldetik, euskal jendartearen barruko «mikrogizartea» esaten dio antolamendu horri (Elorza 1978). Azkenik, Ludger Mees-ek dio EAJren orbitan antolatutako erakundeetako kidetzak eta sinboloen erabilerak «identifikazio- eta autoestimazio-sistema bat» sortzen zuela eta horrek abertzaleei industria-sistema kapitalistan integratzen lagundu ziela (Mees 1992).

Hizkuntza nazionalismoaren diskurtsoa

XX. mendearen erdialdea borborka zegoen eta jarduera biziko garaia izan zen Europan. Bigarren Mundu Gerrak ondorio kontraesankorrak izan zituen: klaseen arteko loturak sendotu egin ziren, eta hainbat estatutan nazio-sentimendua indartu; aldi berean, ordea, kapitalismoa versus sozialismoa blokeetan zatitu zuen mundua. Horrez gain, nazioen arteko elkartasunak, mugimendu sozialistekin batera, mugimendu antikolonial eraginkor eta arrakastatsua sorrarazi zuen.

Nazionalismoari dagokionez, bi ideia nabarmendu beharoko genituzke. Alde batetik, praktikan, nazien praktika basati eta izugarrikeriak tarteko, Europako diskurtso politikoek baztertu egin zituzten arrazan oinarritutako diskurtsoak. Arraza kontzeptua bateraezina zen garaiko demokrazia edo sozialismo kontzeptuekin, eta, hortaz, nazioarteko komunitatearen oniritzia jaso ahal izateko, mugimendu nazionalistak urrundu egin ziren ordura arteko diskurtsoetatik. Bestalde, orduantxe hartu zuen abiada koloniei lotutako eta metropoliaren kontrako mugimenduak.

Europan bezala Euskal Herrian ere aldaketa sozioekonomiko sakonak gertatu ziren industrializazio-prozesuaren eraginez, eta industriaren hedatzeak etorkin-oldea erakarri zuen. Tarte horretan Francoren erregimenak ate guztiak itxi zizkion Europari, eta errepresio politikoa eta ikara erabili

zituen oposizioa suntsitzeko; horrek asko mugatu zuen bu-
ruzagi abertzaleen jarduera.

Ingurumari horretan belaunaldi gazteek, euskararen eta eus-
kal nazioaren galerarekin larrituta, ez zuten begi onez ikusten

Nazio auzia eta
sozialismoa uztartu
zituen ETAk. Arrazan
ardaztutako diskurtsoa
baztertu, eta hasieratik
eman zion lehentasuna
euskara eta euskal
kultura suspertzeari

abertzale *zaharren* jarrera, eta,
ondorioz, abertzaletasun-ere-
du berria proposatu zuten.
Mugimendu antikolonialistak
eredu, nazio auzia eta sozialis-
moa uztartu zituen ETAk eta,
ezarian-ezarian, Aranaren dis-
kursotik urrundu zen. Arra-
zan ardaztutako diskurtsoa
baztertu, eta hasieratik beretik
eman zion lehentasuna euskara
eta euskal kultura suspertzea-

ri. Horrek euskararen balio sinbolikoa sendotu zuen herriko
hainbat sektoretan. Euskal nazioaren eta borroka abertzalea-
ren muina adierazteaz gain, euskarak euskal identitatearen
galera sentimendua sinbolizatzen zuen, baita errepresioari
kontra egiteko bulkada politikoa ere. Eta herri mugimen-
du horrek, borrokaren borrokaz, euskararen dimentsio par-
te-hartzailea indartu zuen: hartara, bada, euskara galdu zu-
ten herritarrak edo inoiz ikasteko aukerarik izan ez zutenak
ikastera mobilizatu zituen. Euskarak eta euskal kulturak inoiz
ez bezalako berpizkunde kulturala hezurramitu zuten 60ko
hamarkadan (Tejerina 1999).

Esparru sozialean, hasieran, humanismo kristauaren ikus-
pegiari eutsi bazion ere, luzaro gabe nazio eta auzi sozialak
lotu nahi zituen ETAk. Askapen integralaren ideia aldarrika-
tu zuen, eta sozialismoa klaserik gabeko jendarte batera edo
komunismora iristeko alde zuzeneko urrats gisa irudikatu
zuen. 60ko hamarkadaren amaieran marxismoaren eta auzi
nazionalaren arteko harremanean sakondu zuen. Bilakaera
hori garbi islatzen da ETAk immigrazioaz egin zuen interpre-
tazioan: hala, etorkinei *itxitako* Aranaren abertzaletasunetik

urrundu, eta nazio integratzailearen eredia aldeztu zuen (Shafir 1995). Garaiko mugimendu marxistek eraginda, euskalduntasunaren alboan Euskal Langile Herria definitu zuen nazioaren subjektu gisa.

Azkenik, mugimendu politiko gisa kolonialismoaren aurkako mugimenduak eta sozialismoa erreferentziatzat hartuta, berehala definitu zuen bere burua nazio askapenerako mugimendu iraultzaile gisa. ETAk, Hirugarren Munduko askapen mugimenduak begiz jota, kolonizatutako nazioen gerra iraultzailearen eredia bereganatu zuen kontraesan bikoitzari (nazio askapena eta askapen soziala) erantzun ahal izateko.

Zertan da aurreko diskurtsoa? Gainbeheraren arrazoiak

Hizkuntza euskal nazioaren oinarri bihurtzea onuragarria izan zen euskal nazionalismoarentzat, pizgarri berria izateaz gain, nazionalismo zaharrari irtenbidea aurkitu ziolako. Era horretara, Bigarren Mundu Gerraren ostean lekurik ez zuen arraza nazionalismoa hizkuntza nazionalismora lerratu zen, helburu politiko nagusi gisa sozialismoa zuelarik. Hizkuntzari emaniko garrantziak eta ezkererako joeraren gorakadak argi islatzen dute egoera berriaren filosofia. Hala eta guztiz ere, eta aldaketari aldaketa darionez, hainbat urtetan ondo funtzionatu zuen ereduak oztopo berriak aurkitu zituen denboraren joanean. Testuingurua aldatu ahala, izan ere, barrutik ere mugimendu desberdinak erne ziren. Bi fase bereiztuko ditugu.

Hizkuntzan oinarritutako diskurtsoaren lehen kontraesanak

Helburu politikoei bagagozkie, aldaketa erabakigarriak gertatu ziren urte gutxian, eta euskararen aldeko diskurtso horri asko eragin zioten. Alde batetik, Francoren heriotzaren ostean, hiru urteko epean, aurreko sistema politikoa itxuraldatu

egin zen Espainian, eta demokrazia liberal homologatuen bidean jarri zen Konstituzio berriaren onarpenarekin. Beste alde batetik, handik urte gutxira, Gerra Hotza deitutakoaren amaiera jazo zen. Dakigunez, 1980ko hamarkadaren amaieran, Sobietar Batasuna eta bere inguruan eraikitako egitura kolapsatu egin ziren. Egitura hura kapitalismoaren beste agerbide bat ote zen edo ez alde batera utzirik, kontakizunari begira, kapitalismoa garaitzat jo zuen diskurtso berria gailendu zen. Ezinbestean, bi gertakari horiek eragina izan zuten Euskal Herri sozialista eraikitzeke egitasmoan. Demokrazia kontzeptuak indarra hartu zuen testuinguru horretan; hala, eskuinak zein ezkerak onartua, denentzako eredu eta helburu bihurtu zen, bakoitzak bere izaera eta ñabardura berezia esleitzen bazion ere demokraziaren zentzuari. Demokraziarekin batera, bestalde, *bakezaletasunak* ere onarpen zabala erdietsi zuen; ildo horretan, gatazkak konpontzeko modua bide baketsuetan oinarritzearen garrantzia azpimarratu zen, negoziazioan batez ere (horrek gatazken kopurua jaitsi ez bazuen ere). Era horretara, sozialismoa lortzeko proposatzen zen bideetako bat, biolentziarena, indarra galduz joan zen.

Testuinguru horren eraginez, Hego Euskal Herriko marko politikoa ere joera berriari atxiki zitzaion: EAJ bihurtu zen EAeko alderdi nagusia, eta Nafarroa Garaian UPN eta PSN nagusitu ziren. Era horretara, 50-80ko hamarkadetan euskal nazionalismoaren lanketa teoriko nagusia ETak eta Ezker Abertzaleak jorratu bazuten ere, handik aurrera EAJren protagonismoa nabarmena izan zen, praktikari lotua gehienbat. Antzeko zerbait gertatu zen arlo sozialean ere, ezkerreko mugimenduek eraman baitzuten borrokaren lema aurreko hamarkadetan, baina eskuinak edo zentro-ezkerak hartu zuten protagonismoa hauteskundeen osteko gizarte-kudeaketan.

Horrek guztiak eragina izan zuen, jakina, abertzaletasuna ulertzeko moduan. Aldaketa garrantzitsuenetako bat abertzaletasunaren izaeran gertatu zen, hain zuzen, frankismoan erresistentzia nazionalismoa gailendu baitzen. Hartara, Espainiaren kontrako euskal erresistentziari buruz teorizatu

zuen euskal nazionalismoaren diskurtsoak, eta euskarak lortzen ez zuen ofizialtasuna, esaterako, zapalketaren sintoma bihurtu zen. Ondo bidean, autonomiaren mekanismoa abian ipintzeak halabeharrezko aldaketa ekarri behar zion aurreko diskurtsoari, eta horrek, jakina, eztabaida sortu zuen aurreko nazionalismo motaren bi adarretan: nazio izaerari zegokionez, batetik, eta helburu politikoari begira, bestetik.

Nazioaz den bezainbatean, haren ezaugarri nagusia zen hizkuntzaren auziaren inguruan ezinegona sortu zen. Ordu-ra arte, euskal nazionalismoaren adar biek lan eskerga egina zuten euskararen berreskuratze eta zabaltze lanean, eta, dena esate aldera, helburu politiko argiarekin, askotan. Horrek ospe soziala eman zion euskarari, eta baita euskal nazionalismoarekiko identifikazioa ere, askotan aipatu eta eztabaidatu denez. Egoera berri horretan autonomiari zerion boterea eskuraturik, hizkuntza politika berriak diseinatu ziren, eta instituzioen aldetik nolabaiteko babesak erakutsi ahala, euskararen aldeko borroka garrantzi politikoa galtzen hasi zen, eta, ondorioz, euskal nazioaren lotura nagusi gisa ere higitzen hasi zen euskalduntasuna. Horrek, ulertzekoa denez, ezinegona sortu zuen hizkuntzaren alde sutsuen mugitzen ziren kide abertzaleen artean. Ezker Abertzalearen inguruko sektorea aztoratu zen bereziki, eta oso kritikoa agertu zen EAJrekin eta haren hizkuntza politikarekiko. Sektore horrek batik bat koherentzia eskatzen zion euskal nazionalismoari, euskarari sinbolikoki aitortzen zitzaion lehentasuna ez baitzen ondoren islatzen praxi linguistiko errealean.

Helburu politikoei dagokienez, berriz, talka egin zuten aurretik zetozen helburu iraultzaileek eta instituzio sareak kudeatu behar zituzten politikek. Ezker Abertzalearen barruko iritzi-jarreretan, bereziki, tirabirak izan ziren: instituzioetan parte hartu ala ez, ETaren jarraipena, zer helbururekin, eta abar.

Aurreko guztiaren ondorioz, aktibismoa ulertzeko modua aldatzen hasi zen, eta, gainera, euskal nazionalismoak ordu-ra arte garatu zuen diskurtsoari lehiakide bat sortu zitzaion.

Izan ere, Ezker Abertzaleak eta ETak sinbolikoki hizkuntzan oinarritutako nazioa proposatu zuten ordura arte, sozialismoa eta iraultza helburu zituena. EAJk bat egin zuen proposamenaren lehen zatiarekin, baina ez bigarrenarekin, helburu iraultzaileetatik oso urrun zegoen praktika politikoa garatu baitzuen instituzioetan. EAJren hizkuntza eta kultura politikek ere gorago aipatu dugun kritika jaso zuten, euskarari eman beharreko lehentasuna ez bermatzea, alegia.

Demokrazia kontzeptuaren goranzko erabilera euskal nazionalismoaren diskurtsoan

XXI. mende honetan, areagotu egin da diskurtsoaren aldaketa. Oro har, nabarmena da demokrazia kontzeptuari mendebaldean eman zaion garrantzia eta, neurri berebean, gero eta txikiagoa da ideia eta praktika iraultzaileari ematen zaiona. Euskal nazionalismoak ere demokrazia kontzeptuan sakondu du azken urteotan, eta ezinbesteko ardatza bihurtu da bere diskurtsoan.

Ez dugu esan nahi, jakina, euskal nazionalismoak demokrazia orain aurkitu duenik. Gogora dezagun, adibidez, EAJ Nazioarteko Kristau Demokraziaren fundatzaileetako bat izan

XXI. mendean areagotu egin da diskurtsoaren aldaketa. Euskal nazionalismoak ere demokrazia kontzeptuan sakondu du azkeneko urteotan, eta ezinbesteko ardatza da bere diskurtsoan

zela 1947an, eta aurretik zuen kristau osagaiari demokrazia-rena gaineratu ziola bertan. Zenbait arazo zela-eta (PPren presioa gehienbat), 2000n utzi egin zuen taldea; baina bere diskurtsoak balio horiek aldeztu jarraitu du, eta, gaur egun, «alderdi demokratiko, anitz, parte hartzailea, ez konfesionala eta humanista» gisa aurkezten du bere burua (haien webgunetik jaso, ikus www.eaj-pnv.eus/nortzuk-garen).

Bestalde, 2007an onartu zuen txosten politikoan «euskal gizartearen aniztasuna» defendatzen du EAJk, eta adierazten du «nazio bat bide demokratikoen bitartez soilik eraiki daitekeela»; baztertu egiten ditu, oro bat, «euskal gizartearen borondate demokratiko librea lortzeko oztopoak edota mugak» (www.eaj-pnv.eus/eu/adjuntos-agiriak/7127/pdf/txosten-politikoa-2007).

Ezker Abertzalearen bideari bagagozkio, esan genezake malkartsuagoa izan dela nolabait. 50eko hamarkadan eta 60koaren lehen urteetan, Ekinek aurretik egin bezala, ETAk «euskal demokraziaz»² hitz egiten zuen eta, bere diskurtsoa garatu ahala, «egiazko demokrazia»³ aldarrikatu zuen, beti ere demokrazia liberalaren ildoari uko eginez. Proiektu sozialistari begiratu zion eta, bide hori egiteko, biolentzia iraultzaileaz teorizatu eta praktikan jarri zuen. 1976ko KAS Alternatiban adierazten zenez, proposamenaren helburuetako bat askatasun demokratikoak ezartzea zen, hartara, Euskal Herria bere etorkizuna erabakitzeke gai izan zedin. Demokraziari eginiko keinuak errepikatu eta areagotu egin ziren hurrengo urteetan. 1995ean KAS Alternatiba berrituarri *Alternatiba Demokratikoa* izena ipini zion ETAk, eta aurreko proposamenean esandakoa mantendu zuen, hots, gutxieneko eskubide demokratikoak negoziatu behar zirela, jendeak modu librean erabaki zezan, eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuen eskubide demokratiko gisa.

Antzeko hitzak erabili zituen Ezker Abertzaleak hurrengo urteetan ere: adibide bat jartze aldera, *Zutik Euskal Herria* (2010) agiria hauta liteke. Borroka armatuari uko egin zion bertan (2011n ETAk berretsi egin zuen agiria); honakoa zioen dokumentuak:

Euskal Herria. Euskal herritarrak. Euskal gizon-emakumeak. Euskal jendarteak. Horiek ditugu erreferentzia bakarra egitasmo politikoa marrazteko orduan. Herriari eta herritarrei begiratzeke, haien gogo eta nahiak iparrorratz izateko eta Euskal Herriaren borondatea errespetatzeko nahiz errespetarazteko konpromisoa berresten du Ezker Abertzaleak.

Nazioari buruzko diskurtso berria euskal nazionalismoan?

Demokrazia kontzeptuak erabateko garrantzia hartu duela ukaezina bada ere, ez dirudi itxura batean nazioaren agerbide nagusia hizkuntzatik aldendu denik; izan ere, neurri handi batean, euskarak zurkaizten baitu oraindik ere euskal nazioa. Ez da ikusten arrakalarik horretan. Oraingo behintzat alderdi abertzale nagusi bien txosten politikoek hala erakusten dute. EAJrentzat, euskara da «gure nortasunaren ezaugarri garrantzitsuena», «definitzen gaituen hizkuntza [...] eta munduko kultura-aniztasunean berezko izaera ematen diguna» (2007ko txosten politikoa). Eta oso antzekoa da Sorturen jarrera ere: «euskara gure herriaren nortasun ikur nagusia» dela esaten du, eta, apur bat geroago, «euskara da Euskal Herriaren nazio hizkuntza» (2013ko txosten politikoa, <http://sortu.eus/dok/1eu.pdf>).

Itxura batean, beraz, sortzen ari den hirugarren diskurtsoan, oraindik ere, hizkuntzak egiten gaitu herri, eta demokrazian oinarritutako herria proposatzen du; baina, orain, badirudi diskurtso horrek beste arazo batzuekin egiten duela topo. Lau ezaugarri garrantzitsu azpimarratuko ditugu.

1. Ideia sendoen amaiera. Gizarte *likidoan* bizi gara, Zygmunt Baumanek landutako kontzeptuaren argitan. Sendoa eta irauteko pentsatua zegoenak ez du lekurik orain eta, aldiz, iragankortasuna nagusitzen da: sistema kapitalistak merkatuak liberalizatzen ditu, eta lan malgutasunak eta prekarieta-teak oztopatu egiten dute etorkizuna irudikatzea edo berori planifikatzea; Ongizate Estatuak islatzen zuen elkartasunerako azken saiakera esanguratsua maldan behera doa; gure arteko loturak malgutzen ari dira, eta maitasunak berak konpromisoaren indarra galtzen du. Oro har, iragankortasunak markaturiko ziurgabetasun aroan bizi gara (Bauman 2002).

Nazionalismoa eta hari lotutako nazio identitatea ideia sendoen aroan sortuak dira. Nazioa zertan datzan eta zein den haren ezaugarri nagusia, batik bat, ideia sendoen aroko

galderak dira, orain indarra galtzen ari direnak (baina, erne, desagertu gabe), gazteenen kasuan batez ere. Horren ordeztan, Michael Billig-ek landutako nazionalismo hutsalaren (*banal nationalism*) bidetik jotzen dugu gaur (Billig 1995), egoera horri ondo egokitzen zaio eta. Sinbologia bera *hutsaldu* egiten da: aurreko garaietan sinboloa konpromiso politikoarekin lotzen zen estu-estu; orain, aldiz, joera hutsal horri jarraiki, sinboloak etengabe eta modu errepikakorrean ikusten ditugu, neurri batean konpromiso zentzua gal-

duta. Gure nazio izaeraren oinarrian gaur berdin-berdin, eta maila berean, aurkitzen ditugu euskara, kirol selekzioen bat, zazpi herrialdeko mapa, bandera bat, konpromiso politikoa, kamiseta bat edo musika talde baten kanta iradokigarria.

Sinbologia hori, noski, ez dagokio oso politizatuta dagoen jendarte bati. Izan ere, euskal nazionalismoak nahi ez badu ere, gaur egungo ezaugarri garrantzitsua despolitizazioa da, eta horri loturik dator konpromisoaren eta betebeharren galera. Gizarte honetako gaurko subjektua kontsumitzailea da, eskubideak aldarrikatzen dituena, baina ustez betebeharririk ez daukana.

Idea sendoen amaierak, bestalde, orain arte muga zurru- nek bereizitako hiru joera politiko nagusien arteko hurbilketak ekarri du, eta bakoitzak bere helburuak eta arretaguneak ezartzen ditu. Ildo errepublikazaleaz, liberalaz eta komunitatezaleaz mintzo gara, jarraian ikusiko dugun bezala (Zabalo, Mateos 2012; Sudupe 1998).

2. Ildo errepublikazaleak jendearen parte hartzea eskatzen du. Kontua ez da *zer* lortu nahi den, horrekin batera *zelan* lortu nahi den ere lehen planora ekartzen du, pentsatzen

Nazioa zertan datzan eta zein den haren ezaugarri nagusia, batik bat, ideia sendoen aroko galderak dira, orain indarra galtzen ari direnak (baina, erne, desagertu gabe), gazteenen kasuan batez ere

baitu modu demokratiko eta parte hartzailean lortzen ez denak ez duela benetako baliorik. Subjektu parte-hartzailea eta esku-hartzailea aldarrikatzen du. Hori abiapuntuan jarrita, helburu nagusia ez da honezkero *emaitza* lortzea. Aitzitik, botere-harremanak direnak direla, egitasmo guztiak plazan lehiatu behar direla uste du, eta egitasmo nazionalak ez dutela *de facto* inor baztertu behar. Hortaz, sortzen dena sortzen dela, proiektu guztiak izan daitezke zilegi *nazio demokratikoaren* eraikuntzan (beste analisi bat beharko litzateke proiektu ezberdinen arteko botere harremanak zertan diren azaltzeko).

Egungo demokrazia-eredua praxian ordezkapenean oinarritutako demokrazia izan arren, gero eta sektore sozial gehiagok salatzen du ordezkapen hori ez dela nahikoa, eta, zentzu horretan, Eskozia eta Katalunia ere du bihurtu dira. Aipa dezagun hemen Euskal Herri mailan Euskal Estatuaz berriki egin den inkesta batek (Zabalo, Larrinaga, Iraola *et al.* 2016) mahai gainean jarri duen datua: hartara, elkarrizketatuen %66,8k esan du Euskal Herriko herritarrek eskubidea eduki beharko luketela erreferendum baten bidez Euskal Estatuaz galdetuak izateko.

3. Ildo liberalak norbanakoaren eskubideak bermatu nahi ditu, eta hortxe jartzen du arretagunea. Horretarako, tolerantzia hobesten du, denon eskubideak bermatuak izan daitezen, bai kolektiboak eta bai indibidualak. Aurreko eruedetan, aldiz, eskubide kolektiboak ematen zitzairen lehentasuna: euskal nazioaren nagusitasuna aurretik ezartzen zen, garrantzitsuena *emaitza* baitzen. Gogora dezagun: lehendabiziko ereduak kristautasunaren balioetan oinarritutako Euskal Herria eta euskal arraza lotu nahi zituen, biztanle batzuentzat *euskal arrazakoa* izatea eskuratzeko arren; bigarren ereduak sozialismoaren balioetan oinarritutako Euskal Herria eta euskalduntasuna lotu nahi zituen, biztanle askok euskararik ez zekiten arren. Egungo diskurtso hegemonikoak, demokrazian oinarritutako Euskal Herria proposatzerakoan, itxura batean, badirudi euskal nazioa euskalduntasunarekin lotu nahi duela (ikusteko dago etorkizun hurbilean hala izango ote den). Baina *subjektu*

demokratikoa jarri du diskurtso horrek nazioaren ardatzean, hots, eskubide indibidualak *de facto* aitortzen zaizkion subjektua. Gehiengo-gutxiengo eskemaren joko zelaia onartu du, eta beste aukera batzuk onetsi ditu; besteak beste, Euskal Herri plurinazionala onartzeko prest agertu da.

4. Ildo komunitatezaleak, berriz, identitatean jartzen du arretagunea, uste baitu norbanakoaren eskubideez gain, babilio, oroimen eta identitate kolektiboa partekatzen ditugula. Euskal nazionalismoaren historian joera hau nagusitu da eta hemendik dator, hain zuzen, euskarari ematen zaion lehentasuna. Hala ere, aurretik ere esan dugu nolako kontraesanak sortu izan diren identitateari dagozkion helburu ideal horien eta praktika politikoaren artean; gaur ere ikusten dugu euskal nortasunari buruzko diskurtsoaren eta praktika soziopolitiko eta kulturalaren arteko tirabira: zerk egiten gaitu herri, eta zer-nolako herria nahi dugu? Aranaren diskurtsoan arrazak egiten gintuen herri, eta herri kristaua proposatzen zuen, baina gero euskal arrazadun guztiek ez zuten kristautasuna modu berean bizi, eta Euskal Herriko kristau guztiak ez ziren euskal arrazakoak. ETAren diskurtsoan hizkuntzak egiten gintuen herri, eta herri sozialista proposatzen zuen, baina, orduan ere, ez zetozen bat asmoa eta praxia.

Muga zurrinak ezartzen zituzten diskurtsoak apalduz doazela ikusten ari gara eta, neurri batean, euskal nazionalismoaren egungo zalantzak hortik datoz. Joera honek demokrazia parte hartzailea aldarrikatzen du, eskubide kolektibo eta indibidualak lotu eta errespetatu nahi ditu, eta, orobat, komunitate zentzua indartu nahi du. Diskurtsoa eguneratu behar da ikuspuntu honen arabera, baina zalantza ugari ikusten dugu eragileen jarreretan:

- Batetik, EAJri dagokionez, esan genezake eroso ibili dela azken urteotako testuinguruan; izan ere, urteak dira *demokraziaren* aldarria bere egin zuela. Alderdi abertzale hegemonikoak demokrazia kontzeptua beren diskurtsoen erdigunean jartzen hasi direnean, EAJren bidea indartzen ari zela interpreta zitekeen. Baina, egari zor, gaur egun gero

eta gehiago proposatzen den demokrazia kontzeptua ez da liberalismoaren edo ordezkapenean oinarritutako demokraziaren baliokidea. Barrura begira kudeatzaile eraginkor gisa eta kanpora begira ordezkari gisa agertu nahi zuen EAJk ordezkari sistema horretan, eta, itxuraz behintzat, eroso sentitzen zen eszenatoki horretan. Egun indarra hartzen ari den demokrazia kontzeptuak, berriz, parte hartzaile izan nahi du, eta hainbat gaitan herri erreferendumak egitea eskatzen du; esan gabe doa Euskal Herriaren etorkizun politikoa erabakitzeko eremuan ere kontsulta egitea eskatzen duela. Egoera horretan bere jarrera egokitu behar izan du EAJk eta, gainera, hainbat sektorek presio egiten dio alderdi abertzale gisa defendatu beharko lukeen independentziari dagokionez aktiboago ager dadin. Aldeko edo kontrako jarrera argia hartzeak, ordea, talka egin lezake EAJk duen izaera hegemoniko eta orobiltzailearekin.

- Ezker Abertzaleari dagokionez, esan genezake bere diskurtsoaren erdigunean modu argi eta erabatekoan demokrazia kontzeptua jartzeko prozesua eroso eta lasai egiten ari zela itxuraz, azken urteotako bere kontrako erasoak nolabait gainditu eta mugimenduaren barruko hainbat zalantza eta tirabira konpontzen ari zela ulertuta. Baina demokrazia kontzeptuak era eta alde guztietako inplikazioak ditu, eta, maila horretan, hainbat zailtasuni aurre egin behar izan dio Ezker Abertzaleak, gogoko ez duen demokrazia liberala baita egungo eszenatokia eta, gaur-gaurkoz, joko-zelai horretan jokatzera erabaki baitu. Jakina da *demokrazia* ez dela gehiengo baten nahia betetzearen sinonimo hutsa, baina, nolana ere, ordezkapenean oinarritutako sisteman gehiengoaren iritzia lehenesten da, dena delako erabakia desiragarria izango litzatekeen norabidean joan ez arren.
- Euskalgintzako mugimendua ere eroso zebilen neurri batean, euskal nazioaren *funtsaren* (euskararen) nolabaiteko kudeatzaile gisa. Gorago aipatu dugun bezala, maila simbolikoan ez da aldaketa handirik gertatu azken urteotan diskurtso abertzalean; euskarari aitortzen zaio oraindik

ere, neurri handi batean, nazioaren funtsa izatea. Baina helburu politikoa demokrazia-ereduan sakontzea den neurrian, euskararen ezinbestekotasuna *erlatibizatu* egin du diskurtso abertzaleak, herritar guztien eskubideen izenean. Demokrazia-sistema bateko administrazioak euskara nazio hizkuntza izendatuta ere, praxian zer neurri har litzake herritar guztiek euskara ikas eta erabil dezaten? Hori baita, azken batean, euskalgintzaren helburua.

- Azkenik, euskal nazionalismotik at egon arren, gainerako alderdi eta eragileei ere eragiten die egoera honek. Hemen ere zalantzak dira nagusi: zein neurritan inplikatu beharko lukete gai horretan? Orain arteko egoeran jarrera erosoan izan dute eremu horretako alderdiek; izan ere, nahikoa zuten euskal nazionalismoari *baztertzaila* deitzearekin eta *demokratikoa* ez zela leporatzearekin. Baina demokrazia parte-hartzailea kontzeptu berrian herritar orori egiten zaio dei erabakiak hartzeko, eta, hortaz, alderdi horiek gero eta behartuago daude erabakitzeko eskubidea oinarrizko eskubide gisa onartzen duten ala ez argitzera (Podemos alderdiak gaur-gaurkoz onartzen du, ez ordea PSOE eta PP alderdi klasikoeak).

Hizkuntzatik lurraldera? Euskal nazionalismoa etorkizunean

Nazionalismoek, gainerako eragile eta mugimendu politiko-koen antzera, testuinguru orokorrera egokitutako diskurtsoak erabiltzen dituzte. Horrela, Aranaren proposamena XIX. mendearen amaieran agertu zen, nazionalismo kontserbadoreen gorakadaren testuinguruan, erlijioaren galerak kezka sortzen zuen giroan eta arraza kontzeptua gizartean erabat errotuta zegoenean. Halabeharrez, lehenengo euskal nazionalismoa kontserbadorea izan zen: nazioa arraza kontzeptuan oinarritu zuen eta, gainera, helburu politikoa erlijioso garbia izan zuen. Urte batzuk geroago, XX. mendearen erdi aldera, testuingurua goitik behera aldatu zen, ezkerreko

nazionalismoak ugaritu egin ziren teoria sozialista, antiko-lonialista eta iraultzaileen giroan. Horrela sortu zen euskal nazionalismoaren bigarren teorizazioa: ezkerrekoa, iraultzailea, nazioa euskalduntasunean oinarritzen zuena (arraza kontzeptua baztertzaileriotzen zuelako) eta helburu politiko sozialista argia zuena. Teorizazio bietan, jakina, politikoki ildo hegemonikoarekin bat ez zetozen proposamenak ere izan dira (nazionalismo liberalak eta, ondoren, EAE-ANV-ren proposamena lehenengo aldian; eta EAJren itzal handiko joera bigarreanean), baina, edonola ere, teorizazio mailan bazterreko joera izaten jarraitu dute.

Beste mende erdi bat pasatuta, XXI.aren hasieran, beste teorizazio baterako trantsizio fasean egon gitezke, mundu mailan bezala Euskal Herrian ere testuingurua aldatu egin den honetan. Europan, oro har, bi norabidetan mugitzen ari dira mugimendu nazionalistak. Alde batetik, munduko beste leku batzuetan bezala, nazionalismo eskuindar eta xenofoboa ari da indartzen, migrazio mugimenduek norberaren herrian sor lezaketen desoreka ekonomiko (gizarte laguntzak dire-

la eta, batez ere), etniko edo kulturalaren aitzakia tarteko. Baina, bestetik, demokrazia kontzeptuan sakondu eta eredu parte-hartzaileagoen alde egin duten arrakasta handiko formulazio aurrerazaleak ugaritu dira azken urteotan (Quebec, Eskozia eta Katalunian, esaterako). Gure ustez, euskal nazionalismoa bigarren ildo

Euskal nazionalismoaren
diskurtso berriak
demokrazia kontzeptua
du ardatz, eta herritarren
borondatea eta
erabakitze ahalmena
aldarrikatzen ditu

horretan sartuko litzateke bete-betean; izan ere, abertzaletasunean ezkerreko edo demokrazia liberaleko joerak nagusitu dira azkeneko mende erdian, eta ez dirudi, gaur-gaurkoz, eskuin muturreko euskal nazionalismorik sor daitekeenik.

Egoera eta testuinguru horretan sortzen ari da, beraz, euskal nazionalismoaren diskurtso berria. Demokrazia kontzeptua

du ardatz, eta herritarren borondatea eta erabakitze ahalmena aldarrikatzen ditu. Ez da formulazio berri-berria ere, baina azken urteotan indartzen ari da, ETAre su-etenaren ondoren sortutako egoera politiko berriak ahalbideturik, beharbada. Trantsizio garaian dago, edonola ere, eraikitze fasean, alegia, eta ez dago guztiz formulaturik. Ez dago erabat definiturik, baina, egoera berrira egokitu ahala, argi dago orain artekoekin konparatuta bestelakoa izango dela.

Oraingoz helburu politikoa (*nazio demokratikoa*) ari da finkatzen, baina zehaztu gabe dago non ardaztuko duen nazioaren funtsa. Arrazaren ostean euskalduntasuna jarri zuen nazioaren oinarrian diskurtso abertzaleak, eta, funtsean, esanenezake teorikoki ardatza ez dela hortik mugitu. Baina orain arte hain sendoa zen ideia horretan arrakalak ageri dira. Alde batetik, nazio identitateari berari buruzkoak, hainbat sektorentzat gaiak ez duelako garrantzirik gaur egun; eta, bestalde, oraingo pentsaerak naziotasuna elementu batean baino gehiagotan oinarritzen duelako. Eta, bestetik, zalantza politikoak, alegia, eraginkortasunari dagozkionak. Izan ere, euskal herritar gehienek erabiltzen ez duten hizkuntza bat naziotasunaren oinarrian jartzeak kontraesanak sortzen dizkio nazio egitasmoa demokrazia kontzeptuan oinarritu nahi duen sektoreari.

Azken horien artean, hainbaten ustez, lurralde kontzeptua hobeto egokitzen zaio *a priori* nazio proiektua demokrazian oinarritzen duen diskurtsoari, lurraldearen formulazioak Euskal Herrian bizi diren herritar guztiak hartzen baititu euskal nazioko kide. Baina estatua duen nazionalismoarentzat egokia izan litekeen formulazioa (Espainian bizi diren guztiak espainiar herritarrak dira, Frantzian bizi diren guztiak frantziar herritarrak, eta abar) ez da hain eraginkorra, ezinezkoa ere beharbada, askoz zehaztasun gutxiago duen eta sentimendu eta borondate esplizituan gehiago oinarritzen den estaturik gabeko nazio kontzeptuan. Nola kudeatu genezake euskal lurraldean bizi, baina espainiar edo frantziar sentitzen direnen auzia, herritar guztiak euskal nazioko

kidetzat hartuko bagenitu? Onargarria izan ote liteke euskal *herritar* eta euskal *naziokide* kontzeptuak parekatzea?

Baztertua eta gutxiagotua izan den hizkuntza-kultura bat nazioaren oinarrian jartzeak kontraesanak sortzen dizkio demokrazia kontzeptua eta norbanakoaren eskubideak lehenesten dituen eta estatu-egiturarik ez duen nazionalismo bati. Aurreko bi formulazioetan ez zen horrelako kontraesan nabarmenik gertatzen, helburu gorenari ematen baitzitzaion lehentasuna. Demokrazia kontzeptua erdigunean jartzeak, ordea, naziokideak batuko dituen aterki bat eskatzen du. Historian edo memoria kolektiboan jar liteke indarra: Euskal Herrian badira hori aldarrikatzen duten sektoreak, euskal nazioaren oinarria, nagusiki, iraganaren (esaterako, foru-sistemaren edo Nafarroako erreinuaren) ondarean ikusten dutenak. Herritar guztiak historia bera partekatu izana izango litzateke nazioaren funtsa. Aipatu dugun bezala, lurraldearen garrantzia nabarmentzea izan liteke beste aukera bat, eta, orduan, lurralde berean bizitzearen kontzientzia izango litzateke nazioaren funtsa. Beste aukera bat ere aurreikusi genezake: hau da, demokrazia kontzeptuan ardaztutako formulazioak nazio batentzat baino gehiagorentzat balio izatea. Diskurtso horren arabera, Euskal Herrian bizi diren herritar guztiak partekatuko lukete lurraldea, baina lurralde horretan nazio bat baino gehiago onartuko litzateke, hots, *nazio bat = proiektu politiko eta kultural bat* eskema apurtuta.

Ibilbide luze baten ostean, euskal nazionalismoa bere abiapuntuaren kontrako muturrean dagoela esan genezake. Izan ere, hasiera batean nazioa arrazan oinarritu zuen; hots, formulazio esentzialista eta baztertzailea egin zuela esan genezake, arraza ezaugarri aldaezina baita eta, hortaz, euskal arrazakoak ez ziren herritarrak euskal naziotik kanpo uzten baitzitu. Ondoren, hizkuntzan oinarritu zuen nazioa diskurtso abertzaleak; formulazio baztertzailea hori ere, neurri batean, *kanpokoarekiko*: euskaldunak ez diren herritarrak euskal naziotik kanpo uzten dituelako teoriarik; baina ez da formulazio itxia, izan ere, edonork ikas eta erabil dezake hizkuntza bat

(estatu-egitura duten nazionalismoetan, oro har, gertatzen eta onartzen den fenomeno). Eta *barrura* begira bateratzailea dela esan genezake, bi estatu eta hizkuntza-kulturatan zatiturik dauden euskaldunak batzen dituelako. Orain, aipatu bezala, diskurtsoaren erdigunean demokrazia eta norbanakoaren eskubideak jartzen dituen formulazioa ari da nagusitzen, lurraldea eta borondatea oinarrian dituen, eta herritar guztien-gana heldu nahi duena. Baina, jakina da maila indibidualeko eskubide-aitorpenak ez diela estatu-egiturarik gabeko nazio-ko kideei bere burua garatzeko eskubiderik bermatzen; hala, gehiengoan eta gutxiengoan arteko sokatiran parte hartzen duten botere-harremanek gutxiengoak *baztertzen* dituzte.

Honenbestez, gurea estaturik gabeko nazio bat den heinean, tentuz eta zorrotz aztertu behar genuke, gure iritziz, helburu *zintzo* hori aldarrikatzen duen diskurtsoa: beste auzi batzuen artean, ondo ikertu beharko genuke formulazio demokratikoak eta errepublikazaleak, euren eskura dituzten baliabideekin, nola kudeatu beharko lituzketen, oro har, Euskal Herriko nazio sentimendu desberdinak eta euskal nazioaren kasuan, halabeharrez, hizkuntza eta kultura minorizatu bateko herritarren eskubideak. Oroz gain, inor bigarren mailako herritar izan eta senti ez dadin. 🌸

Oharrak

1. Sabino Aranaren ideologiaren izaera arrazista testuinguruan ulertzeko, ikus Douglass (2004).
2. Hordago (1979a: 68). Ikus, era berean, ETAREN 'La democracia y los derechos del hombre' koaderno (ibidem: 122-128).
3. Hordago (1979b: 196). Lehen urteetako pertsonalismo kristauaren ikuspegitik urrundu ahala, bigarren maila batean, sozial demokraziaren korrontera hurbildu zen ETA. Sozialismoaren inguruko eztabaida sortu zen orduan etakideen artean eta sozialismoaren barruko joerak aztertzen hasi zen. Ikus 'Análisis del socialismo', *Zutik* 6, 1962 (Hordago 1979a: 281-282).

Bibliografia

- Apalategi, Jokin (1985): *Los vascos, de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*. Donostia: Txertoa.
- Bauman, Zigmunt (2002): *Modernidad líquida*. Mexiko: FCE.
- Billig, Michael (1995): *Banal Nationalism*. Londres: Sage.
- Douglass, William A. (2004): 'Sabino's Sin. Racism and the Founding of Basque Nationalism', in Daniele Conversi (arg.): *Ethnonationalism in the Contemporary World. Walker Connor and the Study of Nationalism*. Londres: Routledge. 95-112.
- Elorza, Antonio (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco. 1876-1937. (De los «euskaros» a Jagi Jagi)*. Donostia: L. Haranburu.
- Hordago (1979a): *Documentos Y* (2. liburukia). Donostia: Lur.
- (1979b): *Documentos Y* (3. liburukia). Donostia: Lur.
- Larronde, Jean-Claude (1977): *El nacionalismo vasco: su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. Donostia: Txertoa.
- Mees, Ludger (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Perez-Agote, Alfonso (1986): *La reproducción del nacionalismo: el caso vasco*. Madril: Siglo XXI.
- Shafir, Gershon (1995): *Immigrants and Nationalists. Ethnic Conflict and Accommodation in Catalonia, the Basque Country, Latvia, and Estonia*. Albany: State University of New York Press.
- Sudupe, Jon (1998): *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak*. Bilbo: Euskaltzaindia, BBK.
- Tejerina, Benjamin (1999): 'El poder de los símbolos. Identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el País Vasco'. *REIS* 88, 75-105.
- Van Dijk, Teun (1998): *Ideología. Una aproximación multidisciplinaria*. Bartzelona: Gedisa.
- Zabalo, Julen; Larrinaga, Ane; Iraola, Iker *et al.* (2016): *Euskal Estatua irudikatzen. Euskal Estatuaren aurreko iritzia eta jarrerak Euskal Herrian. Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa*. Bilbo: Ipar Hegoa Fundazioa, Parte Hartuz Ikerketa Taldea.
- Zabalo, Julen; Mateos, Txoli (2012): 'Estatuaz, herritartasunaz eta nazio identitateaz', in *Euskal Estatuari bidea zabaltzen: herritartasuna eta kultura*. Bilbo: Ipar Hegoa, UEU. 13-25.

Autogobernuaren teoria eta praktikari buruzko hausnarketa

Iñaki Lasagabaster

UPV/EHUko Zuzenbide Administratiboko katedraduna

Artikulu honek autogobernuaren garapena aztertze-ko funtsezko hiru alderdi jorratuko ditu. Lehenik, autogobernuari eusten dioten printzipioak aztertuko dira: hala nola, forutasuna, autodeterminazio eskubidea, erabakitze eskubidea, estatuaren aintzatespena eta estatuaren kategoria juridikoari buruzko zenbait erreferentzia.

Ondoren, ibilbide historiko labur bat egingo du, egun gauden egoerara iritsi arte. Funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoaren antolakuntzaren garapen politikoa aztertuko du, Nafarroari buruzko aipamen labur bat ere eginez, eta baita Ipar Euskal Herriari buruz ere, duela gutxi erakunde komun bat eratu baitu, lurralde guztiak batzen dituen Euskal Elkargoa.

Azkenik, EA Eren ezaugarritze juridikoa jorratuko du testuak, alderdi batzuetan zalantzarik gabe Nafarroara heda daitkeena. Eskumenen eboluzioa zein izan den analizatuko du gero, garapen autonomikoan aurrerapenik zergatik ez dagoen eta geldialdi hori noiztik datorren; amaitzeko, autogobernu sistemaren gaur egungo egoera aztertuko du.

Autogobernuaren printzipioak

Funtsezko kontzeptuei dagokienez, has gaitezen lehenik hauxe zehaztuz: autogobernuaz hitz egiten denean, neurri batean,

estatuaz hitz egiten da, botere politikoaz. Botere politikoa hiru auzi nagusiren inguruan egituratzen da: lehenik, biztanleria, boterearen eraginpean dauden hiritarrak; bigarrenik, lurraldea, non biztanle horiek bizi diren; eta, hirugarrenik, lurralde horretan biztanle horien gain eragiten duen boterea.

Estatuaren ideia horri buruz hainbat ñabardura egin ahal izango lirateke; izan ere, ez da gauza bera boterea teorikoki edo errealki edukitzea. Jakina da Espainiako estatuak baduela aipatutako botere hori, baina, hala eta guztiz ere, ikuspuntu ekonomikotik baldintzatuta dagoen estatua da.

Autogobernuak hiru osagai horiekin du zerikusia. Baina botere hori, hala ere, gaur egun, izatezko hainbat auzi eta egoeraren menpe dago; hau da, finantza-botere faktikoek estatuen independentzia baldintzatzen dute. Eta hori horrela da. Dena dela, ez dugu horregatik pentsatu behar estatua beharrezkoa ez denik. Adibide bat ematearren, Euskadiko esperientzia sindikalean oso argi ikusten da hori: Euskal Autonomia Erkidegoa lan esparruan berezko eta erabateko eskumenez hornitutako estatu bat izango balitz, ez litzateke ibili behariko Madrilgo negoziaketa kolektiboan dagoen erregulazioa ezaba dadin errebindikatzen, hemendik bertatik arautu ahal izango bailitzateke. Zalantzarik gabe, beraz, hemen botererik ez baldin badaukagu, greba eskubidea izango duen lege bat onar daitekeen arren, oso gutxirako balio ahal izango du, hori egikaritzeko botererik ez baita edukiko. Teorikoki onartzen zaigunetik abiatuta, oso fruitu murrizta lor dezakegu errealki. Hori egia da. Baina egia da, orobat, aurrekoa ere: alegia, Euskal Autonomia Erkidegoa estatu bat izango balitz eta independentea izango balitz, edota lan esparruan erabakitzeke ahalmen eksklusiboa edukiko balu, ez litzateke beharrezkoa izango Madrilen sortzen diren erregulazioak ezabatzeko borrokan aritzea, zeinek Euskal Autonomia Erkidegoan lan harremanen esparru autonomo bat eratzea eragozten duten.

Horregatik da, izan ere, hain garrantzitsua botere hori, baina honakoa ahanzi gabe: formalki botere hori eduki arren, errealtatean taktikoki baldintzatuta egon liteke. Horixe da,

hain zuzen ere, demokrazia guztien arazoa, Europaren arazoa eta globalizazioaren arazoa... Baina oso esparru zabala da hori, eta honakoan ez dugu horretan sakontzeko lekurik.

Botere politikoaren hiru osagai horiek azpimarratu behar dira. Izan ere, osagai horiek udal batetik estatu bateraino esplika daitezke; baina, artikulatu honek estatuaren ideien inguruan aztertu nahi dugu, erakunde horrek hiritargo eta lurralde eremu jakin baten gaineko boterea baitu. Botere hori errebindikatzeko, garaian garaian hainbat lanabes teoriko erabili izan dira Euskal Herrian. Kasu batzuetan, gainera, lanabes teoriko horiek batera erabili izan dira. Lehenengo lanabes teorikoa forutasuna izan zen. Gero, forutasunak zentzu handirik ez duela argudiatu izan da, eta Nafarroako erresuma errebindikatu behar dela.

Botere politikoa hiru auzi nagusiren inguruan egituratzen da: biztanleria, lurraldea, eta lurralde horretan pertsona horien gain eragiten duen boterea

Forutasuna, historia, autodeterminazio eskubidea, erabakitze eskubidea

Forutasuna

Egungo planteamendu politikoetan historiak duen aparteko garrantziaz hitz egin genezake; baina, horien indarraz gaindi, forutasuna beti errebindikatu eta aldarrikatu da. Franco diktadorea hil ondoren, 1976an, foruen galeraren urteurrenean, subiranotasunaren berreskurapen modura errebindikatu zen forutasuna, zera pentsatuz: forutasuna eskatuz gero berezko egitura politiko bat eraikitze eskubidea eduki zitekeela, edo estatuari harekin eduki nahi izango litzatekeen erlazioa planteatu ahal izango litzaikeela.

Forutasunaren ideia hori, dena dela, ez dator bat XIX. mendeko forutasunaren ideiarekin eta gero 1978ko Konstituzioan

planteatu zenarekin. Zergatik? XIX. mendean euskal probintzien foruak monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe aintzatesten zirela esaten zelako. Horrenbestez, 1978ko Konstituzioan foru lurraldeen eskubide historikoak aintzatesten dituen xedapen gehigarria onartzen denean, hori ez zen inola ere nahikoa foruak –hau da, botere subiranoa– aintzatesi behar zirela defendatzen zuen forutasun ideia ikuspegitik; hau da, xedapen hori hankamotz geratzen zen.

Hala eta guztiz ere, geroago –historiaren kontuak, zuzenbidearen kontuak–, baliorik ez zeukan xedapen horixe erabili zuen Konstituzio Auzitegiak hauxe esateko: xedapen horri esker eskumenak lor zitezkeela edo 1978ko Konstituzioak ezartzen zituen mugak gainditu zitezkeela. Esate baterako, Nafarroako Foru Erkidegoa inon aurreikusita ez zegoen prozedura baten bitartez iritsi zen autonomiara, hain zuzen forutasunean, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian, oinarritua eta legitimatua zegoela arrazoituz.

Polizi alorreko eskumenak, adibidez: Konstituzioak muga oso zorrotzak jartzen dituen arren, polizi alorreko eskumenak zabalagoak izan daitezkeela esaten da. Orobat, bestelako esparru batzuetan: adibidez, funtzionarioen eskubide sindikalen alorrean, baita Nafarroan ere kasu horretan... Zergatik? Forutasunarengatik. Hau da, forutasunak, ikuspuntu horren arabera, Konstituzioak ezartzen dituen mugak gainditzeko balioko luke. Gaur egun, 2004ko Ibarretxe Planean ere, estatua baten baitan berezko estatus bat lortzeko mekanismo gisa erabili nahi da forutasuna, estatus hori forutasunean oinarrituz. Alegia, forutasunak muga horiek gainditzeko balio beharko luke, hain zuzen ere.

Autodeterminazio eskubidea

Beste kontzeptu edo ideia arras erabilia autodeterminazio eskubidearena da. Argibide giltzarri batzuk horri buruz. Autodeterminazio eskubidea soilik herri kolonialei aplikatu dakiekeela esaten da. Horregatik defendatzen zuen Frantziak

ez zela Aljerian aplikagarria... Zergatik? Sena Aljeriaraino iristen zelako, Mediterraneo Senaren parte zela, eta horrenbestez metropoliaren eta koloniaren artean ur gazizko bereizketarik ez zegoelako... Beraz, Aljeria ez zen kolonia bat, eta ezin zitzaion autodeterminazio eskubidea aplikatu. Autodeterminazio eskubidea koloniei soilik aplikatu dakiekeela ez du gaur egun inortxok ere defendatzen. Inperio kolonialak 1970 baino lehenago desagertu ziren.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna 1966koa da, eta hor herri guztiei aintzatesten zaie autodeterminazio eskubidea. Bistakoa da, dena dela, autodeterminazio eskubideak ez duela mekanismorik eskaintzen juridikoki baliozko bilakatzeko. Hala eta guztiz ere, hori dela eta, etengabe errebindikatu eta aldarrikatzen da eskubide hori hiritarrei dagokiela.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak zenbait kasutan ere aintzatesi du autodeterminazio eskubidea, Ekialdeko Timor, Palestina eta Saharan, besteak beste, edo Bangladesh eta Biafra bezala kolonialak ez diren kasuetan. Hau da, baieztatu daiteke herri guztiak izan daitezkeela autodeterminazio eskubidearen onuradun, herri guztiei dagokien eskubidea delako.

Erabakitze eskubidea

Erabakitze eskubidea berriagoa da: duela urte gutxi agertu da, Quebecen, Kanadarekiko estatus berri baten negoziazioaren inguruan, 1980 eta 1995eko bi erreferendumak planteatu direnean, hain zuzen ere. Kanadarrek beren Auzitegi Gorenari galdetu diote: Quebecek libre izatea erabakitzen badu eta estatus berri bat negoziatu nahi badu, zer egin behar dugu guk? Eta zer erantzun du Kanadako Auzitegi Gorenak? Ez du erantzun, Espainiako Konstituzio Auzitegiak egingo lukeen bezala, Konstituzioa bat eta bakarra dela, estatua bakarra dela eta subiranotasuna bakarra dela eta, beraz, ez dagoela inolako aukerarik.

Kanadako Auzitegi Gorenak zuzenbidearekiko fedea indartzen duen zerbait baieztatu du: Konstituzioak ez duela

printzipio bakarra, hainbat baizik, eta horien artean daudela demokrazia, federalismoa, oinarrizko eskubideak eta guxtiengoan babesa; eta arazo bat sortzen denean printzipio horiek guztiak erabili behar direla arazo hori konpontzeko, printzipio horietako bat beste guztien gainetik lehenetsi gabe. Ez da Espainian bezala, non batasuna demokraziari gailentzen zaion; Kanadan, aldiz, demokrazia beste printzipio guztien ondoan dagoela baieztatzen da. Horrenbestez, Auzitegi Gorenaren arabera, Quebecoko herriak Kanadarekiko estatus berri bat nahi duela adierazten badu, estatus hori Kanadarekin eta Kanadako gainerako probintziekin negoziatzeko eskubidea dauka; eta Kanadako federazioak fede onez eraman behar du negoziazio hori aurrera, emaitza batera iristen saiatuz. Eta emaitza horren aurrean erantzun juridiko bat ematera behartuta dago Kanada; hau da, independentzia eskaera gauzatuko balitz, Kanadak independentzia hori lortzeko bidea erraztu beharko lioke Quebeci. Ñabardurak ñabardura –eta egia izanik zuzenbidean sarritan demonioa xehetasunetan ezkututzen dela–, hori guztia adierazten du, funtsean, Kanadako Auzitegi Gorenaren epaiak.

Eskoziako esperientziari begiratzen badiogu, are argiago agertzen zaigu auzia. Eskozian SNP alderdi nazionalistak

Espainian batasuna demokraziari gailentzen zaio; Kanadan, aldiz, demokrazia beste printzipio guztien ondoan dagoela baieztatzen da

irabazi ditu hauteskundeak, gehiengo garrantzitsua lortuz. Cameron lehen ministro britainiarra Eskoziara joan da zer nahi duten galdetzera; bai, bera joan da Edinburgora, ez du te eskoziarrek Londresera joan behar izan. Erresuma Batua sortu zuen 1707ko nazioarteko itunak (Batasun Agiria) batasuna «for ever» eta betiko zela

zioen arren (hots, espainiar konstituzionalismoak behin eta berriro azpimarratzen duen batasuna), Erresuma Batua Eskoziarekin hitz egitera joan da eta zer nahi duen galdetu dio. Eta

negoziatu duten gauza bakarra erreferendumeko galderaren formulazioa da: bi galdera egin beharrean, bakarra adostu dute, independentzia bai edo ez. Gainerako guztia Eskoziak antolatu du. Horrela dihardute Erresuma Batuan, eta ez dute Eskoziaren aurkako kanpainarik egin, whiskyaren aurkako kanpainarik (beharbada asko gustatzen zaie), ez dute egin Eskoziatik datorren garagardoaren aurkako kanpainarik. Ez dago gatazka demokratikorik, botoa eman eta erabaki dute. Horixe besterik ez da erabakitze eskubidea. Hain zuzen ere, autodeterminazio eskubidearekiko eta forutasunarekiko ezberdina da.

Autonomiaren historia 1978tik

Zein izan da, labur, gure historia normatiboa? Franco 1975ean hil zen, ohean, eta horrek ondorio batzuk ditu; alegia, ez genuen botoa, ez genuen irabazi. Trantsizio bat egon zen, zeinetan erregimen hura eutsi zuten estatuaren aparatu guztiak –aparatu judizialak, teknoegitura osoa, burokrazia guztia– boterean geratu ziren. Demokratikoa deitutako trantsizioa gidatu zuten aparatu horiek guztiek. Konstituzioa armen mehatxupean onartu zen, baina Euskadik, jakina denez, errefusatu egin zuen –Gipuzkoan botoak gutxiago izan ziren Konstituzioaren alde Gure Esku Dagoren ekaineko galdeketa baino–. Ondoren, Autonomia Estatutua onartu zen: estatutu horrek parlamentu bat eratzea ahalbidetu zuen, Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu zen, eskumen batzuk lortu ziren eta autonomia erkidegoaren egituraketari ekin zitzaion.

Prozesu horretan zehar, elementurik kritikoen Autonomia Estatutuen aurreko erregimen preautonomikoa deitutakoaren onarpena izan zen. Franco hil ondoren, Espainiako estatuan probintziak besterik ez zeuden... Autonomia erkidegoak egitea erabaki zen; baina, nola banatu estatua autonomia erkidegotan? Frankismoaren oinordekoei, baita Nafarroan ere, erregimen preautonomiko batzuk antolatzea bururatu zitzaion, probintzia handi batzuk izango

bailiran. Eta probintzia handi horiek antolatzerakoan sortu zen erregimen preautonomikoa deitu zena. Batzuek erregimen preautonomiko horri ezetz esatea planteatu zuten. Zergatik? Araba, Bizkai eta Gipuzkoa bakarrik aurreikusten zituelako, eta horrek Euskal Autonomia Erkidegoa osatuko zuten lurraldeen aitzinirudi bat adierazten zuelako: Baskongadetako hiru lurraldeak soilik eta aurrerago Nafarroa. Planteamendu horrek lau lurraldeen arteko amildegia areagotu zezakeela pentsatzen zen, eta halaxe demostratu du ondoko urteetako esperientziak.

Autonomia Estatutua funtsezko lurralde murriztapen horrekin jarri zen abian. Kritikak kritika, hainbat gauza agertzen hasi ziren: hezkuntza sistema sortu zen, euskarazko hezkuntzarekin; Ertzaintza, EITB... Azken buruan, botere baten osagaiak taxutzen hasi ziren. Baina, hala eta guztiz ere, prozesuak aurrera egin duen heinean, paperean idatzita dagoen Estatutu hori ez da guztiz bete, eta sistema agortuz joan da, gero deskribatuko den bezala.

1997an, ELA sindikatuak Gernikan antolatutako ekitaldi batean, Estatutua agortuta zegoela baieztatu zuen, ez zigula gehiago balio aurrera egiteko. Izan ere, Estatutua ez ezik sistema bera zen agortzen ari zena. Estatuan indarrean zegoen sistema autonomikoa krisi egoera gero eta nabarmenagoan sartzen ari zen. Egoera horren aurrean, zer gertatu zen? 1996an Aznarren Alderdi Popularrak irabazi zituen hauteskundeak; 2000. urtean gehiengo absolutua lortu zuen, eta EAEn 24.000 botoko aldea besterik ez zion atera EAJK PPri. Zer gertatu zen? Aldea hain txikia izanik, Aznarrek eta Mayor Orejak 2001eko hauteskunde autonomikoetan lehendakaritza lor zezaketela pentsatu zuten.

Herritarren oroimenean geratu da garai basati hura, Mayor Orejak irabazten ez bazuen etorkinek mailetak egin beharko lituzketela mehatxatzeraino. Juan Luis Cebriánek 2001eko hauteskundeen ondoren artikulu ikaragarri bat idatzi zuen: lehen aldiz poztu omen zen hauteskundeak nazionalistek irabazi zituztelako. Zergatik? Hain zuzen, gurutzadazko

espiritu betean bizi ginelako; PPK hauspotutako gurutzadazko espiritua, baina PSOEk berak ere babesten zuena. Gogora dezagun Nicolas Redondo Terrerosen garai hartako jarrera, Mayor Oreja boterera igo zitekeela planteatu zenean, herritarren gain presio ikaragarria eginez. Baina, eskerrak, herritarren gehiengoak bizkarra eman zien, eta 2001ean Ibarretxek irabazi zuen.

Zein izan zen horren ondorioa? 2004an, Autonomia Estatutu berri baten egitasmoaren aurkezpenari bidea ireki zion prozesu politikoa jarri zen abian. Autonomia Estatutu berriaren egitasmo horretan, oso sintetikoki, lehen teorikoki azaldu diren zenbait gauza esaten ziren. Atarikoan baieztatzen zenez, «Euskal Herriak eskubidea du bere etorkizuna erabakitzeko», 1990ean ere Eusko Legebiltzarrak onartu zuenaren ildotik. Ondoren adierazten zenez, Euskadik estatutu berri bat planteatzen zuen, hau da, ez beste ezer; egitasmo hori eskubide historikoen –forutasunaren– eguneratzearen bitartez planteatu zen: badaezpada erabakitzeko eskubideaz hitz egiten zen, baina baita forutasunari buruz ere, estatuari nahiago zuen hori aukeratzeko modua eskainiko balitzaio bezala. Eta eskubide historikoen eguneratze mekanismo horren bidez, elkartasun aske bat lortzea planteatu zen. Azken puntu horrek kezka larria sortu zuen. Hauxe zen egitasmoaren xedea: «estatu konposatu, nazio anitzeko eta asimetriko bat» lortzea; baina hori guztia Konstituzioaren barnean planteatu zen, estatutu baten bitartez. Hemen onartutako estatutu hori Madrilera eraman behar zen negoziatzera; eta Madrilera eraman zenean, Diputatuen Kongresuko Konstituzio Batzordean zer onartu eta zer ez eztabaidatuko zuen debate prozesu bat

2004an, Autonomia Estatutu berri baten egitasmoaren aurkezpenari bidea ireki zion prozesu politikoa jarri zen abian. Atarikoan baieztatzen zenez, «Euskal Herriak eskubidea du bere etorkizuna erabakitzeko»

irekiko zelako planteamendu inozoarekin eraman zen. Logikoki, edozein negoziatuz bezala, proposamena goitik egingo da beti, negoziatuz gero zenbait gauza kendu beharko baitira. Baina, zer gertatu zen? Madrilen ez zuten esan, Kanadako Auzitegi Gorenak bere garaian bezala, hitz egin behar zenik; Madrilen, aitzitik, batzarraldi parlamentario bakarrean, proposamena errotik baztertua eta horri buruz Kongresuan ez eztabaidatzea erabaki zen.

Horrenbestez, Madrilen auziari buruzko edozein debateri atea itxi zitzaion Gorte Nagusietan. Eta horren ondoren hona itzuli ziren, baina hemen ez zen ezer gertatu, Katalunian ez bezala, Konstituzio Auzitegiak estatutu katalanari ezezkoa eman zionean. Herri katalanak manifestazioa eginez erantzun zuen, baina EAEn ez zen herritarrak mobilizatzeko saiakerarik egin nahi izan. Mobilizazio gabezia horrek ahulezia areagotu zuen, eta kontsultaren proposamenaren hurrengo planteamenduan gauzatu zen ahulezia hori.

2008ko kontsulta hori aurreranzko ihesaldia baino ez zen, atzean ez baitzegoen inor. Kontsultaren legearen aurka errekurtsoa jarri zen Konstituzio Auzitegian; legea inkonstituzionala zela erabaki zuen auzitegi horrek, eta hortxe amaitu zen guztia. Orduko indar eta saiakera guztiek emaitza hori izan zuten, batez ere, EAJ bera, sektore garrantzitsu bat bederen, ez zelako prest egon 2004ko estatutu egitasmoaren defentsa egiteko, eta are gutxiago 2008ko kontsultaren legearen alde egiteko; beste aldetik, ezker abertzaleak beste gauza batzuk zituen buruan... Azken finean, gertakari horien aurrean ez zen erantzunik antolatu. Gero Patxi Lopez etorri zen, ezker abertzalearen debekuaren egoera baliatuz... Gero, Urkulluren gobernu... Eta, orain, zer esan dezakegu! Jakina da autogobernuaren egoera zein den, etengabe mehatxupean.

Autogobernua gaur egun

Autogobernuaren egungo egoera deskribatzen hasiz gero, hiru alderdi azpimarratu beharko lirarteke. Lehenik,

autogobernu erakundeak, Euskadin erabateko ahulezia politikoa bizi baitute. Zergatik diogu hori? Estatu baten ezaugarria hauxe da: parlamentu bat, gobernu bat eta botere judizial bat edukitzea. Zein da parlamentuaren ezaugarria? Bortxaezintasuna. Zer esan nahi du horrek? Parlamentuan parlamentuak agintzen duela, eta parlamentuko presidentek esaten duela bertan nor sar daitekeen eta nor ez, eta parlamentuak nola funtzionatu behar duen eta nola ez. Horrela gertatzen da munduko leku guztietan: ezin da bortxaezina den parlamentu bat ulertu, ezein estatutan; Kalifornian, adibidez, inork ezin izango luke ulertu AEBetako presidentea agertuko balitz eta Kaliforniako parlamentuko presidenteari boterea kenduko balio. Edo Alemanian Merkel edo Gauck agertuko balira eta Bavariako parlamentuko presidenteari boterea kenduko baliote. Parlamentua bortxaezina da kontzeptuz, osterantzean ez bailitzateke parlamentu izango. EAeko Legebiltzarrean, presidentea auzipetu zuten; Baltasar Garzon epaile izarra agertu zen eta talde parlamentarioak desegin zitzala aginduzion Legebiltzarreko presidenteari, baina epaile batek ezin du halakorik egin, horretarako eskumen edo jurisdikziorik ez duelako. Legebiltzarreko presidentek ez dituela taldeak desegiten? Espetxera! Horixe nahi dute orain Kataluniarekin planteatu, Kode Penal da erabiltzen duten argudio bakarra. Ez dago negoziatzeko batere asmorik, Quebec eta Kanadan bezala; esaten dutenez, Konstituzio Auzitegiak edo epaitegi arruntek beren aginduak inposatuko dituzte, Kode Penal erabiliz. Horrela auzipetzen dituzte Mas presidente ohia edo Forcadell parlamentuko presidentea.

Egoera horri erantzun irmoa eman behar zitzaiokeen, baina ez zen horrela gertatu. Herria ordezkatzeko duen parlamentuaren borondatea bahitu nahi izango balitz, borondate horren defentsari atxikitzen zaizkion arrisku guztiak hartu behar izango lirarteke.

Legebiltzarren ahulezia bera antzematen zaie Eusko Jaur-laritzari eta legebiltzarkideei. Izan ere, legebiltzarkidea ez da immunea, edozein epailek auzipetu dezake. Une hartan,

auzipetuta egon ziren Legebiltzarreko presidentea, eta Ibarretxe lehendakaria bera, baita Patxi Lopez ere. Zer nolako autonomiaz eta zein boterez hitz egiten ari gara, auzipetze horiek posible baldin badira?

Orain eta hemen

Horrenbestez, estatuaren kontzeptua oso garrantzitsua da: estatu bat izanez gero, federazio baten baitan baldin bada ere, horren izaera nahitaez errespetatu beharko da. Ondorioz,

Estatuaren kontzeptua oso garrantzitsua da: estatu bat izanez gero, horren izaera nahitaez errespetatu beharko da. Ondorioz, inork ezin izango ditu erakundeak baldintzatu edo horien gain eragin

inork ezin izango ditu erakundeak baldintzatu edo horien gain eragin, herriaren legitimitatea duen estatu batez hitz egiten ari garelako. Hori horrela ez bada, autonomia baldintzatu bat besterik ez dugu. Halaxe gertatzen da planteamendu foralistekin: errebinkazio foralak Konstituzioaren barnean daude, eta Konstituzioaren interpretazioak eta gobernuaren politika aldakorrak modu esanguratsu batean bal-

dintzatu dezakete euskal erakunde politikoen boterea. Horregatik aldarrikatu behar da estatuaren egitura politikoa, gerorako utziz egitura hori independentea izango den edo beste egitura politiko federal, konfederal edo dena delako batean integratuta egongo den. Horra hor ideia bat.

Bigarren ideia estatuaren erakunde zentraletan parte hartzea izango litzateke. Arrazoi horrek ere eragiten du krisi politikoko egoera honetan. Izan ere, estatu batean integratuta egotearen ondorioz gal daitekeen boterea estatuaren erakundeetan nolabait parte hartzeagatik berreskura daiteke. Alegia, konpentsazio moduko bat gertatzen da: leku batean galtzen dena, bestean berreskuratzen da.

Estatu frantsesak, adibidez, Europar Batasunaren parte iza-teagatik botere batzuk galtzen ditu, baina beste batzuk lortzen ditu Batzordean eta Kontseiluan. Haatik, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak ez dauka-te inolako botere eragilerik Senatua deitzen zaion bigarren ganbera horretan. Bestalde, bigarren ganbera horrek ez du benetan ia botererik erabakietan, ezta legeen onarpenean ere. Konstituzio Auzitegiari buruz hitz egiten denean, zeina botere guztien gainetik dagoen erakundea den eta botere publikoen jarduera batzuk Konstituzioarekin bat datozen kontrolatzen duen, honakoa planteatzen da: zein dira Konstituzio Auzitegiko partaideak? Ez Euskal Autonomia Erkidegoak ez Nafarroako Foru Komunitateak ez dute pos-tu horretarako inor izendatzen. Auzitegi horretako kideak izendatzea honakoei dagokie: Diputatuen Kongresuari eta Senatuari, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta es-tatuko gobernuari. Itxuraz, bederen, logikoagoa lirudike, estatu nazioanitz bati buruz ari garenez, nazio horiek ere izendapenetan parte hartzeak.

Justiziari buruz hitz egiterakoan, esan beharra dago estatu bat izateak berezko botere judizial bat edukitzea dakarrela. Euskal Herrian izan diren ehunka edo milaka epaiketetatik, ez da bat bera ere zuzenean euskaraz egin; euskaraz izan di-ren urriak itzulpenarekin egin dira. Botere Judiziala, bestalde, dagozkion funtzioen gainetik erabiltzen da; argi eta garbi is-latzen da hori gaur egun Katalunian, Puigdemont, Forcadell eta enparauekin eta erreferendumaren auziarekin, botere ju-diziala dominazio politikorako lanabes gisa erabiltzen baita.

Estatu batek berezko botere judiziala eskatzen du, Alema-niako Länder delakoetan gertatzen den bezala.

Amaitzeko, eskumen autonomikoen jardunbideari buruzko erreferentzia bat. Izan ere, eskumenen galera garrantzitsua gertatu da. Alde batetik, eskumenak galdu dira, eta, beste-tik, beste batzuk ez dira abian jarri. Autonomia Estatutuak esparru askotan ditu eskumenak; haatik, esparru horien ar-teko batzuk –esanahi handikoak tartean– ez daude oraindik

Eusko Jaurlaritzaren esku. Estatutuan Gizarte Segurantzaren Institutuaz hitz egiten da, langabetuentzako prestazioez, Marinaren Gizarte Institutuaz, Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaz. Estatutuan jasota dauden eskumen horiek ez dira transferitu oraindik. Transferentzia horiek aldarrikatzen dira, baina ez dira gauzatzen. Beste eskumen batzuk ere aipa genitzake: hala nola, azpiegiturei, interes orokorreko aireportuei, autopistei, trenbide azpiegitura eta zerbitzuei, interes orokorreko portuei lotutako auzi batzuei buruzko eskumenak. Esparru horietan ere ez dago berezko eskumenik.

Industria ministerioaren administrazio instituzionalari dagokionez, sektore publiko estatalaren kudeaketan parte hartzeko eskubidea jasotzen du Estatutuak. Berezko espetxe politika bat aurrera eramatea ahalbidetuko luketen espetxe erakundeak, etengabe estatuaren politikaren menpe egon behar izan gabe... hori ere badakar Estatutuak, baina ez da transferentzia gauzatzen. Horregatik guztiagatik adierazi zen 1997an Estatutua hilda dagoela.

Baina sistema bera ere agortuta dago; izan ere, azken al-dian, Espainiako gobernu hartzen ari den erabaki andana batek Konstituzio Auzitegiaren onespena jaso du, hala nola hezkuntza sisteman, aurrekontuen egonkortasunaren edo zorpetze mugaren inguruan... «Hori ez da Euskal Herrian aplikatuko» foru-klausula aurreikusita dagoen arren –sarritan garaipen gisara saldu izan dena–, ez da erabiltzen. Horixe gertatzen da, esate baterako, erantzukizun fiskala zaintzeko –hau da, zorpetze handiagoa edo txikiagoa dagoen erabakitzeko– sortu beharko litzatekeen erakundearen kasuan: estatuak sortzen du erakunde hori, baina EAEk zeresanik izan beharko luke auzi horretan. Edota autonomia erkidegoen finantziazioaren lege organikoak ezartzen dituen mugen kasuan, adibidez, Kontzertuari eta foru sistemari ez zitzaizkiela aplikatuko ezartzen zuen legeak; baina, hala eta guztiz ere, 2014ko epai batean (eta 2012ko aurretiazko beste batean) zera baieztatzen da, Nafarroari dagokionez, Hitzarmenaren kasuan ere muga orokor horiek aplikatu behar direla.

Kontzertuak eta Hitzarmenak zergen arautze ezberdinak egiteko aukera irekitzen dute. Zorpetzea arautzeko tarte bat ere eduki beharko litzateke, hori ere Kontzertuaren baitan sartzen dela ulertuz. Dena dela, Konstituzio Auzitegiak, Nafarroari dagokionez, esana du ezetz.

Baditugu, bestalde, azken aldian onartzen ari diren lege batzuk: Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko legea edota Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala aurreikusten duen legea, adibidez. Batzorde hori beldurgarria da: izan ere, lehia askea bermatu behar delako mekanismo edo baieztapenean oinarrituz, Eusko Legebiltzarrak libreki hartutako erabaki baten aurrean –esate baterako, kontratazio publikoan hemen sinatutako hitzarmenak errespetatu behar direla–, Batzorde hori agertzen da eta halako baieztapena lehia askearen aurkakoa dela erabakitzen du, eskumen autonomiko hori baldintzatuz, are ezabatuz.

Duela gutxi, hezkuntza alorrean nabarmendu da eskumen galeraren prozesua. Adibidez, irakasleek bi klase ordu gehiago eman behar dituzte asteen. Baina funtzio publikoaren esparruko eskumenez ari gara, eta eskumen hori autonomia erkidegoei dagokie, ez, beraz, estatuari.

Estatuak, haatik, zera adierazi du: arautze hori ez doala funtzio publikoari lotuta, hezkuntzari lotuta baizik. Hezkuntza alorreko oinarriei buruzko eskumenen poderioz, estatuak irakasleen ordu betekizunak igotzea erabaki du, gutxieneko ordu kopuru bat eman behar dutela esanez. Baina nola esan eta argudia liteke oinarritzkoa dela irakasleek gutxieneko ordu kopuru bat ematea? Zer zentzu dauka horrek? Logikoena litzateke gutxieneko ordu kopuru horren inguruko erabakia eskola edo autonomia erkidego bakoitzaren esku uztea. Baina irakasle guztiek gutxieneko ordu kopuru bat lan egitea berdintasunaren bermea dela baieztatzea ezin da justifikatu ikuspuntu pedagogiko batetik... Hobe ote da hezkuntza sistemarentzat irakasleek 23 klase orduren ordez 25 ematea? Absurdoa da guztiz, baina Konstituzio Auzitegiak halaxe epaitu du: auzi hori estatuaren eskumena dela.

1983ko LOAPA entzutetsuaren garaian, Konstituzio Auzitegiak Parlamentuaren eta Senatuaren gehiengoaren aurkako epai bat eman zuen, eta, ñabardurak ñabardura, lege hori inkonstituzionala zela esan zuen. Egun existitzen den Konstituzio Auzitegiak, aitzitik, ez du ezer bermatzen, haren epaiak aztertuz erraz ikus daitekeenez; izan ere, sarritan, auzitegiko hamabi botoen artetik, lau boto partikular egoten dira. Horrek guztiak autogobernuaren funtzionamenduaren bermerik eza adierazten du, Konstituzio Auzitegiak ez baitu eskumen autonomikoen errespetua bermatzen.

Azkenik, estatuko erakunde zentraletan parte hartzeak ere ez du ia ezertarako balio. Erakunde horiek benetako krisi egoeran daude dagoeneko. Konstituzio Auzitegia krisian dago, legitimitate handia galdu baitu. Senatua bera ere berdin, aspalditik behin eta berriro errepikatzen baita desagertu beharko lukeela.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, argi utzi behar da Estatutuak ez duela dagoeneko eskumen gehiago erakartzeko balio. Ez dira betetzen ari. Baina ez hori bakarrik; Konstituzio Auzitegiak, bere jurisprudentziarekin, sistema autonomikoaren eboluzioa ahalbidetu beharrean, atak gero eta gehiago ixten dizkie beste interpretazio batzuei. Une honetan, sistemaren eboluzioaren probalekua Katalunian dago. Bitartean, Euskal Herrian, panoramari so gaude, batere mugimendurik egin gabe. Noiz arte? 🌊

[Erredakzioan euskaratua]

EGUNEN GURPILEAN

99 Kultura

Irrintziaren oihartzunak
Erradikalak gara • Etxauzia
Miren Artetxe

107 Ekonomia

Askatasunen Europa
Krisialdi kapitalistaren Europa
Europa neoliberal kontserbadorea
EAJ-PP, *haute politique* edo pare bat
itun merke?
Henrike Galarza

115 Soziolinguistika

Jarrerak, gaitasunak eta erabilerak
Txerra Rodriguez

121 Ingurune digitala

Internet Institutuak, atzerritik ikasten
Ingurune digitalaren inguruko
ikasketak, euskaratik pentsatzen
Ingurune digitalaren Institutua, Euskal
Herriatik eraikitzen
Koldo Diaz Bizkarguenaga

127 Glokalia

Intelektual ezkertiarren neutralizazioa:
Frantziako filosofiatik zenbait ikasbide
Ignazio Aiestaran



Irrintziaren oihartzunak

Sinopsiaren arabera, *Irrintziaren oihartzunak* filmak kontatzen duena Mirentxu Loiarteren (Iruñea, 1938) «sorkuntza-lanetan emandako erbestealdia» da. «Zinemagile nafarraren memoria eta obra miatu asmo dituen begirada bat da» lanaren abiapuntu.

«Nor da emakume hau?» da filmaren azpititulua (prentsa idatziaren zentzuan). Izan ere, Mirentxu Loiartek *Irrintzi* film esperimentalala egin zuen 1978an. Esan beharrik ez da, orduan, orain bezala, ez zirela asko zinemagintzan zebiltzan emakumeak. Bada, Loiartek euskaldunon nortasun kolektiboari buruzko ikus-entzunezko metafora ausarta plazaratu zuen. Ausarta formaz eta edukiz. Are gehiago Espainiako estatuan kokatuz gero, 1970eko hamarkadan. Gaizki deituriko trantsizio garaiko kontraesanak medio, alde batetik filma Donostiako Zinemaldian estreinatu zenean Loiarte atxilotzera joan zen polizia, eta, bestetik, kalitatearen sari berezia eman zion Espainiako Zinematografia Zuzendaritza Nagusiak. Debekuak eta debekuen beldurrak medio, filma oso zinema gutxitan proiektatu zuten. Eta euskal filmotekako apal batean gelditu zen, plastikozko kutxa berde batean bilduta. Alta, Luis Iturriren lan batean oinarritutako lan hartan Gabriel Celaya, Gabriel Aresti eta Blas de Oteroren poemak erabili zituen Loiartek. Xabier Amurizaren bertsoak. Javier Agirresarobe izan zen argazki-zuzendari. Fernando Larrukert muntaketa-lanen arduradun. Denak ala denak ibilbide ezagunekoak. Mirentxu Loiarte bera izan ezik.

Historiaren orrietan ez baita Mirentxu Loiarteren izenik ageri. Erabat desagertu aurretik beste obra bat burutu zuen

zinemagile nafarrak: *Ikuska* sailen garaia zen, eta Loiartek bere begirada antropologikoa erabili zuen berriz, Euskal Herriko emakumeak XX. mende amaierako gizartean zuen espazio soziopolitikoaz aztertzeko euskarazko film labur dokumental baten bidez. *Euskal emakumeak* (1981) lanean, lurralde ezberdinetako hainbat emakumeren ahotsak, gorputzak eta begiradak ageri dira. Segiko genukeen Loiarteren lanak aipatzen; baina, gatazka politikoak erbestera eramanean zuen eta ez zuen geroztik lanik ezagutzera eman. Zinemagintzan zebilen orduko jende multzoarekiko kontaktua galdu zuen. Etena. Ezabaketa.

Loiarteren izenik ez da geroztik ozen entzun harik eta Iraixe Fresnedak *Irrintziaren oihartzunak* (2016) filma aurkeztu zuen arte. Ikerketa akademikoen ildotik heldu zion hasiera batean Fresnedak Loiarteren hariari, artxiiboetan arakatzeko ari zela haren argazki bat ikusi zuenean. Orain tira, orain utzi, bederatzi urtez aritu da zinemagile horren ibilbideari buruzko ikerketa intermitentean. Baina akademia mailako argitalpenek baino ikusgarritasun handiagoa emango ziolakoan ekoitzi du orain –Saioa Etxebarriarekin batera– film dokumentala; marea igoaraziz berriz ere itsasoratu asmoz hondartzan ez atzera ez aurrera zegoen balea, «nor da emakume hau?» galdera maila pertsonaletik maila publikora ekarriz.

Memoriaren geruzekin jolasten du filmak. Ikuslearen eta pertsonaiaren arteko distantziarekin. Pertsonaren eta bere oroitzapenen artekoarekin, narratiba intimoen eta aldi berean kolektiboen eraikuntza bistaraziz. Nola izan den ahantzia Loiarthe. Nola ahantziak dituen Loiartek berak garai hartako zenbait pasarte. Nola ez dituen oroitu nahi. Eta nola oroitu nahi dituen. Nola uzten dion kamerari pixkanaka hurbiltzen. Nola irensten duen kamera hurbiletik eginiko azken elkarrizketan. Eta ikusleari berriz datorkio, hain zuzen, hasierako galderaren oihartzuna: «nor da emakume hau?». Baina, dagoeneko ez da kuriositate xaloz eginiko galdera. Jakin-min sakonago batek dakar. Izan ere, badirudi halako memoria eta berreskurapen prozesuetan, izan artistiko ala bestelakoetan,

oroituari egiten zaiola mesede. Zuzendariak, kasu honetan, opari bat egiten diola obraren bidez omenduari. Eta ikusleak xamurtasunez aintzatesten duela orain, hobe beharrez, ahaztutako hura. Maizegi ihes egiten digu omenduaren esku-zabaltasun ariketak. Izan ere, halako pertsonaia baten izena berriz ere plaza publikora ateratzearen onura, «nor da emakume hau?» galderaren atzetik etor litezkeen beste hainbatek ekar dezaketen sokaren onura, batez ere, beharrezko galdera horiek berreskuratu dituen gizartearena da.

Baleak hondartzan darrai, baina, marea badoa goraka. 2016ko Donostiako Zinemaldian Zinemiran aurkeztu zenetik, hainbat tokitan proiektatu da filma. *Irrintzi* filma bera baino gehiagotan, dagoeneko. Azkena Bilboko Loraldia festibalean. Izango da emanaldi gehiago. Ez galdu aukera. Denon onerako izango da.

Bide batez, Tabakaleran ere ikusgai dago gaur egungo zinema esperimentalean izenik nabarmenena duen euskal artistaren lana. Ana Diez, Arantxa Lazkano, Mirentxu Purroy, Helena Taberna, Begoña Vicario eta Elena Arzuaga bezala, emakumea da zuzendari hau ere. Eta gerora zinemagintzako emakumeen arkeologia egiten ariteza baino errazagoa denez, beharbada, gaur egungo zinemagileei erreparatzea, horratx aukera. Laida Lertxundi. *025 Sunset Red*.

[Erradikalak gara](#)

Badut lagun bat mendian gabiltzala errekastoren bat ala iturriren bat ikusten duen aldiro esaten duena: «honek emanean segituko du, gu hemen ez gaudenean ere». Eta pentsatu izan dut bere modua dela, gizakion hutsaltasuna adierazteko, naturaren handitasunaren aurrean. Zaldieroaren zinta batek eraman ninduen orain dela bi urte lagunak esaten zidana benetan ulertzera. Gogoan izango duzue. Lau zoro zoragarri gaez, Korrikaren furgonetaren argitan. Izan ere, ezin hobeto adierazten du irudiak Korrikak askori sorrarazten diguna.

Horrek behar du nire lagunak behin etxerakoan iturri hartan pentsatuz sentitzen duena. Ez da bataren eta bestearen arteko kontrastea. Bat izatearen sentipena da. Nik, ez dut naturarekiko bat egite hori sentitzen momentu epifaniko berezietan ez bada –maiteminaaren drogek edo, besterik ezean, udaberriko eguraldi eguzkitsuak lagundu behar izaten didate horretan–. Baina, uneotan korrika dabilzanengan pentsatu eta, aix. Ez ote datza horretan Korrikaren funtzio nagusia? Sentimendu horren eraikuntza soziala ez ote da euskararen berreskurapen prozesurako palankarik eraginkorrena?

Baditu, ordea, Korrikak beste hainbat funtzio. Korrika Kulturalaren adarrak, esaterako, euskarazko kultur eskaintza sustatzen du, publiko potentzialaren zein potentzialki berriaren euskararekiko lotura estutzen den honetan. Programazioa hainbat ekitaldik osatzen dute aurtengoan ere. Eta bat azpimarratzekotan *Erradikalak gara* aipatuko nuke aurtengoan. Martxoan zehar dozena erdi emanalditik gora egin dituzte Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalariak Euskal Herriko hainbat txokotan. Bakarrizketak eta bertsoak elkarren segidan. Ordu eta erdiz hainbat gizarte-gai hankaz gora jarri eta entzulegoaren bertan-goxokeria astintzen dute, umorez bezain serio. «Erradikalak zarete» esaten omen diete. Eta «nahi eta behar baino gutxiago» pentsatzen omen dute beraiek. Hona emanaldiaren nondik norakoak, Ane Labakak berak bertsoan azalduta:

1. Gizarte honen ezaugarri bat argitzen du historiak:
neurritik kanpo denak dakartza
neurri gabeko fobiak
moderatua behar du hitzak,
borrokak nahiz euforiak.
Erradikala errora doa
hala dio teoriak
zer dauka txarra irauli nahiak
azpiko sustrai lodiak?
Berrikuspen bat behar du sarri
hitzen etimologiak.

2. Beldurragatik goraipatzen da
hainbeste neurritasuna
aldaketari trabak jarrita
mugatuz askatasuna
aldarrikatzen dugun aldiro
gure desadostasuna
«Erradikalak zarete» bada
esateko daukazuna
neurria zeinek jartzen duen da
dagokizun erantzuna
ezer baino lehen subjektiboa
da erradikaltasuna.
3. Pribilejioak galtzeko beldur
pixka bat badaukanaren
begiradatik mintzo zarela
ikusi dezaket garden.
Hilabeteak iraun dituen
sorkuntza prozesuaren
emaitza bertsoz, bakarrizketaz...
josia dugu, dena den,
nola kritikak egiterako
orduan abila zaren,
etorri eta zuk baloratu
hain erradikalak garen.

Gehiago nahi duenak, Korrika Kulturaletik at ere izango du emanaldia ikusteko aukera. Eta inor bertso-gosez geldituz gero, zortedun da: Ane Labakak *Zirrikitueta*n bertso-sorta bilduma argitaratu berri du Booktegi-n. On egin.

Etxauzia

Otsailaren 27an aurkeztu zuten prentsurrekoan Etxauzia proiektua, Etxauzian berean, Baigorri, eta martxoan eta apirilean zehar Hego Euskal Herriko hiriburuetan ari izan dira egitasmoa aurkezten. Ez da oraingo kontua. Badira bi urte Kattalin Sainte-Mariiek koordinatzen duen elkarteak plantan ezarri zutela. Baigorriko Etxauzia gaztelua erostea da lehen

urratsa, eta Baigorri eskualdea eta Ipar Euskal Herriko barnealdea biziaraztea helburua. No eta to.

Etxauzia erosi eta herriari itzulita, proiektua gauzatzen hasiko gira, eta, gure heinean, Baigorri eskualdea eta Ipar Euskal Herri barnealdea biziagoa eta erakargarriagoa egiten. Euskal Herri barnealdeko lantegien elkarte, jadanik sortzen ari girena, hor kokatuko da. Enpresen arteko elkartasuna eraiki, tokiko garape-na bultzatu, interes kolektiboen defentsan aritu, euskararen erabilera lantegietan sustatu eta Euskal Herri osoko egitura ekonomikoekin saretuko da lantegi elkarte. Kultur zentroa ere izanen da Etxauzia, Euskal Herrian ditugun beste kultur gune eta ekimenekin saretuko dena eta sormen nahiz emanaldi mailan erreferentea izanen dena. Etxauzia mundu osoko euskaldunendako bizilekua ere izanen da: diaspora zabala ere gure biziaren parte baita [...]. Hala, ondare inmaterialaren biltze eta ikertze gunea eta gure herriaren ondarearen interpretazio zentroa ere aterbetuko ditu.

Herriari bere ondarea itzuli, eta ondare hori herri eta kulturgintzarako baliabide bilakatu. Badu horrek ere erradikal kutsua. Ezin ukatu bihotzik harrizkoena ere hunki dezakeela asmoaren erromantikotasunak. Are gehiago bihoztxo horrek historia garaikidearekiko filiarik badu. Izan ere, historiaz eta istorioz beteak dira gazteluko lau hormak, Antton Currutcharry historialari eta elkarteko idazkariak ongi azaltzen duenez. Eman diezaiozun bazka pixka bat gure baitako Nabarraldetar ez-aitortuari.

Antso Handiaren garaian eraikia izan zen gaztelua (nafar inperialismoaren garairik gorenean, hots) eta, beraz, XI.-XII. mendeetakoak dira gazteluaren hormarik zaharrenak. Erregeak bizkonde izendatu zuen bere hurbileko jauntxo bat (Bizkaiko kondearen anaia bera), eta Baigorriko ibar estrategikoa zaintzeko agindu zion. Eta bide batez eskaini. Hortik gaztelua. Eta hortik bizkonde titulua ere. Behin izena denboraren errelatuan kokagarri bilakatuta, ugariak dira familia honek historian liburuetan dituen aipamenak. Epikotasunaren gailurra agramontar eta beaumontarren arteko gatazkek eman go diote istorioari (Etxauziarrak agramontarren leinuaren

aldekoak izanik, Nafarroaren independentzia defendatu eta menderatuak izan ondoren Behe Nafarroa bilakatuko zen lurraldean Nafarroako erresumatxoaren berrantolaketa (parte hartu zuten). Militarrek ez ezik sotanadunek ere bazuten boterea, noski –orain baldin badute, pentsa lehen–, eta hara non Bertrand Etxautzekoa, Baionako artzapezpi-ku egina eta ondotik Toursekora joana, erregearen kapilau ere izan zen. Axularrek berari esker idatzi omen zuen *Gero*. Gauzak zer diren.

Azken Etxauztar bizkondea 1785ean zendu zen. Bi alaba bai, baina horiek oinordekorik ez, eta akabo Etxauztarren Bizkonderria. Ez zen garai txarrena titulua desagertzeko ere. Frantziako Iraultza zetorren, eta altxamenduen bezperetan bizkonde titulua beste familia baten esku gelditu zen, eta bizkondesa berriak (gaiztoa, bera) Etxauztarrek inoiz eduki gabeko eskubideak aldarrikatu zituenean, oldarraldiak izan ziren herrian. Ezkontza bidez gaztelua Donostiriko saltzaile baten semearen esku gelditu zen ondoren, eta hori Konbentzio gerletan frantses armadetako kapitaina izan zen (Baigorriko mendietan 1793 eta 1794an espainolen inbasioa gibelarazi zuenetako bat), eta Napoleonen kanpainetan parte hartu zuen gero, Inperioko konde eta Frantziako marexal bilakatu. Horrek ere haurrik ez, eta haren ilobak gaztelua Arrasteko Abadiatarren familia euskaldun-irlandarrari saldu zion. Eta hemen istorioak behar zuen anekdota zinematografikoa ere: eroslearen biloba, Harry (1920 eta 1930eko hamarkadetan zinemagintzan arituko dena), Hollywooden ari zen lanean Charlie Chaplinen laguntzaile bezala, eta hark hirutan ekarriko zuen Chaplin bera Etxauziara. Bai, andre-jaunok.

Bigarren Mundu Gerra etorri zen gero (orduan armada alemaniarrek kuartel nagusizat hartu zuen gaztelua, kontrabandisten eremu ziren mendi-bideak kontrolpean izateko) eta armistizioaren ondoren gaztelua hutsik gelditu zen. Geroztik gaztelua hainbatetan saldua eta hainbestetan erositua izan da, baita arpilatua eta suntsitua ere, eta azkenean baztertera utzia, 1994an Baionako bikote batek erosi zuen arte.

2003an horiek Miamiko bikote aberats bati zaldu zioten jauregia (emazteak jatorriz Erratzukoa behar du izan), eta orain salgai dago berriz.

1970eko hamarkadan ere izan omen zen baigorriarren aldetik gaztelua berreskuratzeko saiakera bat. Ez zuen, zoritxarrez, istorio honen jarraipenerako mugarri izaterik lortu. Ea zer dioten Etxauziaz etorkizuneko historia artxiboek. Alegia, ea artxibo horiek Etxauzian dauden. 📖



Ekonomia

Henrike Galarza

Askatasunen Europa

David Cameron Erresuma Batuko lehen ministro kontserbadore ohiak deitutako erreferendumaren emaitza ustekabekoa izateaz gain, inoiz egin ez den prozesu politiko-juridiko-administratibo berri bat jarri du abian. Egia da *Société des Nations*, orduko Amerikako Estatu Batuetako Woodrow Wilson presidentearen ametsa, apurtu egin zutela gerraosteko saminak, baina ezin alderatu gaurko Europako Batasunaren kasuarekin, ezta Donald Trump presidenteak iragarritako TTPrekiko hausturarekin ere. Izan ere, Erromako Ituna sinatu zutenean, 60. urteurrena berriki ospatu dena, lehenbiziko sei herriren ordezkariak aurrekaririk gabeko ekimena abiatu zuten. Iadanik indarrean zegoen ikatz eta altzairuari buruzko ituna (IAEE) berresteaz gain, jatorri nuklearreko energiari (Euratom) eta merkatu batuari (EEE) buruzkoak ere onetsi zituzten, hain garrantzitsua bilakatu zen Nekazaritza Politika Batuari bidea emanez.

Frankismo garaiak ezagutu dituzten Hego Euskal Herriko zenbait belaunaldik ongi baino hobeki dakitenez, Europako Ekonomia Erkidegoa zen demokrata antifrankista askoren ikur eta esperantza. Horren sorreratik, zirkulu horietan, nazioarteko ekimen ausart horretan parte hartzea ongi ikusia izaten hasi zen, elkarte horren kide izateko eskatzen ziren baldintzen artean estatu demokratikoa izatearena tartean zegoen eta. Bertzaldetik, ukaezina zen herri horien arrakasta ekonomiko eta soziala, atzerritik langile ugari erakarritz. Elkartetik kanpoan zeuden herri europar kapitalistek eta ez soilki haiek, geroago ikusi zenez, guztiek kide izan nahi zuten, nazioarteko haien helburu estrategiko nagusia bilakaturik.

Hala ere, De Gaulle presidenteak Harold Wilson *premier* britainiarraren gobernu laboristari ezarritako betoa tartean, hamasei urte igaro ziren Danimarka, Erresuma Batua eta Irlanda kide berriak izan arte, dibisa-merkatu eta petrolio krisien erdian, 1973an hain zuzen. Krisialdi monetario eta finantzarioei aurre egiteko moneta bakarraren ideia mami-tzen ari zen bitartean, 'écu' kontu-unitatea eta *moneta sugeak*, lehen, eta Europako Moneta Sistema, gero, sortu ziren; gobernu nazionalen politika ekonomikoen arteko koordinazioa pixkanaka-pixkanaka jorratzen hasten ari ziren. Tamalez, krisialdi ekonomikoarekin batera monetarismoa eta neoliberalismoa gailentzen ari ziren akademia zein bulego politikoetan. Bretton Woods-en adostutako truke tasa finko eta atzerriko kapitalen kontrolak ezartzen zituen Nazioarteko Moneta Sistema ezabatu zuen Nixon presidente errepublikarraren gobernu 'keynesiar' batek, 1973ko martxoan. Baina dolarraren balio berri bat finkatu beharrian, 'merkatu askea' aldarrikatu zuen AEBetako gobernuak, filosofia ekonomikoaren erabarterako aldaketa eraginez. Aro neoliberalak hurbiltzen ari zen.

Krisialdi kapitalistaren Europa

Paraleloki, Europa kapitalistan arazoak ugaltzen ari ziren moneta nazionalen truke tasen arteko egonkortasuna mantentze aldera. Aldi berean, 1974rako jada, krisialdia ekonomikoa bilakaturik zen, gobernuen politika ekonomiko keynesiarretan kontraesanak eta desoreka handiak agertaraziz: moneta nazionalaren truke tasa eta barneko salneurriak egonkortzeko interes tasa igotzea komenigarria bazen, oso txarra zen jarduera ekonomikoaren ikuspegitik; gastu publikoa automatikoki igotzen ari zen, langabezi sari eta ongizate estatuaren gainerako gastu sozialak bereziki; baina, zergak igotzeko adore politikorik ezaren ondorioz, zor publiko nazionalak pilatzen ari ziren, interes tasak igotzen ari ziren garaietan, ordaindu beharreko korrituak aurrekontu publikoaren %10

izateraino. Laburki erranda, energiaren salneurriaren igoeraren eragin inflazionista orokorra, alde batetik, eta energia erruz erabiltzen zuten adar produktibo osoen gainbehera, bertzaldetik, egoera ekonomikoa elkarrekin kaltetzen ari ziren, arazo makroekonomiko berri bat sortuz: *stagflation* (*stagnation* eta *inflation*), aldi berean geldiera ekonomikoa (langabeziaren igoera) eta inflazioa, geldinflazioa.

Thatcher eta Reagan jaun-andreen arrakasta politikoek politika ekonomikoen helburu eta tresna legalak errotik aldatu zituzten, gai gehienetan teoria, irizpide eta jokaera neoliberalak ezarriz. Pribatizazioak, desarautze legalak, erabateko liberalizazioak, aberats eta enpresentzako zerga jaitsierak, funtzionarioen kaleratzeak... Joan den mendeko laurogeiko hamarkadan, 'merkatu askea' leloa pentsamendu bakarra izatera azkar igaro zen. Mitterrand Frantziako presidente hautatu berriak 1981ean osatu eta Pierre Mauroy sozialistak zuzendutako *Union de la gauche* gobernuaren lehenengo erabaki ekonomiko ausart eta ezkertiarrek moneta frantsesaren aurkako espekulazioaren artean jaso zituzten nazioarteko finantza eta dibisa merkatuek, 1982an Delors Ekonomia ministroak proposatzen zuen austeritate politika aurrera eramanean. Frantziako Errepublikan halabeharrez erabakitako norabide politiko ekonomikoaren aldaketa horren eragina nabaria izan zelakoan gaude, sozialdemokrazia europarraren eskuinerako bira hedatzen hasi zen eta: gastu sozialen eta lan eskubideen murrizketak, klaseko sindikatuekiko urruntze ideologiko eta politikoa... Espainiako González jaunak irakasgaia ongi ikasi zuen Boyer eta Solchaga ekonomialari eskuindarrak haren talde ekonomikoaren nagusitzat hautatuz. Horrez gain, garai haietako Alemaniako Errepublika Federaleko gobernu ezberdinen politika antiinflazionista zorrotza zenez, ia egunerokoak ziren Europako Moneta Sistemaren barruko arazoak. Amerikako Estatu Batuetako dolarrarekiko moneta alemanak zuen balioak igotzeko joera izaten zuenean, gainerako moneta europarren dolarrarekiko balioak berdin mantendu edo jaisten omen ziren, markoaren eta gainerako

dibisa europarren arteko truke tasa ‘gurutzatuak’ nabarmen aldaraziz. Horrela, Italiako lirak, Belgikako eta Frantziako liberek, bertzeak bertze, banaka edo elkarrekin, haien egonkortasun makroekonomikoan eragiten zuten aldizkako ‘ekaitz monetarioak’ pairatzen zituzten, subiranotasun ekonomiko nazionalak nazioarteko inbertsoreen esanetara jarraraziz.

Europa neoliberal kontserbadorea

Oro har, Europako Batzordearen, eta gobernu nazionalen, erreakzioa neoliberalala zen erabat. Erretolika batasunzalearen atzean, finantza kapitalen nazioarteko mugimenduak askatu eta Europako Merkatu Bakarraren egitasmoa azkartzea ziren erabaki nagusiak, 1985-86tik aurrera dolarraren balioaren beherakadak Europako dibisa-merkatuetako ezegonkortasuna apalduko zuelakoan; Mexiko, Brasil eta gainerako zorpetutako herrien kanpo zorraren krisialdia Wall Street astintzen ari zen bitartean. Gu guztion zoritxarrerako, Akta Bakarra sinatzeko garaiz sartu ziren Portugal eta Espainiako Erresuma 1986an, merkatu askearen sasiefizientziaren izenean Europako jarduera produktibo nagusien sekulako birbanaketa geopolitikoa gauzatzen ari zen une berberean, hain zuzen. Neoliberalismoaren egitasmo europarraren funtsezko helburua hasi zen agerian geratzen: araudi eta lege ekonomikoak, estatu eta administrazio publikoen botere politiko eta indar ekonomikoa ahultzeko erabiltzearena. Politikoki kontsumitzaileen subiranotasuna edota banako kapitalismoa aldarrikatzen bazituzten ere, egitasmo neoliberalen onurak enpresa handienek jasotzen dituzte, kontsumoa merkatzearen truk galdutako soldatak eta lanpostuak ahaztuko direlakoan. Eta halaxe gertatu zen, alajaina, pare bat gertakizun garrantzitsuren laguntzarekin izan bazen ere. Alde batetik, Berlingo Harresiaren eta Sobiet Batasunaren erorketak 1989 eta 1991n, hurrenez hurren, eta, bertzetik, Irak herriaren lehenengo inbasio militarra, 1990ean, Bush aitak erabakita eta Nazio

Batuen Erakundeak onartuta. Lehenengo gertakizunen ondorioz, Ekialdeko Europako herri komunista ohiak, haien langile kualifikatuak, haien baliabide natural eta barneko merkatuak, haien bonba nuklear eta gainerako arma eta militarrik, indar kapitalisten helburu estrategiko bilakatu ziren, lehia geoeconomiko berri horrek aliatuen arteko tirabirak sakonduz. Bi Alemania batzeko Köhl kantzilerrak hartutako erabakia, 1990ean, ez zuen beraren aliatuekin negoziatu, eta erabaki horrek sortu zuen kostuak interes tasak igo zituen Alemania berrian, gainerako eurokideen ekonomien kalterako.

Gauzak horrela, Europako Batzordeak presaka prestatutako Maastricht Ituna, Europako Batasunaren Ituna, neoliberalismo alemanaren neurrikoa, 1993an onartu zen, egungo Europako Batasuna izendapena legeztatuz, Jugoslavia herriaren zatiketa odoltsuaren lehenengo pausoak ezagutarazten ari zirenean. Berriro ere, 1995ean, kide berriak, Finlandia, Suedia eta Austria, ur harrotuen artean sartu ziren, *Tequilazo* peso mexikarraren krisialdiaren oihartzunen eta Asiatik zetorren dibisen krisialdiaren susmoen artean. Euroa moneta bakarraren izena eta izana finkatu ondoren, moneta bakarraren taldean bete beharreko Maastrichteko baldintza xebreak, inflazio, interes tasa, defizit publiko eta pilatutako zor publikoen balioei buruzkoak, agintarien gida politiko-ekonomiko bakarra ziren, nazioarteko harremanetan desadostasunak nonahi izaten zituzten aldi berean: Jugoslavia ohiko errepublikan independentzia, Kosovoren ingurukoak, Europako Batasunaren armada propioen edota Amerikako Estatu Batuetakoen esku-sartze armatuen inguruan (Jugoslavian, Libian, Afganistanen...).

Dena dela, 2004rako, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekiar Errepublikak eta Zipre kide berriak sartu ziren. Ekialderako zabalpen horrekin, herri komunista eta kapitalisten arteko urte askotako urruntze eta banaketari amaiera eman zioten, nahiz ezberdintasun sozial eta ekonomikoak ez desagertu. Bulgaria eta

Errumania 2007an, eta Kroazia 2013an, azkeneko etorri berriak izan dira, negoziaketa zorrotz eta luzeak burutu ostean. Bitartean, Lisboako Ituna ezin zen indarrean sartu; udaberri arabiarraren aurrean erantzun kontraesankorrek entzun ziren, azkenean erreakzionarioen alde jokatzeko; eta urte eta biktima anitz izan ondoren errefuxiatuen 'arazoa' aitortzeko orduan, halabeharrez erbesteratutako gizajo horiek lotsagabeki monetizatu dituzte, Turkian gera daitezen.

Hegemonia estatubatuarra agortzen ari omen den garai hauetan, Europako Batasunaren lekua eta botere erlatiboa jokoan daude, politikan, ekonomian eta, tamalez, kontu militarretan. Bertzaldetik, Erresuma Batuak elkarte utzi ondorengo Europako Batasunak Hegoaldera begiratzeko aukera ezin hobea du, jende xume eta gobernu demokratikoen aldeko benetako politika herrikoi eta lagungarria eskainiz. Lehia inperialista edo nazioarteko elkarlan demokratikoa, horra hor Europako Batasunak egin beharreko hautu geopolitikoa.

EAJ-PP, *haute politique* edo pare bat itun merke?

Ezaguna da jeltzaleek duten negoziaketa politikarako abilezia eta diskrezioa. Gobernu autonomikoa eratzeko behar zuen laguntza Mendia andreak zuzentzen duen PSE-EE alderdiaren aldetik lortu ondoren, erkidegoaren aurrekontu publikoak lotzeko ituna PP alderdiarekin burutu du Urkullu jaunak. Eskuinak kuttun dituen zenbait helbururentzako, familia eta enpresa kontuak nagusiki, eskainitako hogeita bederatzi milioi euro izan omen dira oposizioko gainerako taldeek gogorki kritikatu duten akordioaren funtsa. Ezker parlamentarioek eskatzen duten laguntza sozialen igoeraren kostua kalkulatzeko zaila bada ere, ez litzatekeela hain handia izanen uste dugu, 11-15 milioi gehiago. Horregatik, jeltzaleen ezetzaren atzean leudekeen igurikapen edo espektatiba ekonomiko txarrak kezkatu gaitu. Egoera ekonomikoari buruz agintariek diotena egia bada, hau da, hazkunde ekonomikoa

berreskuratzen ari bada, eta lanpostuak, eta soldatak, haztera badoaz, orduan zergatik ez izan eskuzabal?

Politikoki Madrili begira egindako keinua bada, penagarria litzateke jende xume anitzen ongizatearekin jolas-tea, Gipuzkoatik iparraldera eta Castejondik hegoaldera ez doan trenbide xelebrea, eta dagozkion geltoki faraoniko eta lurpekoak, eraikitzeke gastatu nahi dutena ikusita. Ez, ezin da hori izan; ezta PSE-EE alderdia gutxiestearekin ere, gobernu osatzeko orduan lortu zuenarekin kontent egon arren, orain kritika ozen eta zorrotzak egiteagatik... Filosofikoki, nahiago omen ditu EAJk enpresen aldeko laguntzak behartsuenen aldekoak baino, enpresari txiki eta ertainek ohi duten sen ekonomiko liberalaren ildoan... Beharbada Urkullu jaunak zuzentzen duen gobernuaren azken erabaki politiko-ekonomikoen atzean aurreko arrazoien guztien pixka bat dagoela pentsatuko du baten batek. Izan ere, estatu espainolean, aurrekontu publikoak onartzeko behar dituen botoen bila dabilen PP alderdiarekin tratutan ari omen da EAJ. Horren inguruan, ordu hauetan ezer gutxi jakin bada ere, dagoeneko, Ertzaintzaren lanpostuen legalizazioa lege dekretu baten bitartez ezarri du gobernu espainolak, urtetan zehar haien arteko erlazio politikoak ozpindu dituen desadostasunari amaiera emanez. Ikustekoa da alegiazko negoziaketa horren azken emaitza, baina, Gasteizen gertatutakoaren ondoren, sorpresarako tarte gutxi geratu dela dirudi.

Bertzelako negoziaketak Nafarroa Garaiko gobernuaren eta estatu espainolaren artekoak dira, bi erakundeen arteko Ekonomi Hitzarmena (Convenio Económico) berritzeko egin behar dituztenak. Duela bi urte berritu behar izan zuten, baina aurreko gobernu nafarrak ez zuen ezer egin, iadanik foru administrazioaren barnean aurreko itunaren baldintzak, ordaindu beharreko diru ekarpena eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketak bereziki, susmopean egonda ere. Orain da unea UPN alderdiaren benetako jarrera nafarzalea, ez soilki *navarrista*, Madrilen frogatzeko. Hipotesi guztietan, alderdi erregionalistak Madrilgo Kongresuan dituen bi

botoak gobernu espainiarraren aldekoen artean zenbatu dituzte, Nafarroako ubide eta trenbidearen inbertsioak aurten finantzatzeko konpromisoarekin. Ez litzateke txarra izanen Nafarroa Garaiarentzat nafar ordezkariak, guztiak, ados jartzeara estatuarekin negoziatu beharrekoa batasunaren indarrarekin egiteko. Ez dira desadostasunerako gaiak faltako, baina gutxieneko batzuk badira, autonomia fiskalaren aldarrikapena, nafar ekonomiaren pisu zehatza Espainiako ekonomian, edota estatuaren erantzukizuna zenbait kontutan (Esako urtegiaren zabaltzea, Bardeetako Tiro Eremua...), erraterako, oinarritzko plataforma bat eratzeko modukoak direnak. Horien inguruko eztabaida bat, bozketa batekin edo gabe, Iruñeko Parlamentuan argigarria litzatekeelakoan gaude. 🗣️



Jarrerak, gaitasunak eta erabilerak

Txepetxek argi adierazi zuen eta, gaur egun ere, nazioarte mailako hizkuntza plangintzari buruzko ikerketek hiru arlo nagusiri egiten diete erreferentzia (integralak izan gura badute): jarrerei, gaitasunei eta erabilerari. Hiru horiei ere egiten diete erreferentzia *Bat* aldizkariaren 99 eta 100. zenbakiek. Izan ere, bi zenbaki horietan azken 35 urteen errepaso soziolinguistiko paregabea egiten dute hainbat egilek, eta, nire ustez, merezi du Jakinen horiei ere leku egitea (nire galbahetik pasatuta, jakina).

Jarrerak

Jarreraren inguruko artikulua nagusia Xabier Erizek egin du. Hautu linguistikoa jartzen du berak bere azterketaren erdigunean. Izan ere, «hiztunek (bakarka zein taldeka) hautuak egiten dituzte hizkuntzen edo barietateen artean, eta hautu horien bidez hiztun komunitate baten edo bestearen balioekin lotuak izateko nahia adierazten dute». Hautuak, hortaz, kolektiboak edo indibidualak izan daitezke (eta unean une-koak edo iraunkorrak).

Galdera nagusia baita hauxe soziolinguistikan, egilearen iritziz:

Zergatik jendeak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko aukera duenean, nahiago du bata ala bestea erabili? Bata zein bestea erabiliko dute, alde batetik, haien lehentasun, nahi, balio eta beharren arabera, eta, bestetik, kontuan hartuta aukera bakoitzaren kostu materialak eta ez-materialak, hautaketan baldintzak direna, azken batean.

Horri (eta beste kontzeptu batzuei) tiraka ontzen du bere artikulua Erizek: «komeni da ulertzea herritarrek, hiztunek, portaera linguistikoak dituztela, hautaketak egiten dituztela eta motibo subjektiboak dituztela horiek egiteko, baldintza sozial objektiboak ere badaudela ahaztu gabe». Marko horren barruan aztertzen ditu azken 35 urteotan euskararekiko jarrera eta motibazioen inguruan gauzatu diren ikerketak.

Amaitzeko, aurrera begira Xabier Erizek ere gomendio bat ematen digu: «euskararen sustatzaileek kontuan hartu behar dituzte/ditugu herritarren motibo subjektiboak: hizkuntza-politikan, plangintzan, lan praktikoan eta ikerkuntzan».

Artikulugile nagusiari beste egile batzuek erantzun diote. Jone Miren Hernandezek identitatearen kontzeptuari heltzen dio bere azterketan. Haren ustez, «identitateak bere kutsu esentzialista galtzen du eta norbanakoak bere identitatea eraikitzerakoan duen partaidetza azpimarratzen da, hiztunak eginkizun honetan azaltzen duen grina eta inplikazioa nabarmenduz». Edo beste berba batzuekin esanda: «Euskaraz egiteak laguntzen du giro nahiz testuinguru euskaldun bat sortzen eta lortzen, baina, gainera, aritze horrek badu ondorio bat nire/gure burua euskaldun bezala irudikatzeko garaian». Hortaz, identitatea ez da berez datorkigun zerbait, egunez egun eraikitzen duguna baizik.

Nekane Arratibel, Asier Irizar eta Joxpi Irastortzak ere erantzun diote Erizeri. Egile horien iritziz, «euskararen hautua egiten da, gehienetan, euskal hiztunen komunitatearen gune sinbolikoak erdigunea hartzen duenean». Hau da, «edozein komunitate linguistikoren erdi-erdian, boterean, alegia, euskal hiztun osoak, euskaltzaleak... egon beharko luketela normalizazioa gauzatuko bada».

Iritziak iritzi, nire ustez argi dago jarrera, hautu, identitate, motibazio eta gai horien inguruan oraindik asko dugula ikasteko, asko dugula fintzeko eta asko dugula probatzeko eta esperimintatzeko. Norbanakoaren indarra gutxietsi barik, kolektiboaren indarra gutxietsi barik, azturek eta ohiturek eragiten dutela ahaztu barik, esaten denetik egiten denera

tartea badagoela ahaztu barik. Eta ahaztu barik, jakina, identitate ez dela berezkoa den zerbait, hautuz hautu eraikitzen den zerbait baizik.

Gaitasunak

Gaitasunen inguruko artikulua nagusia, ostera, Iñaki Martinez de Lunak egin du. Transmisioa ere izan du ikerketa-gai. Hauxe dio berak horren inguruan:

Familia bidezko euskararen transmisioa ari da kasu gehienetan bermatzen guraso biak euskaldunak direnean. Hala ere, transmisioa ez dago guztiz ziurtatuta, eta hori zergatik den ezagutu eta galera eteteko aukerarik ote dagoen aztertu beharko litzateke.

Eta ez hori bakarrik: EAEn euskara hutsezko transmisioa handiagoa da Nafarroan eta Iparraldean baino.

Era berean, transmisio bikoitzaz ere egiten du berba (hau da, euskara eta gaztelania, euskara eta frantsesa). «Egokia litzateke ikertzea zein diren hizkuntza-transmisio bikoitz horren bidez eratortzen diren aukerak eta mugak, betiere HINBE prozesuari begira» (HINBE Fishmanen RSLren euskal akronimoa da: hizkuntza indarberritzea esan gura du).

Eskolaz ere egiten du berba. Eragin mugatua du horrek sozializazioan. Hala ere, «aztertu beharko litzateke irakaskuntzaren lorpen partzialak nola bermatu eta osa litezkeen, denbora igaro ahala galdu ez daitezen».

Euskarazko gaitasuna aztertzerakoan, Iñaki Martinez de Lunak nabarmentzen du hizkuntza gaitasun erlatibo terminoa sortu/asmatu izana. Izan ere, «jakina baita hainbat kasutan hobekien ezagutzen den hizkuntza dela erabilia izateko aukera gehien duena».

Martinez de Lunaren artikulua nagusiari ere beste egile batzuek erantzun diote. Batetik, Iñaki Iurrebasok gaitasunari buruzkoak aipatzen ditu eta, bestetik, Patxi Juaristik transmisioari buruzkoak.

Azken horrek mahai gainean jarri ditu datu esanguratsuak.

Emakumeek gizonek baino gaitasun gehiago dute euskaraz komunikatzeko (hobeto ulertzen, hitz egiten, idazten eta irakurtzen dute euskaraz), euskararekiko atxikimendua handiagoa eta baita euskararekiko jarrera hobeagoa dutelako.

Ezagutza, gaitasunak, transmisioa, sozializazioa. Lau berba horien artean ibili da gure azken urteotako soziolinguistikaren jarduna, hara eta hona. Oraindik jo beharko dugu bide horretatik, baina harremanetan jarriz ostean datozen erabilerekin eta praktikekin, eta aurretik etorri diren jarrera eta motibazioekin.

Erabilerak

Erabilerei buruzko artikulu nagusia Mikel Zalbidetik egin du, beti bezala, luze eta sakon. Mintzaldaketaz egiten du berba luze, arnaguneei buruz, baita nazioarteko hainbat eta hainbat erreferenterik kasu egin ere (Fishman buru, jakina).

Eskolaren mugak aipagai ditu berak. «Eskola barruko saiorik sendo, sakon eta teoriak jantzienak ere ezin izan dio herri-giro osoaren erdalduntze bortitzari aurre egin». Izan ere, «adin batetik aurrera ordain-sarien gizarte-sistemak gobernatzen du neurri handian gazte-jendeak euskaraz ala erdaraz egin».

Hala ere, eskola «belaunez belauneko jarraipenaren lagungarri sendoa da». Eta, zentzu horretan, eskolak bost helburu nagusi ditu, edo izan beharko lituzke. Batetik, «etxetik euskaldun diren ikasleen gaitasuna, euskaraz mintzatzeko ahalmena, sendotu egin dezake euskal eskolak». Bigarrenik, «etxetik (erabat edo nagusiki) erdaldun diren ikasleak euskaldundu egin ditzake eskolak, halako neurri batean». Hirugarrenik, «curriculumaren euskal dimentsioa aurrez aurre landu dezake eskolak. Euskaldun izateaz harro dagoen gazte-jendea behar-beharrezkoa du hiztun-elkarte ahuldu orok». Laugarrenik, eskola «buru-langile eta buruzagi berrien harrobia» da. «Edozein hiztun-elkarte sendok, belaunez belaurik aterako bada bere gogoetaginek propioak, bere

sormen-eragileak, bere eliteak eta bere buruzagiak behar izaten ditu». Bosgarrenik eta azkenik, «milaka euskaldun profesionalen bilgune eta pizgarri da eskola-mundua».

Arnasguneen gainean, esan bezala, luze eta zabal jarduten du bere ohiko estiloan.

Etxe giroko jarduera trinkoa menderik mende eta belaunez belauen euskararen transmisio naturalaren abiaburu eta oinarri izandakoa, bere buruari ozta-ozta eusten edota nabarmen ahultzen ari da oro har.

Bere ustez:

Soluzioa ez dago lehenari iltzaturiko euskal erreserba etnolinguistikoetan. Biziko bada, lana eta jana behar du arnasguneetako jendeak, lehenik eta behin. Mundutar zabal sentitzeko komunikabideetarako lotura-aukera eta bizimodua itxura gabe ez oztopatzeko behar besteko zerbitzu-eskaintza eta aisialdi erakargarria ere bai.

Horrez gain, arnasguneetan behetik gorako plangintza goratzen du.

Bertako bizilagunek ulertu, hobetsi eta asumitu behar dute, lehenik eta behin, abentura demografiko, soziokultural eta soziolinguistiko konplexu eta berrian, Europan pare-pareko adibide handirik gabekoan, sartzera doazela bide hori aukeratzen badute, eta, onik aterako badira, beren konpromisoz eta beren kemenez zurkaiztu, osatu eta garatu beharko dute XXI. menderako bide-erakusle izango den arnasgune berria.

Artikulu horri Olatz Altunak eta Xabier Aierdik erantzuten diote. Azken horrek Jone Miren Hernandezen ildotik jotzen du (Iñaki Martinez de Lunak ere bai hein handi batean). «Ez gara uste duguna, praktikatzen duguna baizik».

Era berean, etorkizunerako errezetak mahaigaineratzen ditu.

Lasaitasun jarrerak eta larrialdi garaietarako neurriak uztartu beharrean gaude, hori baita gure egungo dilema. Ez dugu non begiratu, non kopiatu eta gugandik kanpo ez dago eredurik. Teoria propioak garatu beharrean gaude.

Arnasguneen gainean ere aritzen da. Herri txikiak baino, eskualdeak ikusten ditu berak oinarri.

Urola Kosta, Durangaldea, Goierri, Debagoiena, Tolosaldea. Eskualde hauetan jokatzeko eta bermatzeko da euskararen etorkizun hurbila. Horietan daude arnasgune erabakiorrak. Eskualde hauek ez dira guztiz urbanoak biztanleria eta udalerrien biztanleria kopurutik, baina bai kultura urbanoaren hedaduratik.

Praktikak eta horrek identitatean dituen ondorioak, eta horrek gaitasunetan dituen ondorioak eta horrek jarreretan dituen ondorioak. Praktika erdigunean jarri. Horixe izan da azterketa sakon horietatik ateratako dudako ondorio nagusia. Eta bigarren ondorioa da euskal soziolinguistikak ezagutu behar duela Judith Butler eta haren ekarpena, baina, tira, hori ere etorriko da.

Benetan ere pentsarazleak izan dira bi zenbaki horietan jasotakoak. Horiek nire galbahetik pasatutako ohar mentalak baino ez dira izan, eta bi zenbaki horietako artikuluko mamitsuak irakur ditzazuen amua baino ez. Segi haien bila aton. 🍷



Ingurune digitala

Koldo Diaz Bizkarguenaga

Internet Institutuak, atzeritik ikasten

Denok ikusten duguna beste begirada batekin ikustea, zientzia horixe bera zela irakurri nuen behin. Begirada, betaurrekoak, horra gakoa. Mundua nondik ikusten dugun, mundua nora arte ikusteko gai garen. Maiz, ezaguna dugun hori errealitate bakarra dela pentsatzeko joera dugu, norberarena errealitate eta egia bakarra dela pentsatuz. Burua altxatu, alboetara begiratu, eta hor beste norbait, beste mundu-ikuskerara bat dagoela ohartzen gara. Burua altxatu, urrunera begiratu, eta han beste herri asko, beste mundu-ikuskerara asko daudela ohartzen gara.

2010ean Bartzelonako IN3 institutuaren egoitza estreina-tzeko aukera izan nuen. UOC unibertsitateak, Kataluniako gobernuaren diru-laguntzari esker, Internet Interdisciplinary Institute eraiki zuen: hiriaren erdian eraikin berri bat altxatu zuen Interneten inguruko gaiak aztertuko zituzten ikerlariak laborategi gisa erabil zezaten. Eraikin huts horretara sartzean Elisenda Ardèvol irakasleak esan zidan moduan, «zailena lortu dugu, eraikina; orain, ezagutzaz eta talentuz beteko dugu». Astearen bukaeran, ikerlariak hutsik zeuden bulegoak bete zituzten, lizentzia edo masterra bukatu berri zutenak eta Interneten inguruko doktorego-tesiak hasiko zituztenak: ikus-entzunezkoetatik, soziologiatik, ekonomiatik, informatikatik edota zuzenbidetik heldutako ikertzaileak, denak eskuz esku gai bera ikuspegi ezberdinetatik lantzen.

Gobernuaren finantziazioaren bidez, unibertsitateak gizar-tea eraldatu duen tresna eta espazio bat aztertzeko aukera izan zuen. Horra hor herrigintza: diru publikoari esker unibertsitateak herriaren arazoak identifikatzea eta politikariek oinarri horien arabera konponbideak bilatzea. Horra hor estatugintza:

estaturik izan gabe, estatua izan arte itxaron gabe, estatu egi-
turak sortzea, gizartea ezagutzea eta estatu erabakiak hartzea.

Ez da kasualitatea jauzi estrategiko hori Interneti lotutako erakunde batekin egin izana; izan ere, leku geografikoan egi-
ten zaila dena, *on line*-ko espazioan egia bihurtzea errazagoa suerta daiteke: ingurune digitalean muga administratiboak moldagarriagoak edota xaflakorragoak baitira. Bi estatutan, hiru administratibotatik eta zortzi lurraldetan (diaspora kon-
tuan izanik) banatuta dagoen gurea bezalako herri batentzat, espazio partekatu bat izatea herria batzeko eta eraikitzeko aukera paregabea da. Hori dela eta, duela aste gutxi Eusko Jaurlaritzako, Nafarroako gobernuko eta Euskal Elkargoko lehendakarien artean izandako batzarrean sortutako etor-
kizuneko lankidetzari begira, ingurune digitala «territorio libre bakarra» eta bakana izan daiteke: euskal herritar eta administrazioek, distantzia geografikoak ezabatuz eta muga administratiboak gaindituz, espazio bera partekatu baitezake Interneten; leku geografikoan edota aurrez aurre egitea hain zaila den hori.

Beraz, gaur egun behintzat, gizarteek eta herriek badute au-
kera Interneten ere *nor izateko* eta *zer egiteko*. Auskalo etorki-
zunean espazio hori zer nolako arauketa eta praktika sozialak bultzatu eta izango dituen; horregatik, ingurune digitalak orain irekitzen dizkigun ateak zeharkatu beharko genituzke, besteak beste, gure herriak dituen mugak gainditzeko eta ga-
rapen ekonomiko eta kulturala sustatzeko. Argentinan egin zuten bezala, adibidez. Bertan egindako ikerketa-egonaldia batean, Alejandro Pisicellirekin batera, Interneten inguruko institutu bati esker ikerketak sustatzeaz gain IKTekin gizartea alfabetatzeko aukera dagoela ikusi nuen. Gobernuaren finan-
tziario publikoari esker (nola bestela), ordenagailuak eskole-
tan eta auzo txiroetan banatuz, IKTek sortutako bazterkeria ekonomikoa eta soziala baretu zuten. Horra hor herrigintza, horra hor estatugintza: unibertsitateak, gobernuaren diru-
laguntzarekin, herriaren eta gizartearen arazoak zeintzuk diren mahai gainean jartzea eta konpontzea.

Azkenik, aditu eta administrazioez gain, badago ingurune digitalean zeresan handia duen beste agente bat: enpresa pribatua. Oxford Internet Institute-n ikasi nuen, adibidez, Vodafonek bere sarea nork-norekin-noiz-non-nola-zertarako-zergatik erabiltzen duen jakin nahi duela; eta, horretarako, ingurune digitala hurbilpen ezberdinetatik azaltzen dituzten ikertzaileak behar dituela; eta, horregatik, gai horiek lantzen dituen institutu bat diruz laguntzen duela; eta, horrela, bere gaur egungo arazoei eta etorkizuneko erronkei erantzungo dien diziplina ezberdinetako adituek osatutako talde anitza, prestatua eta profesionala duela.

Ingurune digitalaren inguruko ikerketak, euskaratik pentsatzen

Egunerokotasuneko lanean zorabiatuta, burua altxatu behar da. Norberaren zilborretik eta norbere lanetik, burua altxatu behar da. Baina urrunera begiratzean, ordea, liluratuta gera gaitzke; eguzkiari, argitasunari, zuzenean begiratzean itsu geratzen garen moduan. Urrunegi begiratzean, inguruan egin duguna ez ikusteko –eta beraz baztertzeko eta ukatzeko– arriskua dago.

Argentinan bezala, Eusko Jaurlaritzak ordenagailuak banatu zituen hainbat eskolatan duela hainbat urte, eta 2001ean ‘KZguneak’ sortu zituen gizartean IKTen erabilera errazteko eta sustatzeko. Gobernuak herritarren arazoei irtenbidea eman zien; diagnostikoa falta zen, ordea. Analisiaren hutsunea betetzeko asmoz, azpimarratzekoa da erakunde bereko Hizkuntza Politika Saisetik 2016an *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentua idatzi izana: adituek eta arituek egindako hausnarketaren bidez, administrazioek erabakiak era egokiago batean hartzeko aukera izan zuten.

Txostenean plazaratutako hamabi gomendioen artean, «Euskarazko IKTen inguruko datuak lortu (erabilera, sar-tzea...)» proposatzen zuten. Eta badirudi mezuak eragina

izan duela hainbat elkarte eta enpresen artean. Urrunera joan gabe, azken asteetan .eus eta Umapek datu ezin interesgarriagoak plazaratu dituzte. Lehenengoek *Non dago emakumea ingurune digitalean?* mahai-ingurua antolatu zuten, eta, bertan, euskara Interneten sustatzeko helburu duen erakunde horren inguruko hainbat datu eskaini zituzten. Bigarrenengoek, Twitter bidez *on line*-ko sare sozial bereko erabiltzeen euskarazko jardunari lotutako datu-ilara mamitsua jarri zuten denon eskutan. Batean zein bestean argi utzi zuten euskarak webguneetan eta *on line*-ko sare sozialetan duen presentzia, eta, batez ere, agerian utzi zuten herri gisa horrek duen garrantzia. Amaia Ocerinek .eus-en blogean euskara, ingurune digitala eta administrazioen lana batuz aipatu bezala:

Batzordearen beharra badago. Baina hau baino maila gorenago batean lan egingo lukeen irudia behar dugula argi ikusten dut: ahalmen handiagoak izan beharko lukeena eta ez bakarrik izaera kontsultarako edo aholku-emailea izango litzatekeena, baizik eta lanean zuzenean modu eragingarriak aurrera egiteko gaitasuna izango lukeena. Aparteko sail berezi bat bezala.

Orain, datu horiek ikerketa bilakatzea da erronka. Soziologian, diskurtso zientifikoaren eta diskurtso sozialaren arteko ezberdintasuna zein zen ikasi genuen: metodo bat behar da, ideiak plazaratu baino lehen marko teorikoak, hipotesiak, helburuak eta metodologiak beharrezkoak dira. Izan ere, datuak ez dira berez ikerketa bat, eta, horregatik, datuak interpretatuko dituzten adituak behar dira. Beste era batera esanda, eta atzerriko esperientzietatik ikasiz, informatikariek lortutako datuak soziologoek ustiatu beharko lituzkete; horiek arte ederretakoei ideiak irudi bilaka ditzaten eska diezaieten; horiek publizitatekoei edukia-irudia saltzea eska diezaieten; horiek politikariei argi azal diezaieten gizartearen eta herriaren egoera zein den eta horren arabera erabakiak har ditzaten; kazetariak, azkenik, erabaki horiek gizarteratu ditzaten.

Funtzioen kate hori luzatu eta aberastu daiteke: burua altxatu, alboetara begiratu eta, hor, ezagutzen ez duzun arlo bateko aditua aurkitzea da gakoa. Eta, horretarako, ezagutza-arlo

batek bestearen lana ez betetzea da gakoa. Izan ere, diziplinartekotasuna ez da diziplina batek lan guztiak egitea; diziplinartekotasuna bakoitzak dakienetik besteei ekarpena egitea da, elkar lagunduz eta elkar elikatuz.

Ingurune digitalaren Institutua, Euskal Herritik eraikitzen


Ingurune digitalaren gaiari dagokionez, oinarri egokiak ezartzen ari gara azken aldian. Aurreko artikuluan aipatutako hainbat metafora desegoki berridazten ari gara, euskaraz eta Euskal Herritik. Horren adibide ona da berriki Aztikerrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, plazaratutako *Gipuzkoako kultura politikoaren inguruko ikerketa prozesuaren lehen fasea* txostena. Bertan, Internet bidez eta Interneten egiten den parte hartze politikoa ez da era isolatuan ulertu: ingurune digitalak herritarren bizitzaren esparru guztiak barnebiltzen dituela kontuan izanik, aurrez aurreko harremanekin batera egiten den parte hartze politikoa gisa ulertu eta azaldu dute.

Elementu guztiak ditugu, beraz: administrazioek ingurune digitalaren inguruko kezka dute, eta hainbat pauso eman dituzte gizarteak teknologia eskura izan dezan zein adituen iritziak jasotzeko; enpresa eta elkarteak datuak plazaratzen hasi dira eta akademiak... Akademiak...? Zertan ari dira ikertzaileak? Bakoitza bere kabuz lanean, bere unibertsitatean, bere unibertsitatearen sailean, bere unibertsitatearen sailaren ikerketa-taldean era mugatuan eta isolatuan ikertzen.

Horregatik, hutsune hori betetzeko eta elkarlana sustatzeko, UEUK antolatutako IkerGazte kongresuan ingurune digitala ikertzen ari diren ikertzaileak batu ginen. Euskal unibertsitateetan gai hori lantzen ari diren adituak identifikatu genituen eta haien artean harremanetan jarri ere helburu argi batekin: herri honetan dagoen ezagutza akademikoa azalerratzeko, administrazioek eta erakundeek herri honen mesedetara jar dezaten. Horrela, ikertzaileak harremanetan jartzeaz gain,

ikertzaileek administrazio eta elkarteekin harremanetan jartzeko aukera izan zuten. Batetik, administrazio eta elkarteek, ikertzaile horiek ezagutzean, zenbait kezka aurretiaz konponduta zeudela jakin zuten, erantzuna dagoen galdera batean denbora eta dirua ez xahutuz. Bigarrenik, arazo berriak identifikatu zituzten, horiek konpontzeko orduan gidari eta lankide izan daitekeen balizko ikertzailea ezagutuz.

Egun erdiko saioak fruitu oparoak izan zituenez, badago aukera aurrera begiratzeko, beste pauso bat emateko. Batu ditzagun esku artean ditugun kezkak eta konponbideak; batu gaitezen administrazioak, arituak eta ikertzaileak marko berean. Zentzudunak izan gaitezen eta, atzerriko esperientzietatik ikasiz, erabil ditzagun ditugun baliabide (ekonomiko, sozial, humano, akademiko) apurrak herriaren onuran. Irudikatu, marraztu eta diseinatu dezagun ingurune digitala aztertuko lukeen institutua: egun, administrazioek ingurune digitalaren gaiei era dispartsoan ematen dizkieten diru-laguntzak hobeto kudeatzeko eta norabide berean jartzeko; diziplinartekotasunaren bidez, ikerketaren emaitzen kalitatea biderkatzeko eta, azken finean, mugak gaindituz herri hau kohesionatzeko.

Gu mugitu ez arren, ingurua, ingurune digitala eta ingurukoak mugitzen dira. Eta azkar gainera. Jarraitu dezagun pausoz pauso bidea egiten, burua altxatu, alboetara begiratu eta, beste batzuk aspaldi egin duten bidea egin ez dugulako, beste herri eta unibertsitateak ikusteko urrunegi begiratu behar izan ez dezagun. 



Intelektual ezkertiarren neutralizazioa: Frantziako filosofiatik zenbait ikasbide

Europako ezkerrek bere lekua hain hutsik utzi du eszenatoki politikoan, ezen eskuin-muturrak hizkuntza ezkertiarra erabiltzen ikasi baitu. 2017ko martxoaren 20an, TF1 kateak antolatutako debate politikoaren barruan, Marine Le Pen hautagaiak hurrengoa bota zuen: «Il n'y a pas plus anti-écologique que le modèle du libre-échange total» («Ez dago hartu-eman libre erabatekoaren eredia baino ekologikoaren aurkakoagoa denik»). Esaldi labur batean ekologismoaren aldarrikapena, ekonomia global liberalari kritika eta zeharkako protekzionismo chauvinista batu zituen, trebezia osoz. Fronte Nazionalek gai izan da bere estrategia aitzinatzeko, ezkerria bere mezua modu gardenean barreiatzera atrebitzen ez delarik. Nola irauli du eskuinak agertoki intelektual eta kulturala, ezkerriaren indarra kasik desager dadin?

Lorrazten bat aurki dezakegu orain desklasifikatu den eta sarean dagoen dokumentu batean. *France: Defection of the Leftist Intellectuals* (Frantzia: intelektual ezkertiarren desertzioa) da USAko inteligentzia-zerbitzuak 1985eko azaroan prestaturiko txosten anonimoa, non CIAk desestaltzen duen zelan jorratu ziren zenbait faktore, François Mitterrand presidentearen menpean, marxismo eta komunismoaren aurka, ezkerreko ideiak eta egiturak deuseztatuz. Idazlan horretan agertzen diren Alain Touraine soziologoaren erranetan, garai hartan sozialismoaren epitafioa izkiriatu zen: «Gu ideologia sozialistatik askatzea izan da ezkerreko gobernuaren meritu nagusia».

Eskuarki zabalduetako topiko baten arabera, mundu intelektualak ez dauka garrantzi handirik, baina hori ez da txostenak

dioskuna. Intelektualak («kazetariak, artistak, idazleak eta maistra-maisuak», bertzeak bertze) pisuzko zutabe bat izan dira giro politiko orotan: eraginkorrak izan dira jendarte baten erabaki eta eztabaidetan. USAmerikarren intelligentsiaren iritziz, Frantziako «ezkerreko intelektokraziak» bi bide erabili zituen horretarako: 1) erregimenaren kontrako idazki zorrotzak plazaratzeko egunkari eta argitalpen kritikoak, komunistek eta sozialistek finantzatuak; 2) unibertsitate eta bigarren mailako hezkuntzaren sindikalizazioa. Sistema hau desegiteko asmoz, Mitterrand presidentearen politikarekin zenbait neurri hartuko ziren (geroago arituko naiz neurri eta dinamika horietaz).

Bitartean, intelektual berri-berrien propaganda modan jarri zen, eskuinean zein ezkerrean. Ekite intelektualean «Eskuin Berria» piztuz, «eskuina versus ezkerra» ardatza desplazatu zen, eta «totalitarismoa versus askatasuna» izatera heldu zen, «Sobietar Batasunaren aldeko Jean Paul Sartreren etika gimnastikoaren aurka», txostenak dioenez. Eskuin Berri frantsesak liberalismo europar klasikoa berpizteari ekin zion, sozialisten «kudeaketa txarraren» kontrako elixir gisa. Molde honetan, liberalismoak gobernuaren rola murriztu, jendea nork bere burua aski izatera behartu eta gerlaondoko saminak gainditu zituen, asmo hirukoitza betez. Eskuin Berriaren ideien artean, gobernuaren funtzioa txikiagotzea oinarritzko eginkizuna izanen litzateke, bai zergak biltzean, bai despendioak kudeatzean zein zuzentzean (USAko inteligentzia-zerbitzua zenbait ordelari eskuindarrekin batzartu omen zen, gogoeta horiek ondorioztatuz). Ildo honetan ere kokatu zen Mitterrand presidentearen gobernuaren politika, administrazioa deszentralizatu nahian. Horrela, sozialista frantsesak dogma liberalen ideologia onartzen hasi ziren.

«Eskuin Berri» klasiko horren ernaberritzearekin batera, «Filosofo Berriak» ere sortu ziren, Bernard-Henry Lévy eta André Glucksmann buruan, sobietarren adiskidantzaren lokarriak apurtzeko grinaz beterik. Izan ere, filosofo horien zenbait lan gomendatzen dira txostenaren bukaeran:

- *La cuisinière et le mangeur d'hommes* (Emakumezko sukaldaria eta gizon-irenslea). Estatua, marxismoa eta kontzentrazio-esparruak aztertu eta gero, Glucksmannen liburu honetan Sobietar Batasunaren historia ekonomiko eta politikoa kritikatzeko gogor, USAko inteligentzia-zerbitzuaren aburuz.
- *Les maîtres penseurs* (Maisu pentsalariak). Glucksmannen saio honetan XIX. mendeko filosofia alemaniarraren eragina miatzen zen, hala Alemaniako Estatuan, nola XX. mendean. «Nabarmenena: Marx eta Nietzsche bezalako filosofoen eta tirania modernoaren arteko lotura».
- *La barbarie à visage humain* (Giza aurpegiko basakeria). Bernard-Henri Lévyren testu honetan totalitarismo modernoaren sustraiak XVIII. mendeko Ilustrazioaren razionalismoan eta baikortasunean kokatu ziren, nondik jaioko baitzen Estatua, abantzamendu-eragile gisa. Rol horretatik Estatuak botere erabatekoa eskuratu zuen –Lévyk zioenez–, gizabanakoaren autoritatea andeatuz, CIAren azterketaren ustez.

Bertze bi auzi eskertu zizkien espiontza-zerbitzuak filosofo berri horiei. Alde batetik, Lévyren errana: «Mende honetako iraultza arraskatsu bakarra totalitarismoa da». Beste aldetik, Glucksmannek jendarteratutako ekuazioa: «Hitler = Stalin. Stalin = Hitler». Totalitarismoaren lanjerrak arbuiatzen ziren heinean, iraultza eta komunismoa neutralizatuak izan ziren, askatasun liberalaren izenean. Horrela, istilu handirik gabeko kontsentsu zuria lortu zuten.

Filosofo horiek komunikabideetan berritsuegiak izan arren, eginkizun zehatza konplitu zuten sozialdemokrata frantsesen erabakiak desbideratzeko orduan. 70eko hamarkadaren bukaeran sozialdemokratek taktika gisa «ezkerreko batasuna» hausnartu zutenean, filosofo berriek kritikatu zuten. 1980ean hauteskunde-batasun bera birjaio zenean, filosofo berriek alderdi sozialistatik desertatu zuten. Eta 1981ean Mitterrandek komunistak gobernuan parte har zezaten gonbidatu zituztenean,

filosofo horiek oposiziora pasatu ziren. Urte gutxitan etsai politiko amorratu bilakatu ziren.

Txostenean, *Le Débat* aldizkarian izandako elkarrizketa batetik hautatutako pasarte bat daukagu, non garbi zehazten zen nolakoa izan zen zenbait «ezkertiar berri» ospetsuren jarrera, Europan eta munduan «ezkerra» zedarrizterakoan. Kasu honetan Jorge Semprún idazle eta politikariaren esaldiak dira:

LD: Zer da egun Frantzian ezkerreko intelektuala izatea?

JS: Egun, pentsamendu ezkertiarren froga-harria Sobietar Errepublikan Sozialisten Batasunarekiko jarrera kritikoa da, zeinaren korolarioetako bat Kominterni jarraitutako alderdiak [Frantziako Alderdi Komunista] arbuiatzea den... Ezinbesteko auzia ez da ez Pinocheten basakeria, ez Lorraineko burdingintza eraistea, ezta Reaganen birzabaltze inperiala ere. Auzirik behinena Sobietar Errepublikan Sozialisten Batasunarekiko jarrerarena da.

Nazismoaren sarraski-eremuetatik igaro ondoren, komunistak ohi horrek primeran adierazten digu nola aldatu ziren «ezker» berriaren koordinatu politikoak eta borrokak: (Pinocheten) faxismoaren eta (Reaganen) inperialismoaren aurkako borroka Sobietar Batasunaren kontrako borrokan eraldatu zen. Halaber, ezkerreko borroka klasiko bat, langileriaren klase-borroka, baztertu zen (arestian aipaturiko pasartean, Lorraineko burdingintzari dagokion etorkizuna ez-baia laga zuen), liberalismo eta kapitalismoari ateak irekiz.

Hala eta guztiz ere, zenbait neurri aplikatu eta zenbait dinamika jazo ziren mundu intelektual eta ideologiko hartan ezkerreko indarra gal zedin, USAko intelligentsiaren berbetan:

- Gazteen artean «lanbide intelektualek» nabarmen garrantzia galdu zuten enpresako karreren eta ikasketa teknikoaren aurrean eta alde.
- Funtzionario unibertsitario atzerakoi edo «ideologiarik gabekoak» nagusitu ziren zuzendaritza-batzordeetan, eta unibertsitatean (Parisko Unibertsitatean, kasu) hainbat eta hainbat ikasle eta irakasle gazte ezkerretik aldentu ziren.
- Hamar urtez hezkuntza-erreformak –gazteak karrera tekniko eta enpresarialetan sarrarazteko diseinatuak– 70eko

hamarkadan borrokatuak izan ziren, ikasle eta irakasleek gogor eginez. 1983ko udaberrian, Mitterrand presidenteak erreforma horiek hedatu gura izan zituenean, protestak nagusitu ziren.

- Handik gutxira, istilu-sortzaile eta matxinatu horien anai-arreba txikienez bete ziren ekonomia-ikastaroak eta zientzia-kurtsoak, campus gorrietan ere bai, Parisko Unibertsitatean bezala (unibertsitate horretan intelektual marxistaren moda gailena izan zen 70eko hamarkada amaitu arte).
- Pittinka-pittinka karrera intelektualak gero eta elitistago bihurtu ziren, ikastetxe eta elkargoak antzinako tradizioa itzuliz. Laurent Fabius lehen ministroaren eskutik programa berria iragarri zuten, toki-gobernuetan, gobernu nazionalan eta zenbait enpresetan École Normale Supérieur edo Goi Mailako Arauzko Eskolako graduatu langabeek postuak eskura zituzaten.
- Orobat sozialdemokrata frantsesek etorkin egoiliarrak behartu zituzten behe mailako irakaskuntza uztera, «frantziarrendako» lanpostuak libre gera zitezten, politika identitario-chauvinista zela medio.

Mekanismo ideologiko eta dinamika tekniko horiek haus-tura geldigaitza kausatu zuten ehundura sozial eta politikoa. Komunzki erraten da Frantziako Errepublikaren bizitza politiko eta kulturalean 68ko maiatzaren ondoren gaullismoa erraz inposatua izan zela, 80ko hamarkadan sozialdemokratik sustatutako erreforma eta kanpaina liberalak ohartzeko. Gaullismoa eta mitterrandismoa bat etorri ziren diseinatutako olatu-kolpe kontserbadore eta liberal horretan, modernitate likidoaren ozeano tekno-ekonomiko globala aurreratuz. Komunismoaren aurka jotzen hasi zen alderdi sozialista, baina amaieran lehiakide politikoa neutralizatzeko gurak bere kontra jo zuen, bumeran-efektu baten tankerara. Sozialisten alderdiaren gainbehera izan zen, isolaturik, Mitterrandek eskainitako ministerioari Michel Foucault pentsalariak uko egin zionean bezala.

Testu hau burutu baino lehen, zenbait behin-behineko ikasbide iradoki nahi nituzke, ozeano hegemoniko honetan sorrarazitako aparra baizik ez direnak:

- Kontu handia izan modekin kulturaren, pentsamenduan, politikan eta filosofian. Deigarriena ez da sakonena izaten beti.
- Askatasuna aldarrikatzeko orduan, oinarri material eta historikoa beharrezkoa zaigu, hala teoriarik, nola praktikan.
- Ez dago elkarrekiko praktikarik teoriarik gabe: zenbat eta ekite zabalagoa izan, orduan eta teoria konplexuagoa eta zehatzagoa. Sinplekeriak ez dira lasterbide onak, ezta estrategiarik zuzenenak ere.
- Kulturaren zirkuitu politikoan denak axola du: komunikabideek, aldizkariak, unibertsitateak, artelanek, eztabaidak, idazlanek...
- Gerra kultural deitutakoak ez dira adierazle huts berriak: uste baino errotuagoak eta materialagoak izan eta izaten dira.
- Borroka bakarra ez izan arren, klase-borroka ez da nehoiz hil, ez munduan, ez Europan. Joan den mendean bizirik zegoen, egun ere bai. 🌊

Platonek *Errepublikan**

*Joseba Sarrionandiaren "*Lapur banden etika ala politika*" saiakeratik feriatua.

"(...)

HORIXE DA JUSTIZIAREN
JATORRIA ETA FUNTSA,
ONIK HANDIENA ETA TXARRIK HANDIENAREN
ARTEAN DAGOENA.

HAU DA, ONIK HANDIENA
INJUSTUA IZATEA DA, ZIGORRIK JASAN GABE.

TXARRIK HANDIENA
JASAN DEN INJUSTIZIAZ
MENDEKURIK HARTU AHAL EZ IZATEA DA.

ETA JUSTIZIA ESTIMATU DA,
EZ BEREZ ONA DELAKO,
BAIZIK ELKARRI KALTE EGITEA
ERAGOZTEN DUELAKO.

BAINA INJUSTUA IZATEKO
AHALMENA DUENA,
BENETAKO GIZONA BADA BEHINTZAT,
EZ DA HALAKO HITZARMENETARA
MAKURTUKO...".



JUP
/ze6hiz

Jakin^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

